



ttipi-ttapa



IKASTURTE HASIERA / 29



Kristina ETXEBESTE eta Gabriel TXOPERENA | Donostia Ospitaleko ZIUko erizaina eta medikua

**«NORMALTASUN BERRIA DEITU DUTE BAINA
EZIN GARA LEHEN BEZALA IBILI»**

Koronabirusa dela eta, inoiz ezagutu gabeko egoeran lanean aritzea egokitu zaie Txoperena medikuari eta Etxebeste erizainari. Gaixotasuna «serioa» dela eta zentzuz jokatzeko mezua luzatu dute. / 8

Zalantzaz betetako ikasturtea

Osasun egoerak baldintzatuko du hastear den ikasturtea. Irakasleak eta ikasleak «neurriak hartuz» bueltatuko dira geletara. / 12

SINADURAK



ZOKKETA / 43

«Enpresa berriak ez dio mesederik egiten orain erremonteari»

2009ko abenduan profesionaletan debutatu zuenetik erremonte munduan egiten ari den ibilbideaz aritu da TTIPI-TTAPAREKIN Aritz Zubiri Gamio goizuetarra. / 50



Bertan behera utzi duten Aresoko Mendi Martxa hizpide Mikel Baraibarrekin / 36

Sarako Idazleen Biltzarraren 37. edizioa igande honetan / 46

alala eta jostaria
alegre y divertido



freskos eta naturala
fresco y natural



biala eta osatua
estimulante y completo



ikas eta ari / aprende euskera



klasikoa eta berritzailea
clásico e innovador

Matriculikate

ika

Euskara errazago egiten

BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA
Lesaka - Matxinbeltzenea
Tel. 948 637 796
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

MALERREKAKO EUSKALTEGIA
Doneztebe - Rosa Seminario, 6
Tel. 948 451 555
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

LEITZALDEA, IMOTZ-BASABURUA eta ARAITZ-BETELUKO EUSKALTEGIA
Leitza - Euskal Herria Plaza, 1
Tel. 948 610 776
leitza@ikaeuskaltegiak.eus

DIRUZ LAGUNDUTA

MATRIKULA ZAITEZ irailaren 30a baino lehen

www.ikaeuskaltegiak.eus

euskara errazago egiten

ika






BERA LESAKA

Agenda 2020

IRAILA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

LESAKAKO UDALA

<p>2-9 ASTEAZKENA</p>	<p>JARDUERAK Genero-Indarkeria, sentsibilizazioa eta prebentzioa</p> <p>18:00 Harriondoa K.E.</p> <p>LESAKA</p>	<p>11 ORTZIRALEA</p>	<p>UDAKO ZIKLOA Kantu saioa. Lesakako abesbatza</p> <p>19:00 Plazatik abiatuta</p> <p>LESAKA</p>	<p>12 LARUNBATA</p>	<p>KULTUR PROGRAMA KONTZERTUA Pamplona Jazz Big Band</p> <p>20:30 Herriko Etxeko Plaza</p> <p>Argibide gehiago: www.pamplonajazz.com www.culturana Navarra.es Antolatzailea: Nafarroako Gobernua Laguntzaileak: Berako Kultur Batzardea eta Berako Udala</p> <p>BERA</p> 
<p>4 ORTZIRALEA</p>	<p>UDAKO ZIKLOA Bakean dagoena bakean utzi Bakarrizketak</p> <p>20:00 Plaza Zaharra</p> <p>LESAKA</p>	<p>12 LARUNBATA</p>	<p>MERKATUA Bertako ekoizleak</p> <p>10:00-13:00 Beralandetan</p> <p>BERA</p>	<p>18-19 ORTZIRALEA LARUNBATA</p>	<p>UDAKO IKASTAROA UPV/EHU</p> <p>Irakurketa-idazketa garatzeko arazoak haur euskaldun elebidun edo eleaniztunengan. Noiz eta nola esku hartu</p> <p>Argibide gehiago: www.lik.eus</p> <p>LESAKA</p>
<p>5 LARUNBATA</p>	<p>NAFARROAKO ANTZOKI SAREAREN ZIRKUITUA DANTZA Concavo-Convexo (Led Silhouette)</p> <p>19:00 Kultur etxea. Sarrera: 6€</p> <p>Argibide gehiago: www.ledsilhouette.com Antolatzaileak: Berako Kultur Batzardea eta Berako Udala Laguntzailea: Nafarroako Antzoki Sarea</p> <p>BERA</p> 	<p>12 LARUNBATA</p>	<p>UDAKO ZIKLOA Lesakako Erraldoi eta Buruhandien konpartsa</p> <p>10:30 Harriondoatik hasita</p> <p>LESAKA</p> 	<p>19 LARUNBATA</p>	<p>UDAKO ZIKLOA Itxiera ekitaldia</p> <p>LESAKA</p>



NIRE TXANDA

XABAT ILLARREGI MARZOL

Euskara

«Leitza oso herri euskalduna da. Leitza euskarak ez du galtzeko arriskurik». Askotan entzun dugu halakorik, eta guk ere hori barneraturik dugu. Ordea, gero eta gehiagotan entzun izan ditut gazteak euren artean gazteleraz, helduak euren artean gazteleraz eta adineko pertsonak euren artean gazteleraz. Egia da, konparaketak egiten hasiz gero, Euskal Herrian eta oro har Nafarroan, Leitza euskarak hiztun kopuru altua duela, baina gero eta kontzientzia euskaldun gutxiago dugula iruditzen zait. Erlaxatzearen ondorio? Leitza, hain inguru euskaldunean, gazteleraz aritzeko joera handitzen ari baldin bada, edo joera hori baldin badago behintzat, guk daukaguna ez duten lekuetan seme-alabak euskaraz ikasteko eta bizitzeko ahalegina egiten ari direnekiko errespetu falta dela uste dut joera hau. Gaztelarak handinahia ematen digu eta euskarak balorea, bakoitzak erabaki beza. Askori min egiten dio hau irakurtzeak; bada, zer hausnartua badugula esan nahi du.

«GAZTELERAK
HANDINAHIA ETA
EUSKARAK BALOREA
EMATEN DIGU»



EZPALA

AITOR AROTZEN A LBIZU

Errepublikatik emiratoetara

82 urteko agure bat, auskalo zenbat seme-alaben aita eta zenbat biloben aitaxi, etxetik falta da azken hilabeteetan eta inork ez du deus egiten hura topatzeko. Okerragoa dena, txistekin dabilta: *Erregea izanik errepublika aukeratu du badaezpada*, lehenik (kir-kir!); *emerittoa emiratoetan hitz-jokoa*, gero (kar-kar!). Beharrik ez den Mongoliara joan! Edo?

NABARMENTZEKOAK



ANA MARI
MARIN
HILBERRIA



PETTI
MUSIKARIA

Ana Mari Marin margolari elizondoa abuztuaren 24an zendu zen, 87 urterekin. Artista emankorra eta ezaguna Baztango paisaietan oinarrituz egiten zituen pintura koloretsuengatik.

Manipulazio estrategiak bere azken lana aurkeztuta musika ibilbidea bukatuko duela iragarri du Juan Luis Perez Petti Berako musikariak. Bere diskorik politikoena omen du.

ATZERA BEGIRA



2010-09-02 · TTAPI-TTAPA · 525 zk.

Erleen onurak hizpide Jaione Irisarriekin

Jaione Irisarri Elgorriagako apiterapeuta lagun, erleek eta euren produktuek osasunean dituzten onurak izan zituen hizpide TTAPI-TTAPAK duela hamar urte. «Gaixotasun aunitzetarako» balio dutela azpimarratu zuen, eta bereziki, «hemen, artrosia, artritis, ziatika, diska etendura eta gerriko mina» tratatzeko erabiltzen zirela azaldu zuen. Gaineratu zuenez, «ginekologiako gaitzak sendatzeko ere balio du, eta dermatologia arazoak, psoriasis, ekzemak, traumatismoak eta era guztietako oinazeak ere bai». Mina kentzeaz gain, «antiinfamatorioa dela eta sistema immunologikoa martxan paratzen duela» kontatu zuen. Horrez gain, erleak desagertzea «hagitz kaltegarria» izan daitekeela ere nabarmendu zuen.

ttipi-ttapa

erran.eus

TOKIKOM

Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttapi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea

Nerea Bazterrika

Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Usoa Vicente

Berriemakileak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,

Aranxa eta Iraia, Irune Elizagoien,

Maidier Petrirena, Oihana

Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,

Aintzane Leiza, Pablo Irastortza,

Maita, Ana eta Itziar, Juan Mari

Barriola, Marga Erdozain, Maitane

Maritorea, Aranxa Iturralde,

Aranxa Gamio, Jaione Ariztegi,

Jaione Zabalza, Nerea Mortalena,

Virginia Oteiza, Pierre Bastres,

Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier

Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione

Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdiko Akelarre elkarteak

2020ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi	
eta Malerreka	39€
Leitza	28€
Hego Euskal Herria	47€
Ipar Euskal Herria, Europa	86€
Amerika eta Australia	139€

Nafarroako
Gobernua **Gobierno
de Navarra**

mecna

**BAZTANGO
EUSKARA**

**BORTZIRIETAKO
EUSKARA
MANKOMUNITATEA**

**Malerrekako
Mankomunitatea**

CC BY SA



KOLABORAZIOAK

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

Uda

Bestatik bestara antolatzen genuen udako egutegia; orduan, gazte izan eta gaua eguerdira arte luzatzea normala zen garai horietan. Orduan, maskara bat, izatekotan, inauterietako mozorroa baino ez zenean. Besarkadak eta musuak begiradaz zigortzen ez zirenean.

Orduan, Iruritako bestekin berotzen genituen motorrak, San Juan bezperarekin eta Doneztebeko bestekin egiten genien ongietorria eguraldi onari eta gau motzei, San Fermin aitzineko egunek ematen zuten besta-gogo-urduritasunaren neurria —deskribatzen zaila den *presanfermin* hori—; segitzen zieten Baztandarren Biltzarrak, Elizondoko bestek, Berakoek; eta, abuztuaren erdialdearekin batera, gure zain ziren Leitzako eta Goizuetako gaupasa amaigabeak: txosnak, betizuak, gosariak, erreka eta igerilekuetan bustitako bestondoak. Gero Arantza Rock. Eta Artikutza. Igantzi. Eta *gaixoa ni*. Heldu den udara arte. Udazkeneko haizegoak ematen duen nostalgiaz. Baina kontent.

Aurtengoa bitxia izan da: ez-bestak nonahi, erdibideko planak, eta besta saiakera frustratuak —edo «deus baino hobea» optimistak—. Ez gara joan ondoko herrietako ez-bestetara, egin dugu ahalik eta neurritsuena, eta, hala ere, gu jarri gaituzte jopuntuan, nonahi: gazteak, bestazaleak, ustez

arduragabe jokatzeko dugunak. Bai?

«MENDIAK BADU BERE XARMA, BAINA... EA HELDU DEN URTEAN...»

Halakoak behin eta berriz errepikatzen dituztenei ahanzi egiten zaie behinola gazte izan zirela; behinola egun bateko —edo biko— gau-

pasaz antolatu zutela udako egutegia. Lanera joan zirela noizbait bestondoak edo ia lorik egin gabe. *Edozeinherrikojaixetan* izan zirela zoriontsu. Akaso orduan atzeman zutela, barra garagardotu baten ertzean edo plazako dantzaldi izerdituan gaur egun euren umeen bertze gurasoa den hori.

Baina memoria laburra dugu gizakiok; laburregia. Eta deabrutu egin gaituzte gazteak, bestazaleak, ustez arduragabe jokatzeko dugunak; behinola gazte, bestazale, ustez arduragabe izan zirenek. Bai? Agian bai. Baina zer egiten lukete eurek, gure azalean? Are, —eta euren gogoaren kontra— oraindik gurasoen etxean bizi balira? Are, ez balute udarako lanik atzeman ere egin izan?

Agian bai, agian egia da koronabirusari karga kendu (eta kentzen) diogula, gazte izateagatik. Ez diogula beldurrik heriotzari, urrun sumatzen dugulako (gurea). Baina ez da hori bakarrik. Kontua da besta ez dela (kale) zurrut hutsa; alkoholaren eta drogaren zurrunbiloa baino haratago doala gure udako egutegiaren antolaketa. Herriko bestak baitira, bertzeak bertze, (kuadrillatik kanpo) sozializatzea, jende berria ezagutzea. Edo sakonago harremanak izatea betikoekin, jostetan aritzea. Herri egitea, eta herriatik at egitea. Eta, aurten, ezin izan dugula egin.

Mendiak badu bere xarma, baina... Ea heldu den urtean...



MIKEL TABERNA IRAZOKI KAPI

Demonio lastairatzarra

Santiago eguna, Alkaiagan seinale. Egundaino hartan auzoko frontoi berrira joan ginen, bazirelako mutxikoak eta bertzelako dantzak, Lesakako Udalak antolaturik. Batzuk bazterretik begira gelditu ginen, bakoitzak bere ahoan maskara klaseren bat. Nork erran behar zuen honelako helderia bat ezagutu behar genuela! Solasean aritu ginen aspaldiko lagun on batekin. Istorio polit bat kontatu zigun: aitzin horretan emakume adindu batek bertze bati «*demonio lastairatzarra*» erran omen zion haserre. Irriz oroitzen zen gure laguna. Nik egundaino aditu gabea nuen bertze norbaiti min egiteko erabiltzen omen den errate hori.

Bistan da, solasak ere dantzara atera behar ditugu plazara, bertzela galdu egiten baitira. Nire beharriek haur eta gazte denboran adituriko hitz aunitz ez dituzte gure seme-alabek ezagutzen orain. Uste dut gaur egun ez ditugula orduan bezala noiznahi ahotik botatzen maldizioak eta irainak, bertze norbaiti min edo burla egitekoak, errieta edo *errixta* ematekoak... Ez dakit ez ote diren txoil galduko harako «*zoldazu zikina*», «*demonio astopitoa*», «*ilupa alaen ilupa*», «*urde alua*»... eta gisakoak. Pena litzateke. Norbaitek erranen dizu utikan halakoak, itsusiak edo zakarrak direlako, baina ez nik. Denetik behar du hizkuntzak, bizirik nahi badugu.

«ORANGO JAIOBERRIAK EUSKARAZ ARIKO OTE DIRA HELDU IZATEAN?»

Bertze egun batean, Jon Maia etorri zitzaigun Altzateko plazara, kantari gisara, bi musikari kategoriakoekin, Berako Udalak ere bere kultur eskaintza egin baitu uda honetan.

Han ere izan ginen, aulkitik aulkira tartea utzirik eta ahoa tapaturik, inork inori ausirik ez egiteko. Bertsolari ospetsuak kontatu zigun lehenagotik ere aditua geniona, berak «*abuela*» eta «*abuelo*» izan zituela, Extremadura eta Zamora aldetik etorriak, *mantxurriano* deitzen genituen bertze hainbertze bezala, eta harro zela haiengatik, lur honetara etorriak jakin zutelakoz bertan bizitzen, eta ereiten, euren ondotik heldu zirenek aisago lake-tzeko, eta orain bera gure aitzinean zela, euskaraz gogotik ari. Guk bezalaxe aditu ote zion justu kontrako bidea hartu duen zenbaitek? Ez baitira gutti gure inguruan, euskara jakiki baina kezkarik batere gabe galtzera uzteko prest iduri dutenak. Birus hori ere indartuxea sumatzen dut aspaldi honetan, ez hemendik aparte.

Uztail hondarrean eta abuztu hasieran mundura sortu diren hiru haur suertatu zaizkit etxetik hurbil: Ane, Unax eta Izei (zorionak, bereziki horien ama direnei!). Urretxuko artistak ez bezala, hauek aitatxi eta amatxi euskaldunak dituzte, ama eta aita ere bai. Imajinatu nahi ditut hemendik 60 bat urtera, ni orain nagoen bizitzaren gainalde honetan. Zer kontatuko ote dute bizitzen ari garen istorio sinestezin honi buruz? Eta nola? Oraingo jaioberri hauek euskaraz ariko ote dira emakume eta gizon heldu izatean?

11 GALDERA LABUR

TRINIDAD MIQUELARENA ETA JOKIN ARMAN

«Erakusketara etortzen direnei lanak ulertzen laguntzen diegu»

Aurkeztu zeuen burua.

Senar-emazteak gara, ni irakaslea izana eta senarra ereile-teknikoa. **Zein da artearekin izan duzuen harremana?**

Beti izan dugu zaletasun hori eta horrek lotu gaitu. Jokin, gaztetan, margotzen ibilia da, Oteiza eta Basterretxearekin ikasi du. Ni Ingalaterran izan nintzen denboran hasi nintzen marrazten...

Nork irakatsi zizuen?

Nik, karrikatan ibiltzen diren artistei begituta, pastelaren oinarriak hartu nituen. Gero etxean zerbait ona lortu arte saiatzen nintzen... Jokin, berriz, larunbat eta igandetan aritzen zen, mendira joaten zen zuhaitzak margotzeko.

Erretiroa hartuta zaletasunak toki handiagoa hartu du?

Bai, urte hagitz emankorrak izan dira. Denbora horretan gure lanak Hondarribin erakutsi eta nire lehen liburua idatzi nuen: *Hegan egiten ez zekien txanxangorria*.

Noiz eta nola sortu zen Armi tailer museoan erakusketa egiteko ideia?

Covid-19 agatik erakusketa batzuk bertan behera gelditu zirenez, etxean erakusteko aukera aztertzen hasi ginen.

Zer da ikusleek ikusiko dutena?

Guk 30 urte hauetan egindako obra. Erakusten dena baino gehiago dagoen arren, hor erakusten dugarai guzikoak: bertzeak bertze, naturari egiten zaion kalteari buruzko lanak eta harri-eskultura ttiki-ttikiak, hagitz politak.

Zer dute Jokinen eskulturek bereizgarri?



Azken garaiko eskulturek dira, hagitz bereziak eta sensibilitate handikoak.

Eta zure margolanek?

Figurak dira (amatasuna, gizonak, haurrak...) eta bizitzako egoerak sintetizatzen dituzte, minimalistak dira.

Margotu eta marraztu egiten duzu, baina bide berriak probatzeko gogoia ere baduzu...

Sagarroi adolescente baten eguneroko liburua idazten ari naiz eta zortzi-hamar urteko

umeendako ipuin batzuk ere idatzi ditut.

Momentuz, zer harrera izan du erakusketak?

Oraindik ez dugu aunitz zabaldu baina inguruko jendea bertaratu da eta hagitz kontent gelditu dira.

Nola animatuko zenituzkete ikusleak erakusketara?

Gure laguntzarekin obren erranahia ulertuko dutela eta gozatzeko aukera izanen dutela erranez.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak

Merkealdia azken egunak



IRAKURLEAK MINTZO

Euskalteleko presidenteari

XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ

Azken hilabete hauetan, makina bat dei jaso dut Euskalteletik, beraiek eginda, jakina, nik behin ere deitu gabe; nonbait gose handia dute beraien sarea zabaltzeko. Azkeneko deia 2020-08-07an izan zen, erdaraz, gainerako guzti-guztiak bezalaxe. Neronek beti eskatu izan diet euskaraz artatua izan nendin, baina ez dut sekula santan ere halakorik lortu. Azken dei horretan, emakumezko atsegin batek, espainiera garbian, esan zidan, euskaraz artatua izan nahi banuen, bezeroen arretarako telefonora deitu behar nuela; begira ezazue zeinen eroso bezeroentzat, eta, batez ere, zein berdintasun egoera bi hizkuntzen artean! Gainera, ni ez naiz beren bezeroa, eta, deitu ere, neronek ez nien deitu, beraiek baizik! (...)

Antzeko egoera deseroso behin baino gehiagotan pairatu ondoren, bururatu zait begiratzea Euskal Wikipedian, jakiteko zer jartzen duen, besteak beste, Euskaltel telefonia konpainiari buruz, eta hauxe da, laburbilduta, aurkitu dudana: EAEko alderdi politiko hegemonikoak harreman handia izan omen du Euskaltelekin hasieratik; lehendakari ohi bat izan omen zen Euskalteleko lehen presidentea; EAEn akziodun nagusia Kutxabank omen da; 2019ko martxoan akziodunen hurren-kera hauxe omen zen: Kutxabank, Zegona, Capital Group, Abanca, Artemis, Citigroup; beste inbertitzaile txiki batzuk, burtsa eta langileak barne: %39,22. Euskararen aldeko ekintzak ere egiten omen ditu: publizitatean eta bezeroei telefono bidezko arreta

zerbitzuan elebitasuna aplikatzen omen du. Langileriaren prestakuntza; euskara ikastaroak %38k jaso omen zituzten 2007 eta 2008 artean. Diru-laguntzak honako hauei ematen omen dizkie: Ibilaldia, Kilometroak eta Euskaltzaindiari, Euskaltel Fundazioaren bitartez. Fakturak elebidunak omen dira eta euskara hutsean ere egiten omen dituzte, hala eskatuz gero. Jakinarazpenak, kontratuak eta barne-komunikazio estandar guztiak elebidunak izaten omen dira. Erantzungailua, bai finkoan, bai eskukoan, euskara hutsean konfiguratzeko aukera omen dago. Hamaika Telebistaren sustatzaileetako bat eta bazkide teknologikoa ere omen da aldi berean, eta, *Berria, Gara, Le Journal de Pays Basque, Elkar* eta *Deiarekin* aritzen omen da elkarlanean. Hizkuntza politika garatzeko, urtero, aurrekontuaren %5 bideratzen omen du. Bai Euskarari eta Bikain sariak jaso omen ditu, eta, azkenik, euskararen aldeko jarrera nabaria duela dio Euskarazko Wikipediak.

Bueno, ba, jaun-andreok, Euskal Wikipediak hori guztia baldin badio, egia dela sinistu beharko dugu, eta, bejondeiela Euskaltelekoie! Hala ere, ni behartuta nago esatera, azken urteotan guztietan, beraiek deitu didaten aldi guztietan erdara hutsean egin didatela, alegia, espainieraz, nahiz eta nik aldiro eskatu eta adierazi zerbitzua, hau da, azalpenak ere, euskaraz jaso nahi nituela. Sekula santan, ordea, ez dut urrutitik ere lortu halakorik, hamaika aldiz eskatu banien ere.

2020-07-16an, Euskalteleko komertzial batek deitu zidan, bezperan, beste langile erdaldun batekin hitz egin ondoren, nik hala eskatuta, hots, langile

euskaldun batekin mintzatu nahi nuela; hark, baietz, biharamunean norbaitek deituko zidala euskaraz erantzuteko. Deia Bilbotik egin omen zidan saltzaile hark, baina, berriz ere, gaztelaniaz: Valentziako erkidegokoa zela esanez, justifikatu nahi izan zuen bere euskaltasun eza. Nik ez nuen amorerik eman. Azkenean, eztabaida bero samarra izan genuen: nik euskaraz artatua izateko eskubidea neukala erreibindikatu nion behin baino gehiagotan. Hark, ezetz! Azkenik, modu kategoriko eta inposatzailean, esan zidan ni ere espainiarra nintzela; nik, ezetz, euskalduna nintzela, besterik gabe. Gainerako guztia, konkista beliko eta kultura genozida baten ondorioa dela azaldu nionean, orduan, berak, haserre, elkarrizketa eten zuen.

Beste xehetasun txiki bat, baina nahiko esanahitsua: Googlen, <Euskaltel euskaraz> idatzi, bere webgunean sartzeko, eta, defektuz, beti espainieraz agertzen da, nahiz eta euskaraz eskatua izan; gero, bai, orrialde barruan, eskatu ahal zaio hizkuntza aldatzeko, baina, hor ere, argi eta garbi ikusten da Euskaltelek zein hizkuntzari eta zein erabiltzaileari ematen dion lehentasun osoa.

Bukatzeko, Euskalteleko zuzendari jauna, nik uste dut, telefonoz, balizko bezero guztiak (niri hola gertatu izan zait kasu guztietan) espainieraz hitz egitera behartzea nahitaez, ez dela batere egokia, bestela, <EUSKAL> hitz hori zeharo soberan dago. Eta, Euskalteleko saltzaile bati entzun eta onartu behar baldin badiot ni espainiarra nai zela nahitaez, telefono konpainia hori erabat lekuz kanpo dago niretzat; horrela nekez limurtu eta konkistatuko nau.

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58



ANA GALAR ARIZTEGI

HEMEROTEKA



«Disco honekin bukatutzat eman nahi nuen nire musika ibilbidea (...) Animoz ongi nago. Baina nire asmoa zen lan bat aurkitzea, harakin edo ostalari, eta, lanbide horietan egun osoz aritzen bazara, zaila da talde baten dinamikari eustea (...) ez dira bateragarriak».

PETTI BERAÑO MUSIKARIA I BERRIA. 2020.08.01



«Udan entrenatzen ibiltzea ez zait oso gogorra egiten. Egiten dudana asko gustatzen zait, eta, alde horretatik, ez dut esfortzu berezirik egin beharrik udan. (...) Hala ere, ezin dut ukatu nahikoa arraroa egiten dela lagun guztiak hondartzan daudenean ni eskien gainean egotea».

ADUR ETXEZARRETA ARESOKO
ESKIATZAILEA | BERRIA. 2020.08.20

BOTA BERTSOA

EIDER ZUGARRAMURDI OSA
GOIZUETAKO BERTSOLARIA

Inposatutako bizimodu berria



*Martxok hamalau ametsgaiztoan
Etorreraren eguna,
Kaleetako joan etorritan
Nagusi ixiltasuna,
Gure artera ekarri zula
Birusak goibeltasuna,
Bapaten kendu zigutelako
Ondokon goxotasuna.
Ezin ikusi, ezin ikutu,
Famili eta laguna,
Ezin sentitu bihotz barruan,
Hoiak denen maitasuna,
Orduan kendu baitzun birusak
Egunan argitasuna.*

*Egunak pasa asteak pasa
Etxean Konfinatua,
Mugak ireki ta ikusi nun
Egun beltza argitua,
Baina oraindik koronabirus
Etzegoen bukatua,
Kutsatze maila Euskal Herrian,
Goraka zen abitua.
Muxukoa zen ordun notizi
Haien lege pairatua,
Tabernetako ordutegia,
Berriz ere murriztua
Oraingo hontan herria dute,
Beraiek menperatua.*

GOITI ETA BEHEITI



Zaborra lekuz kanpo



Uda honetan eskualdean irakurleek hartutako irudiak dira: Elizondoko futbol zelaian kautxu zaharra kendu eta berria paratu ondotik, zaharra zakuetan kiroldegiko aparkalekuan hilabeteetan utzi zutenekoa; Berako Zia errekan zaborrontziak; Lesakako Zambra inguru trastez gainezka; Alkaiagako industrialdean zaborra...

«Inguruko en bizitza arriskuan ikusi dutenek bakarrik ikasi dute»

GABRIEL TXOPERENA ETA KRISTINA ETXEBESTE ZIU-KO MEDIKUA ETA ERIZAINA

Koronabirusa tarteko, «inoiz ezagutu gabeko egoeran» eta atsedetik gabe lanean aritzea egokitu zaie Txoperena eta Etxebeste lesakarrei. Zentzuz jokatzeko deia luzatu dute

G. PIKABEA | LESAKA

«Gaixotasuna serioa da». Halaxe, argi eta garbi, mintzatu dira Gabriel Txoperena Altzugarai eta Kristina Etxebeste Azkarate Donostiako Ospitaleko Zainketa Berezien Unitatean (ZIU) lan egiten duten lesakarrak. Medikua da Txoperena, 31 urtez Donostia Ospitaleko ZIUari dena eta erizaina Etxebeste, aitzinetik Madril eta Iruñeko ospitaleetan ZIUari ibili ondok, otsailaz gozotik Donostian ari dena. Covid-19a tarteko, «behin ere ezagutu ez dugun egoeran» lan egitea egokitu zaie, lehenbiziko lerroan egon dira, koronabirusak jota hagitz larri egon diren edo aitzinera atera ez diren pazienteekin lanean. Emozionalki zein fisikoki «gogorra» izan dela aitortu dute, «tentsio handiko uneak» izan dituztela eta «nekatuta» ibili direla. «Oraingo egoera kontrolatzen ez bada, arazoak izan daitezkeela» ohartarazi dute. **Osasun krisiak bat-batean harapatu zintuzten?**

Gabriel Txoperena: Txinatik etorritako albiste guztiak ez ziren zuzenak izan, eta horren adibide dugu, eritasun honek duen kutsakortasun mailaren inguruan zabalduak. Donostian, hala ere, zortea izan genuen, honat ailegatu baino lehen Gasteizera eta Iruñera ailegatu zelako eta horrek neurriak hartzeko eta psikologikoki prestatzeko denbora eman zigulako.

Kristina Etxebeste: Hurbileko bertze ospitaleetako egoera ikusita, aitzineratzen hasi ginen: Norbera Babesteko Ekipamendua (NBE) nola paratzen eta kentzen den, gela barranean nola ibili behar den, gelatik ateratzerakoan zein pauso eman behar diren... ikasten hasi ginen. Baina dena hagitz agudo joan zen eta segidan hasi ziren pazienteak etortzen.

«BOTIKEN %80 TXINAN ETA INDIAN EGITEN DA»

GABRIEL TXOPERENA, MEDIKUA

Zerbait berria zenez, egunero egokitu behar izaten genuen, oztopoei edo zailtasunei soluzioak bilatuz.

Zein neurri hartu zenituzten?

G. T.: Ez kutsatzeko neurri zorrotzak bete behar izan ditugu eta horrek lana moteldu eta lan bera egiteko osasun langile kopuru handiagoaren beharra sortu du. Aste hondar eta Aste Santuko egun guztietan

«BALIABIDE MUGATUAK IZAN DITUGU»

KRISTINA ETXEBESTE, ERIZAINA

«Hurbiletik zaindu behar izan ditugu»

KRISTINA ETXEBESTE DONOSTIA OSPITALEKO ZIU-KO ERIZAINA

Otsailean hasi zen Donostia Ospitaleko ZIUari Kristina Etxebeste erizaina eta Covid-19a izan duten pazienteekin bertatik bertarako harremana izan du: «gaixoak hagitz larri egon dira eta gure ardua hurbiletik zaintzea eta etengabeko kontrola egitea izan da». Bertzeak bertze, «konstante bitalak kontrolatzen –temperatura, tentsioa, oxigenoa...–, arnas-teko hodiaren eta ahoaren zainketa egiten, medikazioa paratzen, zundak zaintzen, analitikak ateratzen, gaixoaren



higienea egiten...» aritzea egokitu zaio. Baina hori gutti ez, eta haratago ailegatu da bere jarduna, pazienteei egin dieten konpainia ezinbertzeak izan baita: «Pazienteek

lan egin behar izan genuen, eta opor eta baimen guztiak blokeatu zituzten.

K. E.: Laneko martxari dagokionez, gaixoarekin kontaktua izateko NBE erabiltzen hasi ginen eta lantokiko guneak ongi mugatu eta seinalatu genituen, bi eremu bereiziz: batetik, birusa duen gaixoaren boxa edo gela, babestuta sartze gunea, eta bertzetik, gune garbia edota birusarekin harremanik izan ez duen lekua. Horrez gain, gaixoaren gelan egin beharreko jardueren planifikazioa bertzelakoa izan da eta ezinbertzekoa egin zaigu ongi kudeatzea, langileok dugun birusarekiko esposizioa murrizteko eta ekipamendu aldetik genuen baliabide mugatuei ahalik eta etekin egokiena emateko.

Zein egoeratan aritu zarete lanean?

K. E.: Momentu zailak izan dira, batzuetan ospitaleratzeak bata bertzearen gibeletik ailegatu izan dira, larri zeuden pazienteak izan dira, momentu batetik bertzerara okerrera egin dute... Egoera ez da erraza izan, eta horrek lan karga hagitz handia sortu du. Zerbaitetan estresagarria izan da eta lasterka ibili behar izan dugu. Baina, aldi berean, tal-

ezin zuten bisitarik jaso eta bakardadea saihesteko edo familiakoak hurbilago sentitzeko gaixoei senitartekoek utzitako mezuak leitzen genizkien eta eurekin haien argazkiei buruz solasean aritzen ginen. Batzuetan pazienteen eta senitartekoen arteko bideo-deiak ere egiten genituen, bakardadea eramangarriago izan zedin». Azken hilabeteotako momenturik onenez eta txarrenez ere aritu da: «onenak gaixoei hobera egitean sentitu izan ditut, alta eman eta atletik txalo zaparrada batekin atera izan direnean. Txarrena, berriz, gaixotasunak aitzinera egiten zuela ikustea izan da».

dean lan egitea zeinen garrantzitsua den ikusi dugu. Erizain, mediku, garbitzaile, zeladore... ezinbertzekoa izan da denon arteko elkarlana eta denontzat ezezaguna izan den egoeran elkar laguntzea.

Baliabide faltarik izan duzue?

K. E.: Baliabideak mugatuak izan dira. NBE materiala, adibidez, batzuetan desinfektatu eta berrerabili behar izan dugu baina material aunitz ez dira berrerabilgarriak, eta erabilpena ongi kudeatu behar izan dugu. Deus xahutu gabe, dena beharrezkoa izan da.

G. T.: Arazo hori Europa guztian sumatu da. Azken urteetako kapitalismo basatiaren eta globalizazioaren erruz, lehen osasungintzako materialak—botikak, arropak, maskarak...— hemen ekoizten zituzten enpresak Asiara eraman zituzten. Asian, pandemia hemen baino lehen hedatu zenez, behar zuten materiala erabili zuten, eta ondorioz, hemen material guttirik gelditu ginen eta gainera, garestiago saldu zuten. Deslokazioaren arazo larria izan da. Euskal Herrian zortea izan dugu, Zamudioko enpresa batek goi mailako materiala egiten segitzen zuelako, baina



Kristina Etxebeste erizaina ezkerrean eta Gabriel Txoperena medikua eskuinean.

gertatu denarekin, ez ahal dute merkeagoa delako berriz produkzioa Txinara bideratuko. Guk eriak tratatzen ikasi dugu, baina espero dugu politikariek ere ikasi izana eta hausnarke-

ta bat egitea behar-beharrezkoa den ekoizpena honat ekarri. Adibide gisa, botiken %80 Txinan eta Indian egiten da, nahiz eta enpresak Europakoak diren. Eta ez naiz osasungin-

tzako produktuez bakarrik ari, bizitzeko oinarritzkoa den guztia hemen ekoizti beharko litzateke. Gainerakoan, ez dugu arnasa hartzeko gailuen faltarik izan, baina prentsan ikusi dugu, azken momentuan enpresak arnas-makinak egiten hasi direla eta ez direla erabilgarriak izan. Bertze arazoa osasun langileak kutsatu izana izan da. Guri ez zaigu kasu aunitzik tokatu, baina bertze ospitale eta adinekoen egoitzetan gertatu izan da eta langileek batetik bertzerara mugitu behar izan dute.

Nola moldatu zarete Donostia Ospitalean?

G. T.: Donostia Ospitalean lehenbiziko bi kasuak otsailaren 28an ezagutu ziren eta ZIUn lehen eria martxoaren 11n izan genuen. ZIUn 60 eri inguru izan ditugu eta hilkortasun-tasa, gutti goiti-beheiti, %20koa izan da. Baina azpimarratu behar da batzuk bizirik ateratu diren arren, ondorio kronikoekin ateratu direla edo →

«Birusa berria da eta horixe da arazoa»

GABRIEL TXOPERENA DONOSTIA OSPITALEKO ZIU-KO MEDIKUA

Covid-19 birusaren inguruko hainbat xehetasun eman dizkigu Gabriel Txoperena medikuak. «Koronabirus familiako birus bat» dela azaldu digu, «mikrobio ttiki bat, gripearen antzekoa dena eta animalietatik eratorritakoa». Gaineratu digunez, «ehun urte lehenagotik ezagutzen diren gripea, gorrina edota polio bezalako birusak ez bezala, berria eta emergentea» dela dio, eta hori da hain zuzen, «arazoa».

Bertzelako koronabirus motez ere aritu da, eta horien



artean, «aspalditik ezaguna dugun eta bertako katarroa sortzen duena, 2003an Txinan agertu zen eta 8.098 eri eta 774 hildako utzi zituen SARS pneumonia, edota 2012an,

bertzeak bertze, Saudi Arabian gameluei lotuta agertu zen eta %35eko hilkortasuna eragin zuen MERS Cov-a» aipatu dizkigu. Eta nola kutsa daiteke? Txoperenaren hitzetan, «Covid-19a dutenek aho edo sudurretik botatzen dituzten tantetan egoten da birusa» eta hortik «aire bidez, edo eskuekin gure aho, sudur edo begietara» ailegatzean kutsatzen da. Hortaz, nabarmendu du «ez kutsatzeko, 1,5 metroko segurtasun tartea mantentzearen, eskuak garbitzearen, maskara erabiltzearen edota errausin edo ezutla egitean ahoa estalia izatearen garrantzia».



Etxebestek hagitz hurbileko harremana izan du ZIUn egon diren pazienteekin.

—> ZIUtik atera ondotik berriz itzuli behar izan direla, ondorio edo konplikazioengatik, gehienbat, arazo neurologikoekin, biriketakoekin eta enboliekin. Gaixotasuna serioa da. Donostiako Ospitaleko ZIUn 48 ohatze eta arnasa hartzeko makina ditugu. Baina anestesistekin elkarlanean, operazio- eta erreanimazio-geletako ohatzeak erabili behar izan ditugu Covid-19a zutenak eta ez zutenak artatzeko. Bertzalde, zentro pribatuko ZIUn ohatzeak publikoaren esku gelditu dira.

Kasu larriak izan dituzue?

G. T.: Bai. Batzuk asintomati-koak dira eta bertze batzuek gripearen antzeko sintoma arinak izaten dituzte: sukarra, zintzurreko mina, eztula, buruko eta giharretako mina, usaimenaren edo dastamena- ren galera... Baina badira kasu larriak, eta horiek dira ZIUn bukatzen dutenak. Horien artean, batzuek pneumonia eta arnasa hartzeko arazoak

izaten dituzte; bertzeek buruko edo sintoma neurologikoak: iktusa, epilepsia eta entzefalitis. Bertze batzuei bihotza hazten zaie eta badira giltzurrunetako arazoak izaten dituztenak. Zainetako tronbosia eta biriketako enbolia kasuak ere aipatu behar dira, Txinako datuetan agertu ez direnak.

Eriek nolako bilakaera izan dute?

K. E.: Aunitzetan, prozesu luze samarra izan da. Hasierako egoeran intubatuak egoten dira, sedatzeko eta erlaxatzeko medikazioarekin. Hobera egin ahala, arnasteko hodia kentzen zaienean ahul gelditzen dira. Autonomia berreskuratu arte denbora behar izaten dute eta errehabilitazio lan handia egin behar dute.

«TRATAMENDURIK HOBERENA PREBENTZIOA DA»

GABRIEL TXOPERENA, MEDIKUA

G. T.: ZIUn guttienez 20 egunetik goiti pasatzen dituzte, eta batzuk bi edo hiru hilabete.

Nolako ondorioak ikusi dituzue kasu positiboan artean?

G. T.: ZIUtik ateratzen direnak ahul ateratzen dira, eta batzuk ondorio larriekin: birikak gogortuak edo fibrosatuak, arnasa hartzeko arazo kronikoekin, iktusaren ondotikelbarriak, usaimena eta dastamena galduarekin... Txertoa bidean dago baina oraindik ez dago tratamendurik, sintomak eta konplikazioak dira tratatzen direnak. Adibidez, arnasa hartzeko zailtasunak dituztenak makinari lotzen dira, baina horrek ez du sendatzen, bizi-rik mantendu baizik. Jende aunitz ari da txerto eraginko-

«ZIU-TIK HAGITZ AHUL ATERATZEN DIRA»

KRISTINA ETXEBESTE, ERIZAINA

rraren bila lanean, baina bitartean, tratamendurik hobere-rena prebentzioa da, neurriak hartzea eta ez kutsatzea.

Zerk eragin dezake eritasunean?

G. T.: Adinak, bihotzeko, biriketako edo giltzurrunetako eritasuna izateak, diabetesak, tentsio altuak, loditasunak, minbiziak edota defentsak jausten dituzten eritasunak izateak edo botikak hartzeak eritasuna larriagotu dezakete. Adinari dagokionez, ZIUn ospitaleratu behar izan duten gehienak 70 eta 79 urte artekoak izan dira, baina 30 urtetik goitiko gazte batzuk ere larri ibili dira. Heriotza-tasari dagokio- nez, adinaren arabera arriskua handitzen da: 50-59 urte artean dituztenetan, hilkortasun-tasa %3,3koa izan da eta 80-89 urte bitartekoetan %20koa.

Hildako kopurua handia izan da...

G. T.: Bai. Hala ere, zaila da Covid-19aren ondorioz hiledo eritu direnen kontaketa eta herrialdeen arteko konparaketak egitea. Herrialde guztietan ez da PCR kopuru bera egiten, toki aunitzetan ospitaleetan hildakoak bakarrik kontatzen dituzte, etxeetan edo adinduen egoitzetan hildakoak kontuan izan gabe. Covid-19ak jota hil direnez gain, gaitzak infektatu gabe hil direnak ere kontuan hartu behar dira. Eri aunitz, beldurragatik, arazo larriekin etxean gelditu dira: bihotzekoak emanda, infekzioekin... Ospitalera beranduegi ailegatu dira. Ospitale aunitz eriz gainezkoa egon dira eta nahiz eta minbiziak kasuak edo arazo larriak artatu diren, gaixo kroniko aunitzek ondorioak sufritu dituzte.

Batzuek hasieran negatibo eta gero positibo ematen dute eta alderantziz...

G. T.: PCR probek birusaren RNA edo kode genetikoa detektatzen dute eta honek momentuan birusa hor dagoen ala ez erakusten du. Test serologikoek, berriz, gorputzak sortutako defentsak edo anti-gorputzak detektatzen dituzte, birusarekin kontaktua izan

dela erakutsiz, baina eritasuna sendatua izanda ere, positibo eman dezake. Sentsibilitate ttikiagoa dutenez, datu oker gehiago eman ditzakete. Bertzalde, kutsatu berria delako eta eriazen laginak birus kopuru gutti duelako gerta daiteke nahiz eta kutsatua izan, hasieran negatibo eta gero positibo ematea. Hortaz, positibo eman duenarekin kontaktua izan eta hasieran negatibo emateak ez du balio, berrogeialdia pasatu ondotik berriz PCRa egin behar da. Laginak gaizki hartzen diren kasuetan ere gerta daiteke. Eta alderantziz, batzuetan nahiz eta eritasuna gainditua izan, positibo atera daiteke, birus hilaren genomaren arrastoak gelditzen direlako.

Egoera nola ikusten duzue?

G. T.: Izugarrizko beldurra dugu jendea sobera lasai eta neurriak hartu gabe dabilelako. Adinekoak kontzientziatuak daude, baina gazteak eta ez horren gazteak guttiago. Uztailean agerraldi ttikiak eta ospitale- ratze gutti batzuk izan ziren. Orain, ordea, kasu aunitz gehiago daude. Agerraldi handienak gaueko aisialdiarekin eta besa paraleloekin zerikusia dutenak dira eta kasu horietan zaila da segimendua egitea. Hala ere, egoera ez da martxokoa, PCR aunitz egin eta kontaktuak konfinatzen direlako. Orain kutsatutakoak gazteagoak dira, aunitz asintomati-koak, eta horregatik, oraingoz, Euskal Herriko ospitaleek ez dute gainezka egin. Baina egoera kontrolatzen ez bada eta adinekoak kutsatzen badira, arazoak izaten ahal ditugu. Felix Zubia lankideak *Euskadi Irratian* errandakoa hartuko nuke eredutzat: «Hagitz haserre eta etsita nago, ez dugulako deus ikasi. Badirudi debekua, isuna eta itxialdia bakarrik ulertzen ditugula».

K. E.: Norbere edo ingurukoen bizitza hurbiletik arriskuan ikusi dutenek ikasi dute baina gainerakoek...

Gogorra izan da?



Txoperenak 31 urte daramatza Donostia Ospitaleko ZIUn lanean.

K. E.: Lehenbiziko agerraldiko esperientziarekin lan dinamika aproposa zein den ikasi dugu, eta alde horretatik, prestatuagoak gaude. Baina ez dakit psikologikoki eta fisikoki prest gauden... Esperientzia berria, gogorra eta ezezaguna izan da. Fisikoki, NBerekin eta larritasun egoeran lan egitea ez da batere eroso eta emozionalki ere ez da erraza izan. Pazienteekin izan ditugun egoera batzuk nahiko hunkigarriak izan dira.

G. T.: Nekatuak aritu gara, lo gaizki eginez... Ez dugu behin ere holako egoerarik ezagutu.

Okerrena pasatu da?

G. T.: Espero dut pasatu izana, baina ziurtasun gutti dugu hori baieztatzeko. Neguan zer ger-

tatuko den ere ikusteke dago, Covid-19a, gripea eta arnasbideko bertze birusak elkartzen direnean larritasuna handitzen ahal baita. Horregatik hagitz garrantzitsua da gripearen kontrako txertoa hartzea, bereziki arrisku taldeen artean. Eta hau guztia kontrolatzeko ezinbertzekoa da osasun sistema publiko indartsua izatea.

Txertoak hizpide izan dira...

G. T.: Txertoen aurkako karpainak dira, jendeak atzendua baitu zer den txertorik ez hartzea. Txerto arruntek gaixotasunak eragiten dituztela erran izan da, baina gezurtatuak izan dira. Aldiz, ezaguna da txertoa hartua ez duen ume bati zer gerta dakioken polioarekin; elbarri geldituko da. Horilehen-

go zaharrek ongi dakite, txertorik gabe zer gertatu izan den ikusi dutelako.

Covid-19a txertoen bidez zabaldu dela erratan duenik ere bada...

G. T.: Sare sozialetan astakeria handiak erran dira, baina aunitz dira gripearen txertorik gabe kutsatu direnak eta aski larri egon direnak. Laborategietan birusak sor daitezke, baina birologo prestigiotsuek adierazi bezala, laborategietan eta naturalki sortutakoak zein diren bereiz daitezke eta Covid-19a naturalki sortua da.

Birusa hemen geldituko da?

G. T.: Denok immunitatea izan arte hemen geldituko da. Txertatutakoak eta immunizatutakoak %60ra ailegatzean birusari batetik bertzera pasatzea gehiago kostako zaio.

Mezurik luzatuko zenukete?

K. E.: Zentzuz jokatzeko eta neurriak errespetatzeko.

G. T.: Normaltasun berria deitu badute ere, ez da normaltasuna eta ezin gara lehen bezala ibili.

«IKUSTEKE DAGO NEGUAN ZER GERTATZEN DEN»

GABRIEL TXOPERENA, MEDIKUA

«ESPERIENTZIA EZEZAGUNA ETA GOGORRA IZAN DA»

KRISTINA ETXEBESTE, ERIZAINA

Birusak baldintzatutako ikasturtea

Osasun egoerak baldintzatuko du hastear den ikasturtea eta, birusaren bilakaeraren arabera, Hezkuntza Departamentuak egindako Kontingentzia Plana segituko dute ikastetxeek. Irakasle eta ikasleak «neurriak hartuz» bueltatuko dira geletara

N. BAZTERRIKA

Berez zaila egiten den ikasturte hasiera are zailagoa izatea eragin du koronabirusak. Udako oporraldiaren ondotik, eskolara bueltatzean, aspaldi ikusi gabeko lagunekin elkartzeko gogotsu izaten dira haur eta gazteak; lankideekin elkarlanean aritzeko ilusioz irakasleak. Aurten, ordea, hartu-eman horiek mugak izanen dituzte: Haur eta Lehen Hezkuntzan ikasgelak egonkorak izanen dira, gainerako ikasmaitetan segurtasun tartea mantendu beharko dute eta musukoaren erabilera arautua egonen da.

Nafarroako Gobernuak Kontingentzia Planean zehaztutakoaren arabera, ikasle eta irakasleek ikasturtea aurrez aurreko eskolekin hasiko dute eta kasurik onenean bukarara arte presentziala izanen da. Dena den, hori «aurreikusi ezina da» eta kutsatu kopuruak goiti egingen balu, egoeraren arabera neurriak hartu beharko liriateke.

Klaseak hastear diren honetan, Doneztebeko San Miguel ikastetxean Haur Hezkuntzako irakaslea den Maria Eugenia Osinaga Apeztegiarengan (Doneztebe, 1963) eta Berako Toki Ona ikastetxean Batxilergoan dagoen Ninbe Urtxegi Urrarengan (Igantzi, 2003) ziurgabetasun egoera horrek eragindako «kezka» sumatzen da.

Joan den ikasturtean, martxotik ekainera, telelanean aritu ziren denboran, egin behar izan zituzten aldaketek, horiek eragindako ondorioez

eta ezohiko ikasturte hasiera honen atarian dituzten beldurrez aritu dira ТТИП-ТТАПА-rekin.

Metodologia egokitu eta edukiak murriztu

Alarma egoerak «ezustean» harrapatu zituen Ninbe Ur-



Osinagak 30 bat urte daramatza Haur Hezkuntzan irakasle.

«HAURREKIN
ALDERDI GUZTIAK
EZIN DIRA ONLINE
LANDU»

MARIA EUGENIA OSINAGA, IRAKASLEA

«IRAKASLEAK
ONDOAN DITUGULA
LAN EGITEKO
OHITURA DUGU»

NINBE URTXEGI, IKASLEA

txegi eta Maria Eugenia Osinaga. Urtxegik, hasieran, «bi asterako kontua izanen zela» uste zuenez, «lasai» hartu zuen kontua. Egunak joan eta egunak etorri, egoera luzatzen ari zela ikusita, ordea, «antolatu» eta «aitzinerara egiteko» lanean hasi behar izan zuen.

Ikasle eta irakasleentzat, hasiera «gogorra» izan zen, «egun batetik bertzera metodologia egokitu» behar izan zutelako: «irakasleok dena programatuta eta kontrolpean izatera ohituta gaude eta bat-batean telelanean hasi behar izan genuen... Programazioa egokitu, baliabideak bilatu, komunikatzeko bideak eraiki, familiei baliabideak eta teknologia berriak erabiltzen lagundu...».

Doneztebeko San Miguel ikastetxean Haur Hezkuntzako irakasleek «matematika zein ahozkoa, irakurketa eta idazketa lantzeko jarduerak, ipuinak, abestiak, dantzak, eskulanak, errezetak... prestatuz» egin zuten aitzinera: «adin horretan heldu baten laguntza behar dute eta denak ordutegi berean aritzea ia ezinezkoa denez, ordutegi malgua utzi genuen. Eduki egokiak eta motibagarriak bilatu edota sortu eta Ikasnova plataforman zintzilikatu genituen». Bitartekari izan zituzten gurasoak: «seme-alabei eguneroko lanetan laguntzeko egin zuten esfortzua eskertzekoa da».

Bide bertsutik jaso zituen Toki Ona ikastetxeko ikasleak bere ikasmaitara egokitutako lanak: «batzuetan bideodei bidez eta bertzeetan egitekoak bidali eta bueltatuz aritu ginen».

Urtxegiren arabera, pantailaren bidezko hartu-emanean, ikasleek «ulertzeko zailtasun handiagoa» izan zuten: «irakasleak aurrez aurre izan eta zalantzak momentuan argitzera, dena eskura ematera eta lanak laguntzarekin egitera ohituta gaude. Telelanean, berriz, gainean egotea zailagoa da... Hori sumatu genuen. Alde horretatik bideodei bidezko

saioak eraginkorragoak direla uste dut, aurrez aurrekoen antza dutenez gero, baliagarriagoak iruditzen zaizkit».

Telelanean hasi ziren momentuan «klasean egiten genuena baino lan gehiago bidaltzen zigutelako» sentsazioa izan zuen igantziar gazteak. Baina neurria har zezaten eskatzearekin batera, irakasleek «ikuspuntua aldatu» eta «erritmoa moteldu» zutela argitu du: «orduz geroztik, aurrez aurre baino mantsoago lan egin genuen eta, ondorioz, edukiak murriztu behar izan zituzten».

Elkarlanaren garrantzia

Tarte horretan izandako «laxatasunak» ate joka duten ikasurtera begira «kezka» eragiten dio ikasleari. Izan ere, «ikasturte honetan selektibitatea egin beharko dugu eta landu gabe gelditu zaizkigun edukiengatik behar dena emateko gai ez izatearen beldur naiz, ikasi beharrekoak ez baitzaizkigu klasean bezain barneratuak gelditu».

Edukiak behar bezala lantzeko «aurrez aurreko saioak eraginkorragoak» direla uste du Urtxegik: «elkarlanean dena gusturago egiten da eta ikasteko gogo handiagoa izaten da».

Aurrez aurreko irakaskuntzaren «alderdi ordezkazekin»

Haur Hezkuntza, berriz, «eduki garrantzitsuenak» lan-

«ESKOLAK ESKURA DITUEN NEURRI GUZTIAK HARTUKO DITU»

MARIA EUGENIA OSINAGA, IRAKASLEA

«LANDU GABEKO EDUKIEN FALTA SUMATZEAREN BELDUR NAIZ»

NINBE URTXEGI, IKASLEA



Batxilerreko bigarren mailan iazko edukien falta sumatzearen beldur da Ninbe Urtxegi.

du dituztenez, horrek ez du Osinaga kezkatzen. «Behar bereziak edo ahozkoan gabeziak dituzten ikasleak» dira buruan dituenak: «batzuek euskararekin duten harreman bakarra eskolan izaten dute...».

Gehiago ere bada. Haur Hezkuntzan, aurrez aurreko irakaskuntzak «ordezkazekin diren alderdiak» dituela uste du doneztebarrak: «harremanak, jolasak, alderdi afektibo-emozionala, sozializazioa,

ahozkoa, autonomia, errutinak, ohiturak... Telelanean modu berean behintzat landu ez direnak».

Gainera, telelanak: «ikasleen arteko aldea areagotzen duela» iruditzen zaio, «familia guztien aukerak eta baliabideak ez direlako berberak». Zentzu horretan, Haur Hezkuntzako ikasle eta irakasleentzat telelanak «ez du abantailarik» Osinagaren ustez: «aurrez aurrekoa aberasgarriagoa da».

Ikasturte hasieran ziurgabetasun handia

Irakasleak bueltatzeko gogoz baina, aldi berean, «urduri» daude: «udan gertatutakoa ikusita, pandemiaren bilakaeraren eta ondorioen beldur naiz. Horrez gain, osasun errealtaterako egokitu beharko dugu eta hurrengo ikasturtea nolakoa izanen den ez jakiteak kezkatzen nau».

Osasuna eta segurtasuna bermatzeko, «espazioak, —>

2020/21 ikasturterako plana

Nafarroako Gobernuak, 2020/2021 ikasturtea aurreikusteko ezintasuna tarteko, ikasturte hasierarako xehetasunak eman ditu: irailean eskola presentzialekin hasiko dira, urritik aitzinera lanaldi jarraitua izanen da (jantokia mantenduz) eta eskolaz kanpoko jarduerak bertan behera uzteko deia egin dute. Lehen Hezkuntzako 4. mailara arte ikasleek geletan maskara erabiltzea ez da derrigorrezkoa izanen (bai, ordea, eremu komunetan). Horrekin batera, Gobernuak Kontingentzia Plana arautu du. Bertan,

birusaren bilakaeraren arabera, lau egoera posible aurreikusitu ditu, «langileen eta ikasleen segurtasuna eta osasuna bermatzeko».

Lehenbiziko egoera

Ikasle guztien irakaskuntza presentziala izanen da, garraio eta jangela zerbitzuak erabilgarri izanen dira. Haur eta Lehen Hezkuntza talde egonkorak zehaztuko dira eta 1,5 metroko distantzia mantendu beharko da. Gainerako etapetan pertsonako 2,25 metroko azalera behar izanen da.

Bigarren egoera

Aurrez aurreko saioak eta jangela zerbitzua mantenduko dira. Egoera honetan, taldeetako ikasleak nahasten diren espezialitateak kenduko dira.

Hirugarren egoera

Haur eta Lehen Hezkuntza irakaskuntza presentziala izanen da, gainerako mailetan online saioekin tartekatuko da. Espezialisten sarrera kenduko da.

Laugarren egoera

Ikastetxeak itxi egingen dira eta online bidezko irakaskuntza eskainiko da, maila bakoitzera egokitua.

→ pertsonen joan-etorriak, ikasgelak, talde egonkorak, distantziak, atsedendiak, komunen erabilera, garbiketa eta desinfekzioa, garraioa, jantokia... egokituz» ariko dira, «eskura dauden neurri guztiak hartuz». Zenbaitetan, ordea, hori ez da horren erraza: «hiru eta sei urte bitarteko haurrak jolasaren bidez harremantzen dira eta kontaktu fisiko hori saihestea ezinezkoa izan da».

Bigarren Hezkuntzan distantziak eta neurriak betetzea errazago gertatuagatik, ikas-prozesuan bertzelako zailtasunak izanen dituztela argitu du Urtxegik. Aitzineko ikasurtean, erraterako, «galduta» ibili zirela iruditu zitzaion Batxilerreko ikasleari. Eta berriz ere etxera bueltatu behar izatekotan, ikasleek «baliabide teknologikoen gaineko laguntza eta azalpenak» jaso beharoko lituzketela adierazi du: «erabili beharreko programak ezagutzea zaila izan delako».

Heldu denari aitzin egiteko prest

Edozein modutan, lehenbiziko pausoak emanak izateak bidea erraztuko lukeela iruditzen zaio: «hasieratik antolatua ariko gara». Horrek, ordea, zorrotzago jokatzeko arriskua dakar: «aitzineko ikasurtean egoera ezezaguna izan zen guztientzat eta horregatik ez dute bertze urteetan bezainbertze eskatu...».

«AURTENGO IKASTURTE HASIERA ZIURGABEA DA»

MARIA EUGENIA OSINAGA, IRAKASLEA

«BERRIZ GALDUTA EZ SENTITZEKO LAGUNTZA BEHARKO GENUKE»

NINBE URTXEGI, IKASLEA



Maite Redondo, Oihan eta Ibai semeei etxerako lanekin laguntzen.

«Haurren beharrak antzemateko eta asetzeko aurrez aurreko saioetara bueltatzea komeni da»

MAITE REDONDO SALGADO ELIZONDOKO GURASOA

Gainerako aisialdiko enpresak bezala, martxoan *scape room*a itxi behar izan zuen Maite Redondo Salgadok (Elizondo, 1982). Oihan eta Ibai semeekin egoteko eta «beraien beharrak betetzeko» baliatu zuen itxialdia. Lehenbiziko astea «mahai jokoetan aritzeko, ginkanak eta eskulanak egiteko, dantzatzeko, mozorrotzeko... ongi pasatzeko» aprobetxatu zuten.

Egoera luzatuko zela ikusita, ordea, «ohiturak aldatu» behar izan zituzten: «semeei eguneroko ez zela asteburua ikusarazi genien, bertzeak bertze, telebista ikusteko denbora kontrolatuz eta tableten erabilera mugatuz».

Lana eta gozamena

Gozamenarekin batera, euren betebeharrak txertatuz zehaztu zuten eguneroko errutina: «eskolatik egitekoak bidaltzen zizkiguten. Eguneroko, matema-

tika ez bazen ingelesa, euskara edo gaztelania lantzeko zerbait izaten zuen seme zaharrenak». Gazteenak, berriz, «irakasleak bidalitako bideoa ikusten zuen: ipuinak kontatzen zizkien, eskulanak proposatu...».

Seme zaharrenari «jarrita egotea eta ohitura hartzea gazteenari baino gehiago kostatu zitzaion arren, prestatutako plangintzarekin, segituan martxa hartu zuen».

Gazteena, lanak akitzen zituelarik, «aspertu» egiten zela ikusita, denbora tartea betetzeko jarduera osagarriak ere paratzen zizkion Redondok: «idazmena edo matematika lantzeko ariketak ematen niz-

«GURASO GUZTIAK EZ DAUDELA GU BEZAIN KONTENT IKUSI DUT»

kion, eta horiek dibertigarriak izan zitezten saiatzen nintzen».

Zentzu horretan, ez dute gehiegizko lan kargarik sumatu: «hasieratik ongi antolatu zituzten klaseak eta egunean bi irakasgai landu zituzten. Ez zait aunitz iruditzen...».

Irakasleak «laguntzeko prest»

Eskolarekin eta bere semeekin izan dituzten tutoreekin «arras kontent» dago elizondoarra: «gehienetan Google Driven bidez bidali zizkieten lanak, eta online edo inprimatuta egin eta zuzentzeko bidaltzen genizkien». Ongi moldatu ziren eta «zorionez ez zuten zailtasun handirik» izan: «akaso ingelesarekin eta nik frantseza ikasi nuenez ezin nien gehiegi lagundu...».

Dena den, beharra izan dutenetan «irakasleak zalantzak argitu eta azalpenak emateko prest egon dira beti...». Dena den, ikastetxe guztietan ez dela horrela izan argitu du: «lagun eta familiakoekin solas egin dut eta irakasle guztiak ez direla modu berean aritu eta guraso guztiak ez daudela gu bezain kontent ikusi dut».

Aurrez aurre «aunitz hobe»

Ikasleen «beharrak antzemateko eta laguntzeko, azalpenak emateko...» aurrez aurre irakastea eraginkorragoa dela uste du Redondok. Hortaz, ikasturte hasierari «baikor» heldu dio: «neurriak betez baina aurrez aurreko saioekin hasi behar dutela uste dut. Hurrek bertze hurrekin egoteko beharra dute, eta klaseak hasten direlarik arrisku pertsonen ez egoten saiatuko gara...».

Aurrez aurre hastea erabaki duten arren, «ziurgabetasun handia» dagoenez gero, heldu denari aitzin egiteko prestatzen ari dira guztiak. Kasu okerrean, telelanera bueltatu beharrak ez

lituzke irakasleak ezustean harapatuko «ezagutza digitala garatzeko aukera» izan dutelako. Kasurik okerrean ere, telelanera itzuli behar izanez gero, alde onenari begiratzeko

gonbidapena luzatu dio doneztebar irakasleak hezkuntza komunitate osoari: «egoera gogorrenek ere ikasbideak uzten dituela erakutsi digu bizitzak eta indartsu bueltatuko gara».

DESKONTUAK BORTZIRIAK TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta
aprobetxatu
aukerak!



Caser
RESIDENCIAL ANAKA

%5 DESKONTUA
Egonaldietan, erreabilitazioan eta eguneko zeritroan. Txartelduna eta bere 2. graduako senideak barne

Anaka, 8 | IRUN
T. 943 66 77 80

ttipi-ttapa

%10 DESKONTUA
eskolotan

Koskintako bidea, 7-1. | LESAKA
T. 948 63 54 58

Turi Sari
LAND

%50 DESKONTUA
sarreran

Irisarri, 1 | IGANTZI
T. 948 92 89 22

Semper
autoeskolak

%10 DESKONTUA
matrikulan

BERA | T. 948 63 02 98
LESAKA | 948 63 82 99

Arduo

%5 DESKONTUA
arropetan

Altzate, 30 | BERA
T. 948 63 01 36

bixkak
KIROL ETA MODAKO erropak denda

%5 DESKONTUA

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 81 10

KATEA BIKE

%5 DESKONTUA
konponketetan

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 63 12 18

Xulufraia

%5 DESKONTUA
30€tik gorako dekorazio gaietan

Altzate, 18 | BERA
T. 948 63 12 66

GASLA
Dare mugatutako autoentzako

%5 DESKONTUA
kosmetikan

%5 DESKONTUA
oparietan 50€tik gora. Promozioetan ezik.

Pio Baroja, 11 behe | Bera
T. 666 42 61 96

ALZURI ELEKTRIZITATEA

%5 DESKONTUA
etxeresnetan promozioetan ezik

Bittiria, 33 | LESAKA
T. 948 62 75 31

KARLOS ALZUGARAY
DISEÑOPATA Ean. Oñd D.O.

%10 DESKONTUA
hamar saioko bonoan

Itzea, 20 behe | BERA
T. 607 85 32 08

bortzirudi

DESKONTUA
%15 Kamisetetan **%10** Irigienta lanetan
%5 kopia, erria demazio eta plastikaziotan 3€tik goiti
*Aurrekontutik kanpo

Ezegara, 26 esk. behe | BERA
T. 948 63 15 21

LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA

%40 DESKONTUA
matrikulan

Komentu, 2 | LESAKA
T. 948 63 74 00

Urdu Bera
Kontsumoaren eta zerbitzuaren

%20 DESKONTUA
urteko abonuaeren matrikulan

Toki Ona Kiroldegia | BERA
T. 948 63 02 15

AGARA KIROLAK

%5 DESKONTUA
kirol artikuluetan

%15 DESKONTUA
ehiza arropetan

Altzate, 22 | 31780 BERA
T. 948 63 09 99

zela KIROLAK

%5 DESKONTUA
erosketa guztietan

Altzate, 6 | BERA
T. 948 63 05 98

kantagorria

%10 DESKONTUA
lentzerian

Behoko Plaza, 10 | LESAKA
T. 948 62 75 14

ZU Ioredenda dekorazioa osagariak

%5 DESKONTUA
lore moztuan 30€tik gorako erosketetan

Altzate, 33 | BERA
T. 948 62 57 86

elika Dietetika eta elikadura

%5 DESKONTUA
kontsultan

Itzea, 6 behe | BERA
T. 948 63 12 83

oreKa nutrizioa eta dietetika

%5 DESKONTUA
kontsultan

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 73 73

INTZURI OPTIKA

%5 DESKONTUA
produktu guztietan

Bittiria, 28 | LESAKA
T. 948 62 75 50

Ostargi optika

%5 DESKONTUA
produktu guztietan

Bidasoa, 8 | BERA
T. 948 63 07 53

HK podologia
NORA MAIZA

5€ DESKONTUA
ibilkeraren azterketa digitalean

Legia, 42 | BERA
T. 688 878 177

txinelka

%10 DESKONTUA
erosketa guztietan

Plaza Zaharra, 25 | LESAKA
T. 948 63 75 94

Kaxerna behin betiko itxi eta eraitsi egingen dute gerora

Zenbait urtez, eraikinaren zati batek gaztetxea hartu izan du eta bertan zegoen rokodromoa ere lekualdatu beharko dute

TTIPI-TTAPA

Pasa den uztailearen 28an, Kaxernako gaztetxeari buruzko bilera irekia izan zen Beralandetan. Bertara hainbat eragile izan ziren deituak, herritarrak, gazteak eta abar, eraikin horri zein irtenbide eman ahal zaion erabakitzeke. Udal ordezkariak ere bertan izan ziren. 2020ko martxoan bukatu zen eraikinaren kudeaketarako udalak Beragazte elkartearekin sinatua zuen hitzarmena. Beragazteren proiektuak azken urteetan ez du jarraipenik izan, eta eraikinaren egoera kaskartu eta kaltetu da.

Gaur egun, eraikina tekniko koki hagitz egoera txarrean dago, eta ez ditu gutxieneko segurtasun neurriak betetzen. Ezinezkoa ikusten da bertan inongo jarduerarik burutzea. Bileran aipatu zen gaur egun



Berako gazte mugimenduak ez duela horrelako egitasmo bat aitzinera eramateko antolamendu maila edo oinarririk (horrela izanen balitz ere eraikinaren egoerak ez du ahalbidetzen inongo ekimenik). Rokodromoa ere bertatik aterako da, eta bertze espazioak aztertzen hasiak dira non kokatu ikusteko.

Gauzak honela, udalak eraikina behin-betiko itxi eta eraitsi du. Etorkizunean eraikina eraitsia izanen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gartzin mendiko bunkerrean lanean

Herriko bunkerrak berreskuratzen lanean aritu ziren abuztuko lehen hamabostaldian 23 gazte boluntario eta horien lana ikusteko ate irekien jardunaldia izan zuten abuztuaren 14an. Gartzin mendiko bunkerrean, Okalarreko bentatik hurbil egin dituzte lanik handienak eta aski txukun utzi dute ingurua.

Larhunen harriak ez pilatzeko deia egin dute

Mendia zaindu, ez egin harri pilarik dioten kartelak paratu ditu udalak Larhuno kaskoan. Denbora-pasa, harriak pilatzen dituzte eta gero eta gehiago dira ohitura hori hartu dutenak. Hortaz, udalak bioaniztasuna eta mendia errespetatzeko deia egin du.



MARITX
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Jauzena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com
Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak
Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

xirgil
jaione goya
ileapaindegi mistoa
Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa - LESAKA
T. 948 637 826

zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaila jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

«Bisitari gehienak hirietatik lasaitasun bila etorriak dira»

ANE BERASAIN GOIA TURISMO BULEGOKO LANGILEA

N. BAZTERRIKA

Ez dago herria eta inguru bertakoek bezala ezagutzen duenik. Horregatik, noranahi joaten delarik, turismo bulegoetara jotzen du Ane Berasain Goiak (Bera, 1997): «tokian-tokiko interesguneei eta bertzelako berezitasunei –hizkuntza, ohiturak...– buruzko informazio hagitz baliagarria eskaintzen dutenez, ahal du-danean, joaten naiz».



Ane Berasain Goia.

Lan «aberasgarria»

Bulegoko mahaiaren bertze aldean, mapak banatu eta argibideak emanez pasatu du aurten uda. Izan ere, «Lesakako Udalak turismo bulegoan lan egiteko lanpostua atera zuela ikusita» azterketara aurkeztea erabaki zuen. Eta aukeratu izanenez, hortxe dabil, bateko eta bertzeo turistekin lanean: «hagitz gus-tura ari naiz, lana aberasgarria dela iruditzen zaidalako».

Lehendik lan horretan ibili ez denez, egoera berezi honetan turismo bulegoko martxan gertatu diren aldaketak ikusteko aukerarik ez du izan beratarak. Dena den, bere esperientzia ardatz, «sanferminen ondotik herrian jende gehiago mugitzen hasi zela» gaineratu du. Itxura guztien arabera, «aurten behintzat» bisitariak lasaitasun bila jo dute eskualdera: «gehienak Euskal Herriko eta Espainiako hiri handietatik etorri dira».

Bisitarien kezka

Lasaitasunaz gozatu, erlaxatu eta txokoak ezagutzeko mugak argi dituzte eta alde horretatik birusak eragindako «kezka» sumatu duela kontatu digu

Berasainek: «alde batetik, bisitatu nahi dituzten tokiak irekiak dauden eta, bertzetik, jende pilaketarik egonen den galdetzen dute».

Interesak aditu eta gomendatu

Horren aitzinean eta bidaiari «eskakizunak kontuan hartuz» helarazi du informazioa orain artean: «beraien interesak zein diren galdetzen saiatzen naiz gomendio egokiak eman ahal izateko». Momentuz, «oinez eta bizikletaz ibiltzeko bideei buruzko nondik norakoak, naturarekin zerikusia duten aukerak» dira eman dituenak.

Bortzirietatik kanpo jo nahi duenik ere izaten da eta azken horien artean, «gehienek Elizondora joan nahi izaten dutela» ikusi du: «Baztango trilogiak horretan eragina izan duela erranen nuke».

Interesak zeinahi direla ere, bulegoko atea irekita izanen dira irailaren 30era arte eta laguntzeko prest izanen da turismo teknikaria, Interneten eta sare sozialetan aipatzen ez diren altxorrek ageriko egiteko.



AITOR AROTZENA

Gerrako errepresaliatuei omenaldia

Bestarik ez da ospatu aurten, baina normalki bestak hasiko liratekeen tenorean, abuztuaren 2an, duela bi urte lehen suzuria pizteko aukera izan zuten 1936ko gerran eta ondorengo urteetan izan ziren errepresaliatu beratarrei omenaldi xume bat eskaini zien udalak: Aurreksua, musika, lore-eskaintza...



UTZITAKO ARGAZKIA

Balkoi lehiaketako sariak eman dituzte

Larun Haizpek antolatutako balkoi lehiaketan Ana Etxebeste, Josune Andueza-Mikel Zubieta, M^a Nieves Astondoa-Jaime Elgorriaga, Amelia Lasaga eta Consuelo Iriarte izan dira sarituak eta Maribel Agirre, Maite Urkia, Juana Mari Oroz, M^a Luisa Zabaleta eta Mari Carmen Etxegaraik aipamena jaso dute.

K SAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
T. 637 40 86 40 • 31780 BERA
andonimalkako@gmail.com

Astehenetik
ortziralera:
07:15etik
aitzinerara
LABE ZAR
Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinerara
948 631 076 • BERA

Produktuak
de Vinos de
ERANDONEA, s.l.
BIDASOA ETA BARSASIAK
BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOIA: 633 480 563
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

AUZOA GO!
Etxez etxeko zerbitzua
BERAn eta LESAKAN
ESKAERAK:
www.auzoago.com • T. 948 631 509

Udako kultur zikloa azken txanpan sartua da

Ortzirale honetan Txamukos taldea izanen da zahar etxean eta hurrengo asteburuan abesbatza eta erraldoiak karriketan

AITOR AROTZENA

Sorginxulo Lesakako kultur bilguneak udalaren laguntzarekin antolatuta, Udako Zikloa abiatu zen uztailean, Pettiren emanaldiarekin, eta uztailean eta abuztuan hainbat ekitaldi egin ondotik, azken txanpan sartua da. Halere, irailean ekitaldi interesgarriak gelditzen dira oraindik.

Irailaren 4an, ortziralean, 18:00etan, zahar etxean emanaldia izanen du Txamukos Mariatxi taldeak. Egun berean, Plaza Zaharrean, 20:00etan, *Bakean dagoena bakean utzi* bakarrizketa izanen da Lan-kuren eskutik.

Irailaren 11n, ortziralean, 19:00etan plazatik hasita, kantu saioa egingen du Lesakako abesbatzak.

Irailaren 12an, larunbatean, 10:30ean hasita, Lesakako



Txamukos zahar etxean izanen da.

erraldioen eta buruhandien konpartsa karrikaz karrika ibiliko da.

Irailaren 19an, larunbatearekin, zikloaren itxiera ekitaldia egingen dute. Hau idazterakoan ez zegoen zehaztua, baina herriko elkarte eta eragileen artean zerbait prestatzeko asmoa dute. Emanaldi guzietan, osasun larrialdiak eragindako araudia betetzea izanen da lehentasuna.

Genero indarkeriaz prestakuntza saioak Harriondoan

Genero indarkeriarekin lotutako prestakuntza jarduerak antolatu ditu udalak Harriondoan irail hasieran. BerHezi taldekoak izanen dira formazio saioak. Izena eman eta informazio gehiagorako 692 18 92 86 telefonora deitu behar da. **Irailaren 2an**, asteazkenean 18:00etan hasita, bi orduz, *Genero-indarkeria, sentsibilizazioa eta prebentzioa* landuko dute. **Irailaren 9an**, asteazkenean 18:00etan hasita, bi orduz, *Matxismoa 2.0 genero-indarkeria sarean* landuko dute.

EHuko udako ikastaroa egingen dute aurten ere

Irakurketa-idazketa garatzeko arazoak haur euskaldun elebidun edo eleaniztunengan. Noiz eta nola esku hartu goiburuean udako ikastaroa antolatu du Euskal Herriko Unibertsitateak Harriondoan Kultur Etxean, irailaren 18an eta 19an. Antolaketan lagundu dute Bortzirietako Guztiok elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Elebilabek eta udalak. Ikasle, irakasle, profesional eta publiko orokorrari zuzendutako jardura izanen da eta 20 orduko balio akademikoa dauka.

Ez-sanferminetako kartel, azal eta gibealeko azal lehiaketako saridunak

TTIPI-TTAPA

Nahiz eta bestarik ez izan, bestetako kartel eta programaren azal eta gibealeko azal lehiaketak deitu zituen udalak eta horien irabazleak jakinarazi ditu. Kartel lehiaketaren irabazlea Maider Etxandi Almandoz izan da, *Etorri den bezala joan* lanarekin (goitian). 250 euroko erosketa txartela eskuratuko du. Azal lehiaketa Matixa Oteiza Goienetxek eta Itsaso Alcalde Etxeparek elkarlanean egindako *Kolore Biziak, Kolore Guztiak* lanak (erdian) irabazi du (250 euroko erosketa-txartela) eta gibealeko azalaren lehiaketa, Izaro Ugaldebere Zubizarretaren *Plaza* lanak (beheitian, 100 euroko erosketa-txartela). Honetaz gain, aurten lan irabazleak koadro batean sartu eta udaletxean eskegiko dituzte eta irabazleei ere ale bana emanen diete.


«Covid-19ak gure herriko bestetan eraginik eduki ez duela ikusirik», udaletik eskerarak eman nahi izan dizkiete «aurtengo bestetan, denon artean adostu genuen bezala, deus antolatu ez duzue». Aldi berean, udaletik eskerrak eman nahi dizkiete «ardura, jarrera eredugarria eta errespetua eduki duzuen lesakar guztiei. Denok nahi izanen genituzkeen urteroko bestak bizi ahal izatea, baina aurten elkar zaintzea tokatu zaigu, hori baita garrantzitsua». Dena dela, bizi dugun egoera ez da bukatu eta denon arduraz izaten jarraitzen duenez, elkar zaintzen jarraitu behar dugula oroitarazi dute udaletik.



Izan ez diren besten kartel irabazlea.



Azal lehiaketako lan irabazlea.



Izaro Ugaldebereren 'Plaza'.



Euskararen erabileraren datuak aurkeztuko dituzte

Joan den urtean Bortzirietan egindako hizkuntzen erabileraren kale-neurketako emaitzak aurkeztuko dituzte

TTIPI-TTAPA

Zertan da euskararen egoera Bortzirietan? Zein izan da bilakaera azken urteotan? Nola emaitzak ditugu herriz herri? Eta adin taldeei zein generoari dagokionez? Non daude indarguneak, non hutsuneak, zertan paratu lehen-tasunak? Galdera horiei eta bertze batzuei erantzuteko, aurkezpen saioa antolatu du Bortzirietako Euskara Mankomunitateak ortziraletan honetan, irailak 4, Lesakako Harriondoa kultur etxean, 18:00etan.

Orduan aurkeztuko dituzte joan den urtean euskara mankomunitatearen eskariz egin zen hizkuntzen erabileraren kale-neurketako emaitzak. Mankomunitatea aspaldi hasi zen neurketa egiten eta iazkoa 13. neurketa izan zen. Adierazi dutenez, «bi berrikuntza nagusi» ekarri zituen 2019ko neurketak: «batetik euskara mankomunitateak Soziolinguistika Klusterrari eskatu zion neurketa egitea, Euskal Herriko kale-neurketaz arduratzen den erakundeari. Bertzetik, neurketa orduak handituta,

eskualde mailako datu adierazgarriak ez ezik, herriz herriko datuak ere eskuratu ziren, alegia emaitza sendo eta fidagarriak». Hortik abiatuta, mankomunitateak «emaitzen gaineko gogoeta» eragin nahi du herritarren artean.

Bildutako datuak aurkezteko ortziraletan eginen duten saioa bi zatitan banatuko dute. Lehenbizikoan, Soziolinguistika Klusterreko Maialen Iñarrak, Bortzirietako ikerketa zuzendu zuenak, emaitza nagusiak aletuko ditu, Bortzirietakoak, herriz herrikoak, adin taldeka, generoaren arabera... Bigarren zatian, taldeka, datuen gaineko irakurketa partekatua eginen dute. Aurkezpenean gehienez 20 lagunek parte hartzen ahalko dute eta joatekotan aitzinetik jakinaraztea eskertuko dutela azaldu dute.

Plan estrategikoa

Euskara mankomunitatea bere bigarren plan estrategikoa ere prestatzen ari da, eta horretarako, hilaren 18an, gogoeta saio parte-hartzailea antolatu du Beran, 17:00etan hasita.

Jasotako babesa eskertzeko ekitaldia eginen du Endara Bizirik plataformak

TTIPI-TTAPA

Ekainean zabaldu zen Lesakako Auzoberri inguruan parke eolikoa egiteko proiektuaren berria eta auzotarrek, jakin orduko sortu zuten Endara Bizirik plataformak. Geroztik, gelditu gabe aritu dira lanean. Tartean, 3.433 sinadura bildu

dituzte parke-eolikoaren kontra. Larunbat honetan, berriz, irailaren 4an, Lesakako Udalarekin elkarlanean, jasotako babesa eskertzeko ekitaldia eginen dute Plaza Zaharrean, 19:00etan. Aitzinetik kamisetak salgai paratuko dituztela adierazi dute.



ANE ELZAURDIA

Kirol udalekuen erantzun bikaina

Arrakasta handia izan dute Manttale mendi lasterketa taldeak uda honetan antolatu dituen kirol udalekuek. Lehenbizikoz egin ditu eta hasieran uztailean bakarrik egiteko asmoa bazuten ere, erantzuna ikusita, abuztuan segida eman zieten. Uztailean 55 haurrek eman zuten izena eta abuztuan 35ek.



Lehiaketan saritutakoak antolatzaileekin batera.

'Ezagutu dezagun Lesaka' lehiaketako sariak banatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 19an banatu zituzten *Ezagutu dezagun Lesaka* lehiaketako sariak. A mailan, Aitor Cebolla Fagoaga nagusitu zen eta ondotik, Eneritz Etxepare Sein eta Aiur Garro Ordoki gelditu ziren. B mailan, Beñat Ariztegi Altzugaraiak irabazi zuen eta ondotik, Ibai

Criado Arruabarrena, Kemen Garro Ordoki eta Oihan Oiarzabal Larralde sailkatu ziren. Kategorian nagusian, irabazlea Maddi Hoyos Eguzkiagirre izan zen eta bere gibeletik, Maddi Zubieta Eñeterreaga eta Beñat Criado Arruabarrena izan ziren. Hoyosek jaso zuen puntuazio altuenaren saria.



ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KOMBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com



Herriko trikitilariak bi goizez ibili ziren herria girotzen. AMAIA RAZKIN

Urritzokietako bestarik ez da izanen aurten

Herriko dantzari eta trikitilariak besta seinalea egin zuten herriko bestetan

IRUNE ELIZAGOIEN

Egun bizi dugun osasun egoera larria dela eta, Etxalarko Udalak abuztuaren 14tik 18ra ospatu ohi dituzten herriko bestak ez ospatzeko deia egin zuen.

Dantzariak eta trikitilariak

Bertze urteetan izaten diren bestetako ekitaldiak bertan behera gelditu ziren arren, Andre Mari dantza taldeko kide batzuk, abuztuaren 15ean egiten den dantza saioaren tenorean, herrian barna ibili ziren. Herriko trikitilariak ere, musukoa jantzi eta segurtasun

distantziak mantenduz, bazterrek girotzen aritu ziren bi goizez.

Santakruzak ere bertan behera

Herriko bestak ez ezik, irailaren 14tik 17ra, lau egunez, ospatu ohi dituzten santakruzak ere ez dira izanen aurten. Bertako besta batzordeak erabaki duenez, ermitan egin ohi dituzten mezak ere ez dira izanen.

Aurten gozatu ez dituzten eta gozatuko ez dituzten ospakizunak heldu den urtean ospatzeko aukera izatea espero dute herritarrek.

Uso postuen enkantea egingen dute irailaren 5ean

IRUNE ELIZAGOIEN

Heldu den larunbatean, hila-ren 5ean, Larramendi parajearen 21 uso postu uso postuen enkantea izanen dute. Udaletxean dute hitzordua 12:00etan. Bertaratzeko musukoa jantzea derrigorrezkoa izanen dela adierazi dute.



Zorionez sustoa baino ez zen izan eta denak onik atera ziren. AXUN ELIZALDE

Zuhaitz bat erorita istripua gertatu da herrian

IRUNE ELIZAGOIEN

Abuztuaren 17an istripu sinestezina gertatu zen Arbotako erreka inguruan. Herriko familia bateko zortzi lagun, bide bazterrean kotxeak aparkatu eta informazio panela irakurtzen ari zirela, soinu ozen bat aditu eta zuhaitza beraien gainera zetorrela konturatu ziren. Senak

aginduta eta zortea lagun, erreka aldera lasterka ihes egitea lortu zuten nahiz eta familiako ttikiena autoaren barrenean gelditu. Sinestea kostatzen bada ere, zuhaitzak autoa txikituta utzi zuen baina barrutik haurra onik atera zuten. Zoritzarrez ez da uda honetan gertatutako istripu bakarra izan.

Elutsa ostatuak berriz ere atek ireki ditu

IRUNE ELIZAGOIEN

Uztailaren 31n berriz ere atek zabaldu zituen herriko Elutsa ostatuak. Ostatua, estankoa eta jateko zerbitzua ere ematen du: plater konbinatuak, menuak, etab. 08:30ean irekitzen dute eta ortzeguna dute aste-ko atseden eguna.



IRUNE ELIZAGOIEN



PRIM, c.b.

Fisioterapia Zentroa

Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

Potentzia handiko laserra. Allynare metodoa

logurak
www.logurak.com

gauko konfort-kuxina



Centro Prim regina tolosaechepare



Irailean ez duatloirik ezta bestarik ere ez dute izanen aurten. O. TXOPERENA

Mendi Duatloiko lehenbiziko proba ez dute egingen

Aurten herriko bestarik ere ez da izanen. Hala ere, sorpresaren bat izanen dela aitzineratu dute

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Aitzineko zenbaki batean aipatu genuen bezala, Euskal Herriko Mendi Duatloiko lehenbiziko etapa herrian egitekoa zuten irailaren 5ean, hurrengo larunbatean. Koronabirusak eragindako egoeraikusita, ordea, hitzordu hori bertan behera utzi behar izan dute.

Besten faltan irailen sorpresa

Ez da bertan behera utzi duten ekitaldi bakarra. Uztailaren 31n udal kideek bilera bat egin zuten herriko taldeekin eta bertan aurtengo sanmigelak ez

direla ospatuko erabaki zuten. 2021eko martxoan heldu den urteko bestez solas egiteko bilduko dira. Bitartean, seguru gara hilabete honetan sorpresaren bat izanen dela.

Roxi Etxeberria jantokiko laguntzaile

Guraso elkarteak adierazi duenez, jantokiko laguntzailea kontratatzeke egindako deialdian hiru lagunek eman zuten izena. Bozketa egin ondotik, Roxi Etxeberria izan da aukeratua eta, beraz, berak beteko du jantokiko laguntzaile lanpostua.



UTZITAKOA

Genero indarkeria hizpide

Genero indarkeriarekin lotutako ekitaldien artean, indarkeria jasan duten bederatzita emakumeren testigantza jasotzen duen *Volar* pelikularen emanaldia eta ondoko tertulia izan genituen uztailaren 24an. Parte-hartzaileek aipatu zigutenez, hagitz positiboa izan zen.



UTZITAKOA

Ehiztarien borda eraikitzen auzolanean

Herriko ehiztariak, udalari egindako proposamenaren ondotik, martxan dira Mukegi parajearen borda egiteko lanak. Borda eraikitzen ehiztariak ari dira auzolanean eta ehiza sasoian eurek erabiliko duten arren, gainerako hilabeteetan herritarrok erabili ahal izanen dugu, udaletxean giltza eskatuta.

EDERKI tailerra

CITRÖEN ZERBITZU OFIZIALA

‘Latigillo’ hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11

Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
@zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es

ARANTZA

68 ikasle eta 10 irakasle izanen dira ikasturte honetan

3 urteko sei ikasle hasiko dira eta zazpi lagun Berako Toki Ona institutura joanen dira

NEREA ALZURI

Koronabirusak eragindako egoeragatik, aitzineko ikasturtea etxetik bukatu behar izan zuten ikasle, irakasle eta gurasoek.

Normaltasun berriko ikasturtea, berriz, aste honetan abiatuko dute eskolan, ortzira le honetan. Ezohiko ikasturtea izanen da eta duela bi aste Hezkuntza Departamentutik jakinarazi zutenez, urritik aitzinera, Nafarroako ikastetxe guztietan goizez bakarrik izanen dira eskolak eta jantoki zerbitzua mantenduko dute.

Herriko eskolan, denetara 68 ikasle eta 10 irakasle izanen dira ikasturte honetan. 3 urteko 6 ikasle hasiko dira eta Haur Hezkuntzan bi talde osatuko dituzte: 3 eta 4 urtekoak talde batean izanen dira eta bertze taldea 5 urtekoek osatuko dute.

Lehen Hezkuntzan, lau talde egingen dituzte: 1. maila, 2. maila, 3. eta 4. mailak elkarrekin eta 5. eta 6. mailak ere batera. DBHko ikasleekin ere talde bat egingen dute. Bertzalde, Toki Ona ikastetxean zazpi ikasle hasiko dira.



Herritarrak auzolanean.

Emakumearen Memoriaren Baratzean auzolanean

N. ALZURI

Joan den abuztuaren 22an, auzolanean aritu ziren Bortziritako Emakumearen Memoriaren Baratzean. Bederatzi lagun bildu ziren eta belar txarrak kentzen, lurra *ixadrazten*, landare aromatikoak txukuntzen, loreak landatzen... aritu ziren. Maitasunez eta mi-

moz zaintzen dute duela bi urte jaio zen baratzea, atzoko eta gaurko emakumeen oroimenez eta omenez sortua. Hortaz, bertaratu eta baratzeaz gozatzeko deia egin dute, beti ere zainduz eta errespetatuz; aski ongi dago baratzean ibiltzea baina auzolanean landutakoak begirunea merezi du.



ARGAZKIAK: I. UGALDE

Udako kultur eta kirol ekitaldiak

Osasun egoerak eskatutako segurtasun neurriak hartuta, pilota partidak, Bankako Menditarren kantaldia, herri kirolak saioa eta bertso saioa izan ziren abuztuaren 15ean eta 16an. Herritarren aldetik harrera ona izan zuten udalak antolatutako ekitaldiek.



ENEKO SARRIAS

Oilargatetik begira

Irudi ederrak, noiznahi eta nonahi ikusten ditugu eta kamera hartuz horiek atera eta altxatzeko ohitura dutenak ere badira. Eneko Sarriasek abuztu hasieran argazki polit hau atera zuen. Iluntzeak nola ernatzeak, bizi garen parajeen gainera, erogarriak izan ohi dira.

Sei ikasle hasiko dira aurten eskolan

Urritik aitzinera lanaldi jarraia izanen dute ordu biak arte eta segidan jangela zerbitzua eskainiko dute

MAIDER PETRIRENA

2020/2021 ikasturteari irailaren 4an, ortziralean, emanen diete hasiera. Ezohiko egoera honetan beharrezko arauak betetzea ezinbertzekoa izanen da. Sei ikasle berri hasiko dira aurten eskolan eta Doneztebeko Mendaur DBHI ikastetxera zazpi neska-mutiko joanen dira DBHko ikasketak hasteko.

Eskolatik jakinarazi digutez, azkeneko berriak kontutan hartuta, kontinjentzia plana egokitzen ari dira. Azaldu dute, eskola sektoreka ba-

natuko dutela eta sektore bakoitzaren barrenean bizi-kidetza talde iraunkor bat edo bi egonen direla. Lehenbiziko hilabetean pixkanaka egokitzen joan eta urritik aitzinera lanaldi jarraia izanen dutela ere jakinarazi dute. Klaseak, 09:00etatik 14:00etara izanen dira eta jarraian, nahi duenarentzat jangela zerbitzua eskainiko dute.

Klaseak hasi aitzinetik gurasoekin bilera egitekoa zuten segurtasun neurri eta bete beharreko baldintza guztien berri emateko.



Larrakaitz tuneleko sarrera.

Larrakaitz tuneleko argiteria arazoak konpondu dituzte

M. PETRIRENA

Aurtengo udan aunitz izan dira bide berdean barna ibili diren herritar zein bisitariak. Bizikleta gainean batzuk, oinez edo lasterka bertzeak, bide aproposa dugu gure inguruaz gozatzeko.

Bidea lehenagotik ezagutzen zutenak ohartu izanen dira

egin dituzten hobekuntza lanek. Igantzirako bidean Larrakaitz tunela dago, bihur-gune batean eraikitako tunel berezia, ausartenek ere argirik gabe nekez zeharkatuko dutena. Bertako argiteriarekin arazoak zeuden aspaldixkoan eta orain dela gutti konpontzea lortu dute.



Herria banderekin apaindu eta Jaliskoren eskutik emanaldiak izan ziren.

Ohi bezala ospatzerik izan ez diren arren, bestek izan dute seinalea

MAIDER PETRIRENA

Bizitzen ari garen egoera dela eta, gainontzeko herriak bezala, Santiburtzio bestak ospatu gabe gelditu behar izan dugu. Hala eta guztiz ere, modu batera edo bertara, seinalea egin da. Hasteko, herriko etxe-tako balkoi, leiho eta ateetan herriko armarrria duen bandera jarri zuten hainbat herritarrek. Horretaz gain, abuztuaren 10ean, 20:00 aldera, hainbat auzotatik herritarrek suziriak bota zituzten. Segidan, musika gustagarriaz gozatzeko tartea ere izan zen, herriko musikaria den Aitor Ibarra

Mitxelena *Jaliskok*, Ugaldea auzotik emanaldi ederra eskaini zuelako; herri osoan ederki aditu zena.

Santiburtzio egunean herriko zaindariaren omenez meza nagusia ere ospatu zen eta ortziralean, abuztuaren 14an, konfinamendu garaian jarritako kanten zerrenda erabili zuten *Jaliskok* berriz ere emanaldi ederra eskaintzeko eta aurtengo ez-bestei bukaera borobila emateko. Eskerrik asko Mari Jose banderen ideia sortzeagatik eta Jalisko aurtengo egoera berezi honetan jarritako giroagatik.



UTZITAKOA

Bandera hartuta, harat eta honat

Herriko besten bueltan banatutako banderei tokia egin diete beren motxilan hainbat herritarrek. Mendira joandakoan edo Donejakue bidea egindakoan, harro erakutsi dute nongoak diren. Oraindik ere bandera lortu nahi duenak irailaren 13ra arte eska dezake 687 83 28 44 telefonora deituta.

Ikastetxeak, protokoloak eta familiak prest

Urritik aitzinera jardunaldi jarraitua izanen dute. Hala ere, jangela zerbitzua mantenduko dute

MARGA ERDOZAIN

Askin haur eskolako txikiak izanen dira goiztiarrenak. Sei hilabeteren ondotik, irailaren 3an eskola txikira itzuliko dira. Aurtengo udan, Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak erabilia, hainbat lan egin dituzte dena attoko-attoko izateko.

Biharamunean Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak San Migel ikastetxean eta Mendaur institutuan ikasturtea irailaren 4an abiatuko da. Bi hauetan ere hainbat manten-

tze lan egin dituzte eta protokoloak ere prestatu dituzte aldez aurreko jardura 'normaltasunez' burutu ahal izateko.

Irailean San Migel ikastetxeko ikasleek jangela izanen dute, Mendaur institutuko ikasleak, urtero bezala, 15:00etan lanaldia akituta etxera joanen dira. Urritik aitzinera bi ikastetxeek jardunaldi jarraitua izanen dute, nahiz eta oraindik hainbat kontu argitu behar diren (argitu ahala informazioa familiei helaraziko diete).

Euskaltegian matrikula epea zabalik dago

MARGA ERDOZAIN

Doneztebeko IKA euskaltegiak hastear den ikasturterako matrikula zabalik du. Irailaren 30era arte eman daiteke izena. Aurrez aurreko jardura bermatzeko protokoloa eta egoitzapena egin du euskaltegiak ohiko eskaintza zabaldu ahal

izateko. Beraz, maila guztiak baita EGA eta C1 ikastaroetan ere, izena ematen ahal da 948 45 15 55 telefonora deituz edo malerreka@ikaeuskaltegiak.eus helbidera idatzita. Aurten ere doakotasuna programa martxan izanen da, mankomunitateari esker.



Eskubaloi eta futbol jokariak oraindik ez dira zelaira itzuliko. UTZITAKOA

Koronabirusagatik kirol denboraldien hasiera gibelatu egin dute

MARGA ERDOZAIN

Egoerak «behartuta», momentuz behintzat, Doneztebeko Futbol Taldeak eta Erreka eskubaloi taldeak botak eta zapatilak gordeta jarraitu behar dute, koronabirusa dela eta, kirol denboraldien hasiera gibelatu egin delako. Bateko eta bertzeko kirolariek bakarkako

lana eta prestakuntza egiten segitu beharko dute, Nafarroako Gobernuak, Eskubaloi Federazioak eta Futbol Federazioak hastea baimentzen duen momentuan sasoian egon ahal izateko. Ea hemendik gutxira dena bere onera bueltatu eta jokariak zelaian ikusteko aukera dugun!

Liburutegi zerbitzua hilaren 21etik aitzinera arratsalde

Iraileko hirugarren astera arte, hau da, hilaren 21era arte, bertako liburutegiak goizez, 09:00etatik 13:00etara, jarraituko du zerbitzua eskaintzen. Astelehen horretatik aitzinera, berriz, arratsalde irekiko dute: 16:00etatik 20:00etara, hain zuzen.

Agorreta musika eskolan matrikulazioa irekita

Ezohiko deialdi hau irailaren 18ra arte zabalduko da. Saioak urrian hasiko dira eta aurrez aurrekoak izanen dira. Musikazaleek gitarra, pianoa, trikitixa, bateria, akordeoia edo txistua jotzen ikasi ahal izanen dute, baita kantatzen ere.

Herriko gazteek besta ttikiak ez ospatzea erabaki dute

TTIPI-TTAPA

Irailean ospatu ohi dituzten Doneztebeko besta ttikiak normaltasunez egiteko modurik ez dute izanen aurten. Akaso keinu ttikiren bat egiteko modua harrapatuko dute herri-tarrek. Edozein moduz, talde ttikian eta tentuz izan behar!





Bizikleten salmenta eta konponketa.

- Kanttonberri, 1 | BERA
- T. 948 631 218
- joxemi@kateabike.com
- www.kateabike.com

SCOTT GIANT MERIDA
ORBEA BH CANYON

Mediku kontsultak itxita izateak haserrea eragin du

Osasun Departamentuak segurtasun neurriak betetzeko ezintasunagatik eta mediku faltagatik itxi dituztela argitu du

TTIPI-TTAPA

Zubietako, Iturengo, Eratsungo, Ezkurrako, Urrozko, Saldiasako eta Beintza-Labaiengo herrietako mediku kontsultak itxita daude oraindik. Martxoan, osasun alarma egoera indarrean jarri zenean, itxi zituzten eta, urte erdi pasatxoren buruan, oraindik halaxe gigitzen dute.

Udalak konponbide eskean

Orditik herritarrek, artatuak izateko, Doneztebera joan behar dute. Egoera horren aitzinean, alkateak osasun zentroko zuzendariarekin, Monica Martinekin, bildu ziren. Errandakoaren arabera, kontsultak, batetik, koronabirusak eraginako egoera honetan segurtasun neurriak ezin dituztelako bete; eta bertzetik, mediku falta dagoelako itxi dituzte.

Zuzendariarekin ez ezik, abuztuaren 4an, Maria Txibiterekin eta Osasun Departamentuko zuzendariarekin bildu ziren alkateak. Elizondon egindako bileran argitu zutenenez, asmoa ez da kontsultak

behin betiko ixtea. Udalek, bat eginik, egoerari konponbide bat emateko eta eskualdeko langileria beharretara egokitzeko eta Sunbillan falta duten medikuaren hutsunea betetzeko eskatu dute.

Arrazoen artean, herri tikietan zerbitzu gutti daudela, oinarritzkoak direla eta herri horietan gidabaimenik ez duten jende aunitz bizi dela aipatu dituzte. Ondorioa argia bezain kezagarria da zenbait udal ordezkariaren irudiko: «herritarrek, beharra izanagatik ere, joan-etorria egiteko baliabiderik ez dutelako medikuarengana joan gabe geditzen dira...».

Herritarrek ere kexu

Udalak bakarrik ez, herritarrek ere haserrarazi ditu normaltasun berriaren herrietako mediku kontsultak itxita izateak. Hori horrela, Zubietan, Eratsunen, Saldiasen eta Ezkurraren medikua herrietara joateko eskatzeko asmoa dute eta aitzineko asteetan herritarrek sinadurak biltzen aritu dira etxez etxe.

Udazkenean hainbat ikastaro eskainiko dira eskualdean

MARGA ERDOZAIN

Nafar Lansarek, Elizondoko Lanbide Eskolak eta eskualdeko udalek datorren udazkenarako hainbat ikastaro antolatu dituzte: frantsesa, ingelesa, zerbitzu anitzak, oinarritzko informatika, arreta soziosanitariarioa, menpekotasuna duten

pertsonak zaintzeko ikastaroa, oinarritzko industria langilea...

Ikastaroa eskainiko den herrirei eta datei buruzko informazio zehatzagoa jasotzeko eta izena emateko 948 45 03 09 telefonora deitzen ahal da (epeak hurbildu ahala ERRAN. EUSEN ere zehaztuko da).



Lehenbiziko jaunartzea egin duten zazpi neska-mutilak. UTZITAKOIA

Ituren eta Aurtizko zazpi neska-mutikok lehenbiziko jaunartzea egin dute

TTIPI-TTAPA

Ezohiko tenorean izan dira aurten lehenbiziko jaunartzeak. Iturengo eta Aurtizko zazpi neska-mutiek maiatzean ospatzekoa zuten. Egoerak behartuta, ordea, gibelatu egin zuten eta, azkenean, abuztuaren 23an, azken aurreko igandean, egin zuten hitzordua.

Argazkian ageri diren Ane Deskarga Ariztoik, Ekaitz Sein Ariztegi, Oinatz Elizalde Larretxeak, Inhar Aioroa Errazkinek, Garazi eta Aritz Iñigo Lujanbiok eta Leiane Altzuri Mindediak egun ederra pasatu zuten euren familia, senitarteko eta lagunekin. Eguraldia ere lagun izan zuten.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
SUMINISTROS CARROCEROS

www.ibargoyen.net **943 616 587**
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



21 lagun joan ziren Zubietara, bi taldetan banatuta. UTZITAKO ARGAZKIA

Mendizale topaketarik ez dute izanen aurten

Inguruan mendi bueltak egin dituzten arren, birusagatik bertan behera gelditu da Euskal Herriko mendizale topaketa

PABLO IRASTORTZA

Mendi gogoak bizi segitzen duela ageriko egin dute zaleek azken aldian. Itxialdiaren ondotik, ekainaren 16an Arizkun egin zuten lehenbiziko hitzordua. Uztailaren 21ean Berastegin elkartzekoak ziren arren, Tolosa inguruan kutsatze kopuruak goiti egin zutela adituta, hitzordu hori bertan behera utzi zuten. Abuztuan berrartu zituzten mendi bueltak. Hilaren 18an Donezteben 21

kide bildu ziren. 08:30ean merkatu plazatik abiatuta, Uraren Bidean barrena Zubietaino joan-etorria egin zuten.

Segurtasun neurriak zorrotz betez (musukoa eta gela erabiliz eta distantzia zainduz), 10 eta 11 laguneko bi taldetan egin zuten Zubietaraino joan-etorria. Zubietara ailegatzean, gosari goxoa dastatzeko eta Santiago Hualderen eskulan miresgarrien erakusketa ikusteko aukera izan zuten. Lerro

hauen bidez, Mari Karmen Elizalderi eskerrak eman nahi izan dizkiote, etxeko atea irekitzeko izandako prestutasunagatik.

Topaketarik ez dute egingen

Iaz, Goierriko Mendizale Beteranoak elkarteak antolatuta, Euskal Herriko mendizaleen topaketa egin zuten Aralarko Oidui mendian.


Aurten, Arkupeak elkarteko kideek topaketaren bigarren edizioan parte hartzeko asmoa zuten arren, ez dute antolatuko. Bizi dugun osasun egoeran talde handiak elkartzea ezinezkoa da. Joan den ikasturtean izan zuen arrakastagatik, pena handiz daude mendizaleak...

Ea heldu den urtean berriz ere elkartzeko zortea izaten duten!

Kirol jarduerak, hitzaldiak eta ikastaroak eskainiko dira

PABLO IRASTORTZA

Alarma egoerarekin batera, martxo erdialdetik aitzinera-ko ia ekintza guztiak bertan behera gelditu ziren. Heldu den ikasturteari begira, beti ere neurriak errespetatuz eta baldintzak bete ahal diren kasuetan, Arkupeak elkarteak kirol, hitzaldi, ikastaro eta gainerako jarduerak gehienak antolatu nahi ditu. Jakina denez, ikastarootan izena ematen duten partaideek dirulaguntza jasoko dute. Berri gehiago izateko edo zalantzak argitzeko irailan Doneztebeko bulegora deitu ahal izanen dute (948 45 08 78 edo 618 56 78 37). Elkartetik parte hartzeko deia egin dute: «anima-tu!».



Elkartekoak informatika ikastaroan.

Elkarteko kideek buletinak Doneztebeko bulegoan bil ditzakete

PABLO IRASTORTZA

Uztaileko ТТИПІ-ТТАРАЕН biharraren zenbakian bertzerik agertzen bazen ere, osasun egoera arriskutsua kontuan hartuz, herrietako ordezkarien bilera oraingoz ez egitea erabaki zen. Dena den, buletinak prest daudenez, Doneztebeko bu-

legoan bil daitezke. Pandemia garaiaz geroztik, sarrerako eta sotoko atea giltzatuta daudenez, 09:00etatik 13:00etara bertaratzen direnek telefonoz deitu behar dute. Hala, atea ireki eta buletina inongo arazorik gabe jaso ahal izanen dute.

Aurten ere Eguberrietako loteria txartelak egiteko asmoa du elkarteak

PABLO IRASTORTZA

Egungo eguraldiak eta opor giroak bertzelakorik pentsarazten badigute ere, berehala Eguberrietako loteria txartelak geureganatzeko garaia da. Herrietako ordezkariet laster (irailan segur aski) jakinaraziko zaie abenduaren 22ko

zozketarako zenbaki sortak prest daudela eta, ondotik, beraien bitartez banatuko zaie elkarteko gainerako kideei.

Ea ТТИПІ-ТТАРА banatzen den hurrengo zozketa txartelen zenbakiak zein diren jakinarazteko moduan gauden...

Okile, Poxkonea eta Uxanek dirulaguntza jasoko dute

Eskubide Sozialetako Departamentuak 6,2 milioi euro inbertituko ditu Nafarroako 21 okupazio-zentrotan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako Departamentuak, Pertsonen Autonomia-rako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren bidez, 6,22 milioi euro inbertituko ditu aurtien Nafarroako hainbat herritan dauden 21 okupazio-zentrotan. Zazpi entitate kudeatzailearen artean banatuko dituzte laguntzak eta ia mila erabiltzailearen lanurreko eta garapen pertsonal zein sozialeko jarduerak ordaintzeko izanen dira. Zentro horien artean daude Elizondoko Poxkonea (Tasubinsa), Berako Uxane (Aspace) eta Leitzako Okile.

Zentro okupazionalen bidez lan- eta gizarte-prestakuntzako jarduerak prestatu eta desgaitasun intelektuala edo nahasmendu mentala duten pertsonen garapena bultzatzen dute. Mila erabiltzaile ingururi arreta emateko, hainbat arlotako 187 profesional enplegatzen dituzte: psikologoak, teknikariak eta mantentze-lanetako langileak eta begiraleak, esaterako.

Laguntza-eremu horretako beste zentro batzuk ez bezala, Okile Zentro Okupazionala Leitzako Udalaren mendedago. Foru Gobernuaren ordezkariak eta Mikel Zabaleta alkateak sinatutako hitzarmenak Okileri 24.996 euroko dirulaguntza emateko konpromisoa hartu du, zaintzaile batek gainbegiratutako bederlatzi erabiltzaileari arreta emateko. Zentroak 1992. urteaz geroztik lan egiten du desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko.



Leitzako Okile tallerreko hainbat kide.

eta hau ere?

bai

Etxea Automobila Istripuak Bizitza Ehorzketa

Aseguruen inguruko premiak dituzunean ere, Rural Kutxa da erantzuna.

CAJA RURAL SEGUROS RGA Professional Cycling Team

DENA SEGURUAGOA DA HURBIL BAZAUDA RURAL KUTXA

Bizitza-asegurua RGA Rural Vida S.A. de Seguros y Reaseguros-ekin kontratatzen da; IFK A-78.229.663 eta DGSFPko gakoak C-595. Etxe, Istripu, Ehorzketa eta Merkataritza aseguruak RGA Rural Vida S.A. de Seguros y Reaseguros-ekin kontratatzen dira; IFK A-78.524.663 eta DGSFPko gakoak C-616. Autemobil aseguru horako hauekin kontratatzen da: Liberty Seguros compañía de Seguros y Reaseguros S.A. (IFK A-48037642 eta DGSFPko gakoak C-0467); Reale Seguros (IFK A78520293 eta DGSFPko gakoak C-0613); Mapfre España (IFK A-28141935 eta DGSFPko gakoak C-0056). Aseguruak RGA Mediación, Operador de Banca Seguros Vinculada, S.A. ren bitartez merkaturatzen dira (IFK A79490264). Madrilen du hurbilekoa (C/Basauri, 14) eta DGSFPren bitartekarien erregistroari inbribatuta dago (Nº-0006 gakoarekin, baita Madrilgo Merkataritza Erregistroan ere; 8205. Ilurukian, 8b. fordean, 6. sektionan, M10169 orrian). Rural Kutxa RGA Mediación (RSV) S.A. ren banaketa sareko kide da. Helbide honetan kontsultatu dezakezu zer aseguru etberekin dituen RGA Mediación-ek aseguru agentziako kontratuak: www.segurosrga.es/Entidades_contrato_RGA_Mediacion.pdf

«Medikuak herrian artatzea nahi dugu eta ez Donezteben»

MARI JOSE MITXELENA OTEGI ERATSUNGO ZINEGOTZIA

Abenduaz geroztik Eratsungo zinegotzia da Mitxelena da eta gaur egun udalak duen martxaz mintzatu da. Besteak beste, lehen bezala medikuak herrian artatzea eskatzen dute

G. PIKABEA ERATSUN

Eratsunen ere herriko festarik gabe gelditu dira, Mari Jose Mitxelena Otegiren irudiko, «oso politak eta dotoreak» diren festarik gabe. Osasun egoera tarteko, ekainean erabaki zuten irail hasieran egin ohi dituzten ospakizunak alde batera uztea, eta hiru hilabeteren buruan, udalaren aldetik, «festen seinalerik egiteko asmorik ez» dutela berretsi du Mitxelena zinegotziak. «Kostata hartutako erabakia» izan zela onartu digu, baina «Nafarroako Gobernuak festak ez antolatzeko mezua luzatu zuenean» uxatu zitzaizkien zalantzak: «festetan jende asko biltzen da eta egoerak beldurra sorrarazi zigun. Zerbait pasatuz gero, udala izanen litzateke arduradun».

Han eta hemen zinegotzi

Joan den abenduan hartu zuen Eratsungo zinegotzi kargua. Hauteskundearen bigarren deialdian osatu zuten taldea, kanpotik etor zitekeenaren beldur: «aurreko udal taldeak zortzi urte eginak zituen eta ez zuen berriz aurkezteko asmorik. Herrian bilera bat deitu eta semea [Iñaki Estanga Mitxelena], alkate izateko prest agertu zen». Hala osatu zuten boskotea: «berarekin beste lau emakumezko animatu ginen».

Hala ere, udaletxeko martxa ez du arrotza. Sortzez sunbilda da eta sorterrian «14 urtez zinegotzi izan nintzen». Batetik bestera aldea sumatua



14 urtez Sunbilla zinegotzi izan zen Mitxelena. Egun, Eratsunen du ardura hori.

du: «Sunbilla herri handiagoga denez, proiektu eta martxa gehiago izaten da. Eratsunen, oraingoz, lasaiago gabilta». Edozein moduz, eta «koronabirusak gauzak nahi bezala egiten utzi ez» dien arren, «pixkanaka-pixkanaka» eta «ilusio handiarekin» lanean ari direla aitortu digu.

Sinadura bilketa

Geldirik ez dauden seinale dira euren eskariak. Batetik, medikuak herrian artatzea nahi dute: «koronabirusaren kontu honekin, Malerrekako herri tikiak herrian mediku zerbitzurik gabe gelditu gara. Dena Doneztebera bideratu dute eta artatuak izateko Donezteberaino joan behar dugu». Ez daude horrekin ados eta zer-

bitzua lehengoratzeko lanean ari dira: «etxez etxe sinadurak biltzen hasi gara, oraingo egoeran gutxienez astean egun batez medikua etor dadin eskatzeko, eta gero, egoera bere onera bueltatzean, gutxienez bi egunez etortzea nahi dugulako. Herrian adineko asko dago eta denek ez dute Doneztebera autoz joateko aukerarik. Harat ez joateagatik dirabatzuketahorietz dabidea».

Bestelako egitasmo batzuk ere buruan dituzte, nahiz eta argi utzi duen «horiek egiteko dirulaguntzak behar» dituztela. Hain zuzen, aurreko udal taldeak lortutako dirulaguntza bati esker, aurten udaletxea berriro dutela kontatu digu. Beraien kasuan, herriko erre-

pidetan izandako erortzeari aterabide egokia ematea dute helburu: «moldatu zuten, baina dirulaguntza lortuz gero, hobeki utzi nahi genuke, arriskurik gabe». Hortik aparte, «adinekoek ariketak egiteko aukera izan dezaten, makinak jartzeko» laguntza eskatua omen dute. Eta «herrian hutsik dauden hiruzpalau etxeak ere buruan ditugu. Norbaitek erosi eta herrira bizitzera etorriko nahiko balu...», luzatu du gonbita.

Biztanleria behera

Urtetik urtera biztanleria galtzen ari den eskualdeko beste herri bat da Eratsunen eta datuak dira horren erakusle: 60ko hamarkadan 450 biztanle inguru izatetik gaur egun 150 bat izatera pasatu da. Ez hori bakarrik. Mitxelenak azaldu digunez, «adineko asko dago, eta asko dira lanagatik astea kanpoan pasatzen duten gazteak. Asteburuetan herrian mugimendu handia sumatzen da, baina astez ez».

Zerbitzuetan ere izan dute galera. Duela bederatzita urte eskola itxi zutenetik, «izugarri» sumatzen dute haren falta, «haurrek herriari bizia ematen zioten». Hortik aparte, «ez dugu ez dendarik, ezta ostaturik ere eta lehen bi ostatu ziren. Herriarrendako elkartea hor dago, baina kanpotik bisitariak etortzen direnean, buelta hartu eta martxa egiten dute, ez dute zerbait hartzeko tokirik». Bere hitzetan, «ostatu batek bizi-poza» emanen lioke herriari.

Kontuak kontu, egiteko horiek guztiak udalaren esku ez badaude ere, «ahal duguna» egiteko prest daudela dio Mitxelenak. Horretarako, ordea, alde batetik, «dirulaguntzak biltzea ezinbestekoa» izanen omen da, eta bestetik, egoerak laguntzea nahi luke. Horren harira, aurtengo festen faltan heldu den urtekoetan jarria du begia: «espero dugu guk ere aurreko udalek antolatua izan dituzten festa dotoreak prestatzeko aukera izatea».

IKASTURTE HASIERA 2020 GEHIGARRIA

Ezohiko moduan bada ere hasteko prest

Galdera ikurrez betetako ikasturte hasiera izanen da aurtengoa, hori ezin da ukatu. Egunetik egunera aldatuz doa egoera, baita segurtasun neurriak eta baldintzak ere. Dena den, aitzinera darrai bizitzak eta egoera berrira egokitu eta erabiltzaileei ahalik eta zerbitzu osoena eskaintzeko ilusioz lanean ari dira eskualdeko profesionalak. Kiroldegietan, ikasketa zentroetan eta dantza, kirol zein hizkuntza akademieta prest dute guztia ezohiko ikasturte honi hasiera emateko.

TTIPI-TTAPari aitortu diotenez, bereziak izaten ari dira azken hilabeteak. Balizko aukera guztiak jarri dituzte mahai gainean; aurrez aurreko ikasketatik hasi eta online eskainiko litzatekeena prestatzeraino. Denek, ordea, lehenbiziko aukerari eman diote lehentasuna eta ahal duten neurrian horri eutsi nahi diote. Horixe baita eskaintzen duten zerbitzuaren bereizgarria: ikasleekin duten harreman hurbila.



TOKI ONA UDAL KIROLDEGIA

Urdis Bera
SERVICIOS DEPORTIVOS / KIROL ZERBITZUAK

“ZURE OSASUNA INDARTZEKO MOMENTUA DA”

Has zaitez gustukoena duzun aktibitatean
irailaren 21ean!

Irailaren 7tik 14ra izena emanaz,
urte osoko plaza gordeko dizugu!

Hemen duzu
neguko programa



BERAKOUDALA

- 948 630 215 / 662 300 763
- bera@urdisl.com
- berakotokiona.kiroldegia
- Julio Caro Baroja, 2 Behea

erran. eus

Estilo guztiak 3 urtetik aurrera

Ikasturtearen hasiera: Irailak 15
Covid-aren kontrako protokola

academiadanzarebeca@gmail.com

Doneztebe 607744199



XAGU LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBUK EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK



Angie

ENGLISH ACADEMY

T. 626 908 076
angieacademy@gmail.com
Elizagibela, 7 behea
31740 DONEZTEBE

Cambridge English
Teacher



8 urtetik aurrera.
HAUR - GAZTE - HELDUAK
Hasiera mailatik:
A1 - A2 - B1 - B2 - C1 - C2

Cambridgerako azterketa ofizialak
prestatzen ditugu emaitza hagitz onekin.
Itzulpenak ere egiten ditugu.

2020-2021 kurtsorako **MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK**
Plaza mugatuak | Ikasturte hasiera: **IRAILAK 17**

CHRISTINA IRIGOYEN Josephines English akademia

Itxaropentsu mintzo da Christina Irigoyen ikasturte hasieraz solasean hasitakoan: «gure ikasleak berriz ikusteko gogotsu gaude». Penaz bizi izan zuten aitzineko ikasturte bukaera: «ez genuen behar den bezala itxi. Ikasleak pertsonalki agurtzeko aukerarik ere ez zen izan». Orain prest daude ikasleei beren ingelesa freskatzen laguntzeko: «ez dakigu zer gertatuko den, baina geure burua eta bertzeak zainduz, espero dugu dena ongi ateratzea». Segurtasun neurri guztiak ongi ikasiak ditu eta akademian gehienez hamar pertsona egonen dira aldi berean: «hurrengo taldea sartu baino lehenago, mahaia desinfektatuko dugu baita egunaren bukaeran, beti egiten genuen bezala». Argi du zein den lehen-tasuna: «gure ikasleei segurtasuna eman nahi diegu, baina aldi berean ahal den guztia eginen dugu beraiek guregandik betiko goxotasuna eta hurbiltasuna senti dezaten».


NEREA TELLETXEA Sare akademia

Aurrez aurreko klaseekin hasiko dute ikasturtea Sare akademian «eta gero ikusi beharko da zein den egoera». Nerea Telletxeak azaldu du erantzuna emateko prest egonen direla: «hainbat aukera ditut prest, baita online eskaintza ere. Bakoitzaren beharren arabera laguntza hori emateko hainbat plataforma eta erreminta erabiliko ditugu». Hala beharko balitz ez luke ezustean harrapatuko, «azken ikasturtea ere horrelaxe akitu genuen eta nabaritu genuen klaseak telematikoki izanda ikasleek laguntza gehiago behar zutela».

Klaseekin irailaren lehenbiziko astean hasteko asmoa dute, «aitzineko ikasturtearen errepasso moduko bat eginen dugu eta hortik aitzinera ikasturte berriari gogotsu heldu!».

MARIA ANGELES OTXANDORENA Angie kademia

Aitzineko ikasturte arraroa oraindik buruan izan arren, berriari ekiteko gogoz dago Maria Angeles Otxandorena: «ikasleek ezohiko egoera hartan nola erantzun zuten ikusteak aitzinera segitzeko indarra ematen du». Alarma egoera indarrean jarri zutenean, bat-bateko kolpea izan zela aitortu du: «ez geunden prest eta material guztia banan bana eskaneatzen orduak pasa nituen». Hasieran ikasle guztiengana iristea ere ez zela erraza izan aitortu du: «hamar urtetik hasi eta lauorrei urte bitarteko ikasleak ditugu eta guztien gaitasuna ez da bera klaseak online segitzeko, baina ikasi eta ederki moldatu ginen gero». Aurrez aurreko klaseek duten garrantziaz jabetuta, horiek eskaintzea da bere helburua: «uzten diguten bitartean hori izanen da gure lehen-tasuna. Ikasleak babes-tea izan da beti gure egin-beharra eta orain inoiz baino gehiago».



Denboraldiko ikastaroei buruzko informazioa kiroldogian eskuragarri!

IRAILEAN AUKERA EZIN HOBEA:

- Irailean bazkide egiteko sarrera DOHANIK (urte bateko iraunkortasunarekin)
- BAZKIDE izanda ikastaroetan sartzeko LEHENTASUNA eta prezioetan ABANTAILAK izanen dituzu.

AniKote
Amazabal Kalea, 39 LEITZA
T. 948 510 719

IRATZ UDAETA

Berako Toki Ona Kiroldegia

Aitzineko denboraldia «hagitz motza» izan zela aitortu du Iratz Udaetak: «ustekabeen harrapatu gintuen, lekuz kanpo eta etxetik lanean segitu genuen arren ez geunden behar bezala prestatuta». Horregatik eta jendearen eskariz, ikasturtea lehenago hastea erabaki dute: «irailean suabe-suabe hasi eta erritmoa hartzeko». Txarrenean ere jarri dira eta bestelako aukerak jarri dituzte mahai gainean: online klaseak, taldeko errutinetan sartzea... «Klaseak bideratu eta etxetik kirola egiten jarraitzeko modua aurkitu dugu».

JONE ORDOKI

Lesakako Udal Kiroldegia

Lesakako kiroldegian ere aitzineko urteetako martxari eutsiko diote: «printzipioz ikastaro guztiak emanen ditugu». Jone Ordoki kiroldegiko langileak azaldu du irailean izanen direla izen-emateak eta urrian hasiko dituztela klaseak: «baldintzetara egokitu beharko dugu eta neguko denboraldian ere izanen dira aldaketak».

EDURNE NORIEGA

Leitzako Anikote kiroldegia

Dena prest izan arren, gobernua egun batetik bestera hartzen dituen neurriek begira daramatza azken asteak Edurnek: «neurri berriak etorri ahala guztia egokitu beharko dugu: aforoa, taldeak... galdera asko daude erantzun gabe». Zertxobait aurreratu dute ikasturte hasiera, «irailaren 28an hasiko gara, ilusioz prestatu dugu guztia eta egoerak uzten duenaren neurrian posible duguna egiten dugu».

ANA TOVAR

Yoga akademia

Adineko pertsonak dira Ana Tovarren ikasleen zati handi bat eta horregatik bete-betean eragin dio egungo egoerak: «ikasturte honetan talde horiek ez ditut izanen eta segurtasun tarte mantentzeko talde bakoitza ere txikiago izanen da». Guztiak du bere alde ona eta uste du osasuna zaintzeaz haratago ikasleen onerako izanen dela erabakia: «talde txikian lagunarteko giroa gehiago indartzen delako». Eskaintza ere zabaldu du, «gelan jende gutxiago sartzen da, talde gehiago egin beharko ditut eta ikusi beharko da jendearen erantzuna zer nolakoa den». Online klaseak momentuz ekiditen ari da: «ez dira baxter nire estilokoak, baina agian hasi beharko naiz». Ez du deus bazterten: «edozerarako prest egon behar dugu, ez dakigunez zer datorren eman beharreko pausoak eta erabakiak momentuan hartu beharko ditugu».

PILAR JAUREGI

Xagu liburu-denda

Badira COVID-19ak aldatu ez dituen jokaerak: «gehiengoa azken momentuan ibili ohi da erosketak egiten eta aurten jendea oraindik eta lasaia dagoela iruditzen zait». Horren gibelean, «beldurra ere bada, akaso, ez dakitelako ikasturtea noiz hasiko den eta nola». Hala azaldu du Pilar Jauregik: «batzuk hasiak dira liburuak eta eskolarako materiala erosten, baina gehienak bezperan etortzen dira». Urtetako esperientzia bizkarrean, ez dute ustekabeen harrapatuko: denda materialez betea du. Azken orduko presak tarteko inork ez dezan ikasturtea esku-hutsik hasi.



Adi izena emateko datei!

Irailaren 15etik aitzinera
informazioa kiroldegian eta web orrian eskuragarri

www.lesakakoudalkiroldegia.com

Komentu kalea, 2 · LESAKA · T. 948 637 400 · kiroldegia@lesaka.eus



JOSEPHINE'S ENGLISH
Bertako irakaslea

TALDEAK: HAUR, GAZTE eta HELDUAK
Lehen hezkuntza 6. mailatik goiti
DBH eta Batxilergoa (B1 eta B2)
Web orrien itzulpenak

Christina Irigoyen
M. 637 176 572 · Santiago, 38 Elizondo
josephinesenglish@gmail.com



NURSTUDIO PILATES

PILATES
K-STRETCH
GAHF HIPOPRESIBOAK

Erreserbak egiteko
[627 039 233](tel:627039233)

ORDUTEGIA
Astelehena-ortzeguna:
09:00, 10:00, 11:00, 14:30,
18:30, 19:30, 20:30
Asteazkena:
arratsaldez bakarrik
Ortziralea: goizez bakarrik
Larunbata eta igandea: ibxita

Rosa Seminario 7 • **DONEZTEBE** • nurfuejo@gmail.com



YOGA
ANA TOVAR
(Tel. 679 210 910)

DONEZTEBE
Yoga
Astelehena:
9:15-10:45 / 14:45-16:15
17:00-18:30 / 19:00-20:30
Asteazkena: 20:45-22:15
Ortzeguna: 18:30-19:30

Meditazioa / Mindfulness
Asteazkena: 07:30-8:00
Ortzeguna: 19:35

ZUBIETA
Asteazkena
18:30-20:00

BERA
Ortziralea
18:30-20:00

AEROYOGA
DONEZTEBE
Asteartek
18:30-19:30
eta 19:45-20:45



sare
akademia

DBH
- MATEMATIKA, FISIKA ETA KIMIKA

BATXILERGOA
- MATEMATIKA

LEHEN HEZKUNTZA
- ERREFORTZU KLASAK HAINBAT IKASGAITAN

COVID-19 dela eta segurtasun neurriak bermatuta.
2020-2021ko ikasturterako apuntatzeko apea zabalik.

INFORMAZIO GEHIAGO:
T. 615561458 (Nerea)
Emaila: akademiasare@gmail.com
Web orria: sites.google.com/view/sareakademia
Leitzako errepidea 29
31740 Doneztebe

Elkarrikin ikasiko dugu!

Adinekoen bizi kalitatea aztertzeke tailerrak Donezteben

Irailaren 14ko astean hasiko dira eta aitzineko asterako izena eman behar da

TTIPI-TTAPA

Malerrekan bizi diren adineko pertsonen ongizatea eta bizi kalitatea aztertzeke asmoz, tailer batzuk egingen dituzte irailetik aitzinera Donezteben.

Saioetan, bertzeak bertze, zailtasunei aitzin egiteko gaitasuna, bakardade sentimenduaren kudeaketa, bizi kalitatea, bertako zerbitzuen erabilera, beharrak, eskariak... aztertuko dituzte.

Parte-hartzaileek Arkupeak elkartearen eraikinean, hau da, jubiloteka dagoen tokian, egingen dituzte bilkurak eta astean behin elkartuko dira, ordu eta erdi inguru (1erro hauek idazterako orduan, eguna eta ordua zehazteke zituzten).

Bi taldetan banatuta

Tailerretara joan nahi duten adinekoak bi taldetan banatuko dituzte: batetik, bakarrik bizi direnak; eta bertzetik, familiarekin edo bertze norbaitekin bizi direnak. Eta, bakoitzean, gehienez ere, hamar lagunek parte hartu ahal izanen dute (partaideen se-

gurtasuna bermatzeko beharrezko neurriak beteko dira).

Talde bakoitzarekin sei aste pasatuko dituzte: lehenbiziko txandan, bakarrik bizi direnak eta sei asteren buruan norbaitekin bizi direnak elkartuko dira.

Irailaren erdialdean hasita

Bakarrik bizi direnek tailerrak irailaren 14ko astean hasiko dituzte eta horientzako apuntatzeko hondarreko eguna hilaren 7a izanen da (hamar lagun baino gutxiago izanez gero, beranduago ere apuntatu ahal izanen dira). Norbaitekin bizi direnek, berriz, urriaren 26ko astean ekinen diete saioei.

Garraioa eta izen-ematea

Gurutze Gorriak elkarteak beharra dutenei garraio zerbitzua eskainiko die.

Parte hartu nahi dutenek Gurutze Gorrira (948 20 65 70) deitu eta Garbiñe Olazarrekin solastatu, garbine.olazar@cruz-roja.es helbidera idatzi edo Malerrekako Mankomunitatean edo osasun zentroan jakinarazi beharko dute.

Udalak zubietarrek ez festetan izandako jarrera eskertu du

Joaldunak, trikitixa doinuak... Seinaleak bai, baina festa handirik gabe pasatu dituzte aurtengo amabirjinak Zubietan. Egun horietan herriarrek arduraz jokatu dutelako, izandako jarreragatik eskerrak eman ditu herriko udal taldeak.

Urrozko bestak ere ez dira ospatuko aurten

Urroztarrak San Migel Egunaren bueltan ospatzekoak zituzten beste begira behar zuten dagoeneko. Birusak eragindako egoerak, ordea, aurreikuspen guztiak hankaz goiti paratu ditu hemen ere eta udalak aurten bestarik ez ospatzea erabaki du.



Zortzi lagunek bikoteka egin zuten mendi-erronka.

Azaroaren 21ean Bostorraz-Mendaur mendi erronka egiteko asmoa dute

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 25ean Malerrekako zortzi gaztek, bikoteka, mendi erronka egin zuten. Julen Retegi eta Jon Belarra doneztebarrak; Urko Loiarte zubietarrak eta Eloy Garcia doneztebarrak; Aberri Untxalo ituredarrak eta Aritz Juanenea saldiastarrak; eta Ibon Leiza eta Iñaki Maylin doneztebarrak parte hartu zuten eta Bostorrazetik abiatu eta Mendaurrera joan ziren. Ibilbidea osatzen azkarrenak Julen Retegi eta Jon Belarra izan ziren.

Retegi izan zen helmugara ailegatu zen lehenbizikoa eta Belarrak eta biekin ordu bete eta 30 minutu behar izan zituzten (denborak gehituta). Bortz minutuko aldearekin ailegatu ziren Urko Loiarte eta Eloi Garcia, ordu bete eta 35 minutu bertzerik ez zuten behar izan.

Hirugarren eta laugarren bikoteen artean bazkaria nork ordaindu zuten jokoan eta ikusleek kaskotik emozio handiz bizi izan zuten momentua. Ibon Leizak Aberri Untxalori minutu eta 20 segundoko aldea aterazion eta ikusleak azken bien zain egon ziren. Juaneneak

Maylini minutu eta 20 atera behar zion hirugarren izateko. Bi minutu eta bi segundoko aldea aterata, Untxalo eta Juanenea izan ziren hirugarren. Hortaz, Ibon Leizak eta Iñaki Maylinek ordaindu behar izan zuten bikote irabazlearen bazkaria.

Erronkan parte hartu zuten zortzi lagunek MPS elkartearen kamisetak jantzi zituzten, gaitasun hori dutenei keinu eginez. Eta hori guztia posible izateko, epaile lanak egin zituzten lau gaztek Mendaurren egin zuten lo apustu egunaren bezperan.

Hurrengo erronka mahai gainean
Erronka akitu bezala, hurrengoari begira hasi ziren eskualdeko kirolariak.

Aldaketarik ez bada, azaroaren 21ean, hirugarren larunbatean, egingen dute eta Bostorraz-Mendaur ibilbidea errepikatuko duten arren, kasu horretan «orekatuagoa eta estuagoa» izanen dela aurreratu dute: «zortzikote berak egingen dugu baina bikoteak aldatuta: Urko Loiarte eta Iñaki Maylin, Jon Belarra eta Aberri Untxalo, Eloi Garcia eta Ibon Leiza eta Julen Retegi eta Aritz Juanenea».

Oraingoan, aitzinekoan ez bezala, azken bi bikoteek lehenbiziko bien bazkaria ordaindu beharko dute. Ea hori ere uztailekoa bezain ikusgarria gertatzen den!

«ORAINGOAN
BIKOTEAK
OREKATUAGOAK
IZANEN DIRA»

2020-2021
IKASTURTEA
CURSO
2020-2021

La próxima,
en euskera

Hurrengoan,
euskaraz!



GOZATU
EUSKARA!

DISFRUTA EN EL EUSKALTEGI

EUSKALTEGIEI ETA LAGUNTZEI
BURUZKO INFORMAZIO GUZTIA HEMEN
TODA LA INFORMACIÓN RELATIVA A
CENTROS Y SUBVENCIONES A LA
MATRÍCULA

948 012 012

euskarakasi.nafarroa.eus
aprendeusquera.navarra.es
elaide.eus

BIDEOA IKUSI
VER VIDEO



Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



UDALAK / AYUNTAMIENTOS: ANSOÁIN / ANTSOAIN, AOIZ / AGOITZ, ARANGUREN, AURITZ / BURGUETE, BARAÑAIN, BASABURUA, BERRIOPLANO / BERRIOBEITI, BERRIOZAR, BURLADA / BURLATA, CENDEA DE OLZA / OLTZA ZENDEA, ERROIBAR / VALLE DE ERRO, ESTELLA-LIZARRA, ESTERIBAR, ETXAURI, GALAR, HUARTE / UHARTE, IMOTZ, LIZOÁIN-ARRIASGOITI / LIZOAINIBAR-ARRIASGOITI, LUZAIDE / VALCARLOS, ODIETA, ORKOIEN, PAMPLONA / IRUÑA, PUENTE LA REINA / GARES, ULTZAMA, VALLE DE ARCE / ARTZIBAR, VALLE DE EGÚÉS / EGUESIBAR, VILLAVA / ATARRABIA, ZIZUR MAYOR / ZIZUR NAGUSIA

MANKOMUNITATEAK / MANCOMUNIDADES: IRANZU / IRANTZU, SAKANA, VALDIZARBE / IZARBEIBAR

BATZORDE NAGUSIAK / JUNTAS GENERALES: AEZKOA, RONCAL / ERRONKARI, SALAZAR / ZARAITZU



Urtea 700.000 euro inguruko zorrarekin amaitzea espero dute.

2.671.724 euroko aurrekontua onartu du udalak

Lortutako dirulaguntzei esker hainbat obra eta berrikuntza egin ahal izanen dituzte herrian

TTIPI-TTAPA

Aurtengo aurrekontua martxoak batzarrean onartzea aurreikusi bazen ere, Covid-19ak eragindako pandemiak eta alarma egoerak behartuta, Leitzako Udalak prozedura atzeratzea erabaki zuen, krisialdi honen ondorioak aztertu eta aurreikuspenak errealitateari zuhurtziaz egokitzeko asmoz. Horrenbestez, abuztuaren 4an, Leitzako Udalen ez-ohiko batzarrean, 2020ko aurrekontua hasiera batez onartu dute, aho batez. 2.671.724 euroko aurrekontua onartu du eta lortu diren di-

mulaguntzei esker, hainbat obra eta berrikuntza egin ahalko dituzte herrian.

Udaletxeko teilatua zaharberrituko dute. Nafarroako Gobernuaren Tokiko Inbertsioen Programaren (PIL) dirulaguntzaz burutu ahalgo dira lan hauek. Iruñeko MALDADIAS.L. enpresari esleitu dio zaharberritze

PLAZA MOLDATU ETA UDALETXEKO TEILATUA ZAHARBERRITUKO DUTE

lana 184.084 eurotan (BEZ kanpo). Honela, Nafarroako Gobernuak 137.000 euro bideratuko ditu eta gainerakoa udalaren kontu izanen da. Abuztuaren amaieran lanak hasi eta urte bukaerarako egin izatea espero dute.

Herriko plaza ere moldatuko dute. PDR programaren dirulaguntza baliatuz, 90.000 euro inguruko inbertsioa eginen du udalak herriko plazan, horietatik 50.000 euro lortutako dirulaguntzatik ordainduko dituzte. Zorua berritu, paretak moldatu eta herrikirolak praktikatzeko markaketak eginen dituzte lurrian, ondarea eta ohiturei bultzatzea emateko asmoarekin.

Tokiko garapenari dagokionez, lehen sektorearentzat laguntzak eta herriko dendarien ekimenak finantzatzeko diru-partidak aurreikusten dituzte.

Kultura arloan, irailtik urte amaiera arte, osasun-krisialdiak ez badu halakorik eragozten, hainbat kultur eta kirol ekitaldi antolatzea aurreikusi du Leitzako Udalak. Era berean, epe honetan Leitzako Herri Aretoa inauguratu eta honen martxa abiatzea da asmoa.

Bestalde, urtea 700.000 euro inguruko zorrarekin amaitzea espero dutela ere azaldu dute. Datu gisa aipagarri da proiektu nagusiak finantzatzeko, kostu osoaren % 50a baino gehiagoko dirulaguntzak eskuratu dituztela.

'Leitzako bordak sorreran' lanaren edizioa finantzatu du Gobernuak

TTIPI-TTAPA

Patziku Perurenaren *Leitzako bordak, sorreran* (1557-1965) eta Josune Aznarezen 'Uskararen eleak/Las palabras del uskara' izan dira Euskarabideak urtero eginen duen lehiaketaren irabazleak. Nafarroako Gobernuak, Euskarabidea-Euskararen Nafarroako Institutuaren bidez, finantzatu du bi liburuen edizioa.

Inork aztertu gabeko datuak

Leitzako Bordak, sorreran (1557-1965) liburuan, Leitzako bordak noiz eta nola sortu ziren erakutsi nahi izan du herritarrek. Ikerketaren ardatza hori da, nahiz eta Patziku Perurena egileak beste datu osagarri asko sartu dituen, ohikoa duen estiloan. Gainera, liburu honetan ageri diren datuek berezibiziko balioa dute, mendeetako historiaren bilketa lana egin du, orain arte inork aztertua ez zuen informazioa eta datuak bildu dituelako.

'Gozamen egarritz eta erantzukidetasunez' kanpaina egin dute

Ur festa ordezkatzeko asmoz eta lagun artean elkartzeko aukera badagoela gogoratuz, eskualdeko 12 eta 17 urte bitarteko 243 gaztetxoei gozamenarekin, sexualitatearekin eta erantzukidetasunarekin zerikusia duen material bat bidali zaie etxetara: esku morea txertatua daukan maskara eta osasungarriak eta gozagarriak diren ekintzak egin ahal izateko *Gozamen egarritz* leloa daukan botila.

Leitzako aginte makila egin du Aingeru Zabaletak

Herrintzat mezua grabatuta duen makila da eta gaztaina, ebanoa, larrua eta altzairuak presente ditu. Herriko eta Nafarroako armarririk ditu eta mende baino gehiagoko zilarrezko bara du barruan. Batzar Aretoan ikusgai dago.



UDALA



Altsasuko gazteen alde 2018ko martxoaren 10ean Leitzan ekitaldia egin zen.

Guardia Zibilak alkatea «justifikaziorik gabe» salatu zuela baieztatu dute

TTIPI-TTAPA

Guardia Zibilak Mikel Zabaleta alkatea salatu zuen, Altsasuko gazteen alde 2018ko martxoaren 10ean Leitzan egindako ekitaldi baten deialdiaren ondorioz. Egun horietan, Altsasuko Herriaren Nafarroako Itzulia egiten ari ziren, Auzitegi Nazionalak zigortutako zortzi gazte altsasuarren egoera salatzeko. Leitzako Udalak jakinarazi zuenez, «alkateak udalerrin horretan egin zen ekitaldiaren inguruko jakinarazpena helarazi zion Gobernu Ordezkari-tzari, garaiz eta forman». Guardia Zibilak, ordea, salatu egin zuen, «Altsasuko taldea hainbat udalerritatik egiten ari zen itzuliaren aipamenik ez egiteagatik edo harekin ez lotzeagatik Leitzan egindako ekitaldia». Udalak argitu duenez, «itzuli hura behar bezala komunikatuta zegoen».

Salaketa horren ondorioz, Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Ordezkari-tzak zigor administratiboa ezarri zion Zabaletari, ustezko arau-hauste arin batengatik. Hiru helegite eta demanda bat aurkeztu ondoren, Estatuko Abokatutzak, «jarrera eutsiezina» ikusita, Leitzako alkateak arrazoi zuela onartu zuen, eta Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiak epaia eman zuen. Epai horren bidez, aurkeztutako demanda osorik berretsi zuen, «inolako arau-hausterik ez zegoela deklaratu eta estatua kostuak ordaintzera zigortuz».

2015ean, Guardia Zibilaren beste salaketa baten ondoren, Leitzako alkateak ikertu gisa deklaratu behar izan zuen Auzitegi Nazionalan, eta auzi hura ere artxibatu egin zen, «oinarririk ez zuelako».

Herritarrek ez-festetan izan duten jarrera goraiatu du udalak

Leitzako Udalak herritarrek ez-festetan izan duten jarrera goraiatu nahi izan du sare-sozialetan elkarbanatu duen ohar baten bidez. Horrekin batera, aspaldi honetan «horren seinalatuak» izan diren gazteen jokabidea «eredugarria» izan dela ere gaineratu

dute: «orain arduraz jokatzear gain, behar izan denean, boluntario lanetan lehenak izan dira». Herritarrei orain arteko bidetik segitzeko deia ere egin diete, segurtasun neurriak zorrotz betez, «norbere burua zainduta, elkar zaintzen baitugu».



A. IPARRAGIRRE

Amaia Iparragirreraren erakusketa ikusgai

Amaia Iparragirre herritarraren erakusketak abuztuaren 20an ireki zituen ateak eta irailaren 5era arte, larunbata, egonen da zabalik. Udaletxean jarri dituzte ikusgai argazki eta olerki musikatuekin osatutako konposizioak; bisitarien begien eta belarrien gogagarri izanen direnak.



UTZITAKOIA

Ezohiko ezpata dantza

Festetako beste egunak bezalaxe, ezohikoa izan zen San Tiburtzio Eguna ere. 12:00etan hutsik zegoen herriko plaza. Hala ere, ezpata dantzaz gozatzeko aukera izan zuten herritarrek. Segurtasun neurri guztiak betez bideo dotorea grabatu eta partekatu baitzuten Aurrerako dantzariak eta txistulariak.



Igogailuen instalazioak.

Multimarka mantentze-lanak eta erreformak.

T. 948 232 400

www.inelsazener.com

«Aurten ez bada ere 13. mendi martxa noizbait egingo da»

MIKEL BARAIBAR ARESOKO MENDI TALDEKO KIDEA

2007an antolatu zuten lehenbizikoz Aresoko Mendi Martxa eta azken edizioetan 400 mendizale inguru bildu ditu hitzorduak. Aurtengo edizioa bertan behera utzi behar izan dute

ENERITZ IRAOLA

Iraileko aurreneko igandea egun seinalatua izan ohi da aresoarrentzat. Lanerako eguna izaten da askorentzat, baina gustuko lanarena. Harrotasunez ikusten baitute urtero herria mendizalez nola betetzen den. Eguraldi txarrak lortu ez duena, Covid-19ak lortu du eta bertan behera utzi behar izan dute aurtengoa; hamahirugarrena behar zuena. Mikel Baraibar aritu da hasieratik antolakuntza lanean eta orain arteko bidearen errepasoa egin du TTPI-TTAPAREKIN.

Nondik bururatu zitzaizuen mendi martxa bat antolatzeko ideia?

Udaleko kideak ginenok kirol ekitaldiren bat egitea pentsatu genuen eta Mendialdea Kirol Mankomunitateko teknikariekin hitz eginda, mendi martxa edo antzeko ekitaldiren bat egitea gomendatu ziguten. Igor zen orduan kirol kontuez arduratzen zen zinegotzia eta mendirako afizioa duen Migel Angel Gereño herritarrari eskatu zion ibilbidea osatzeko laguntza. Hortik hasi eta pixkanaka guztia forma hartzen joan zen.

Gogoan duzu aurreneko edizioa?

Bai, noski. Oso eguraldi txarra egin zuen eta laurogei bat pertsona etorri ziren. Hasiberriak ginen eta orduan ez genekien kopuru horrek arrakasta izan zuela esan nahi zuen edo ez. **400 mendizale baino gehiago elkartu izan dira gerora.**



Mikel Ulizarko kaxkoa seinalatuz, ibilbideko lehenbiziko tontorra. A. GOÑI

Bai eta hori pentsaezina zen hasieran. Ahoz ahokoak indar handia izan du, urtero festa polita izan delako herrian eta horrek jendea erakartzen du. Baina salto handiena gure mendi martxa Nafarroako mendi ibilbideen zirkuitoan sartu zenean eman zen. Federatuta dauden mendizale askok zirkuitu horren parte diren martxa guztiak egiten dituzte eta horrek bultzada handia eman zion.

«400 MENDIZALE BAINO GEHIAGO ELKARTU IZAN DIRA»

Espero zenuten halakorik?

Urte batean gogoan dut aparkalekuak ez genituela prestatuak eta hau eromena izan zela. Bidea kolapsatu zen, mendi bideetatik barna atera behar izan zuten batzuek. Arituz ikasten da eta urtetako esperientzia ez dugu alperrik. **Herritarren inplikazioa beharrezkoa izanen da halako zerbait antolatzeko.**

Nik uste arrakasta handiena horixe dela. Ez dakit zenbat

«50 BAT HERRITAR ARITZEN GARA MENDI MARTXA ANTOLATZEN»

boluntario izango diren zehazki baina 50 inguru bai. Herri tiki hauetan horrelako lan bat egitea handia da. Baina, gero, Aresoko Mendi Martxako kamiseta nonahi ikusten dugu eta guretzat hori polita da oso. Ikusten duzu herrian egiten den zerbait zabaltzen dela eta jendea nonahitik etortzen dela, ibilbidea gustatzen zaiela eta asko errepikatu egiten dutela. Badira lehenengotik hasi eta sekula hutsik egin ez dutenak. Hori ere pozgarria da. **Ibilbidea goraipatzen dute parte hartzaileetako askok.**

Polita da oso, denentzako modukoa. Bueltan bueltan herria inguratuz doaz mendizaleak eta inguruko kaxko gehienak ezagutzeko aukera dute. Hogeita bat kilometroko ibilbidea da Ulizar, Urkita, Pagozelai eta Guratzen barna egiten dena; herriko plazatik hasi eta bertan bukatuz. Bakoitzak bere neurria harrapatzen du. Batzuk igoko dira Urkitara, besteak ez. Batzuk lasterka egingo dute, besteak patxadan. Azkenean buelta bat eman, eguerdiarte polit bat pasatu eta gero bazkaritxo batekin bukatzeko aukera ematen zaie etortzen direnei eta giro polita izaten da. Plaza ere halaxekoa dugu herrian eta eguraldiak laguntzen badu egun polita ateratzen da.

Aurtengoa ez da egiterik izan..

Nik uste ez zela oso koherentea horrelako ekitaldi bat antolatzeko. Inguruan ikusten den egoerarekin eta orain arte hartu diren erabakiekin. Inguruan antolatzen diren mendi lasterketa guztiak bertan behera gelditu dira. Gure kasuan, gainera, herrian urte osoan jende gehien biltzen den eguna izaten da; festarik ez da egin, jendea elkartzea ahalbidetuko zuen bestelako ekitaldirik ere ez eta mendi martxa antolatzeak ez zuen zentzurik. Arrisku hori hartzea debalde... Hala ere, ez egin dudarik, aurten ez bada ere hamahirugarren edizioa noizbait egingo da.

Ur-ihesak konpontzeko lanean aritu da udala

Uztailaren 5etik 24ra bitarte egindako ur-mozketen bidez egunean 199.000 litro galtzen direla ikusi dute

TTIPI-TTAPA

Uraren gaiak arazo ugari eman ditu azken urteetan herrian. Izan ere, ur depositua bete bai, baina behar baino lehenago husten dela ohartu dira. Hori dela eta, azken urtean zenbait ur-ihesak atzeman dira eta hauek konpondutakoan depositua nola betetzen den ikusi da. Hala ere, arazoak irauten du eta horri aurre egiteko, uneoro zenbateko ur-kontsumoa dagoen jakiteko kontadore jarri da deposituan. Horretarako 2.500 euroko inbertsioa egin du udalak.

Uztailaren 5etik 24ra bitartean ura moztu zen auzoka, auzo bakoitzean zenbat ur kontsumitzen den jakiteko eta gauez ura moztutakoan zenbat litro egiten duten ihes. Neurketa hauekin ikusi dute egunean batez beste 84.000 litro

kontsumitzen direla herrian (biztanleko 163 litro egunean, Nafarroako batez bestekoa biztanleko 112 litrokoa den bitartean).

Gauez, aldiz, ura moztuta ere, batez beste orduko 8.300 litro gastatzen direla ikusi dute. Horrenbestez, egunean 199.000 litro ur galtzen dira: Santa Maria kalean 49.600 litro/egunean, Beheko Landan 12.000 litro/egunean, Goiko Landan 21.000 litro/egunean, Fermin Antonio Apezetxea kalea: 21.000 litro/egunean, Txino auzoan 27.000 litro/egunean eta depositutik herrira 68.400 litro/egunean.

Ur-ihesak zein puntu zehatzetan dauden antzeman ondoren, konponketa lanak egin dituzte. Dena den, ura arduraz erabiltzeko eskatu diete herritarrei.



F. LOIARTE

Bide-aldeko balkoia, herriko ederrena

Abuztuaren 8an egin zuten Udakolore balkoi lehiaketaren hirugarren edizioa. Epaimahaiko kideek ez zuten lan erraza izan, asko izan baitira etxe ataria dotore apaindu dutenak. Azkenean, Pakitaren Bide-aldeko balkoia izan zen saritua eta herriko komertzioetan gastatzeko 150 euro eskuratu zituen.



Dama Beltzak taldeak eskaini zuen normaltasun berriko aurreneko zuzeneko.

Puro Relajo taldeak kontzertua eskainiko du irailaren 5ean

TTIPI-TTAPA

Puro Relajo taldearen maria-txiek girotuko dute iraileko lehenbiziko larunbata. Eskolako frontoian eskainiko dute kontzertua 19:00etatik aurrera. Ateak ordu erdi lehenago irekiko dituzte, 18:30ean, eta sarrera modu mailakatuan egingen dute, hiru atetatik. Emanaldiak iraun bitartean nahitaezkoa izanen da momentu oro maskara jantzia izatea.

Sarrera guztiak banatuta

Kontzerturako sarrera dagoeneko esku artean dutenek

bakarrik izanen dute emanaldia gozatzeko aukera. Herritarrei eman nahi zieten lehen-tasuna eta horregatik, udalak dohainik banatu zituen sarrera guztiak abuztuaren 28an eta 29an udaletxe azpian. Pertsona bakoitzak hiru sarrera hartzeko aukera zuen.

Udako bigarren emanaldia

Normaltasun berriko arauei jarraiki antolatu zen lehendabiziko kultur ekitaldia Dama Beltzak taldearen kontzertua izan zen eta harrera bikaina izan zuenez oraingorako ere handia da sortu den ikusmina.

Bukatu dituzte Goizueta eta Hernani arteko errepidea hobetzeko lanak

TTIPI-TTAPA

Abuztu hasieran bukatu zituzten Goizueta eta Hernani lotzen dituen errepidean egin beharreko lanak, bost kurba berrituz. Duela urte batzuk egin zituzten hobekuntza lanei segida eman diete eta hilabete eta erdian bukatu dituzte egin beharreko lanak.

Hernani alderako errepidean egindako lur-erazketak asfaltatu dituzte eta bihurguneei zabalera gehiago eman diete ikusgarritasuna hobetze aldera. Hain justu, arrazoï hori dela eta, urtetan istripuak



gertatu dira errepide zati horretan.

Belakoko azpian dagoena, Bekoitze inguruan, Anatxuri inguruan eta Arranbide baino lehenagoko bitan egin dituzte bost kurba berri, eta errepidea ere hobetu dute obra honekin.

BAZTAN

Autokarabanak aparkatzea arautzeko ekimena abiatu du Baztango Udalak

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak bailaran autokarabanek baimendu gabe dauden tokietan gaua igarotzea debekatzeko proposatu du. Ordenantza behin-betiko onartzen denean Lizarmeaka, Ordoki eta Belaten autokarabandakak propio prestatutako tokietan gelditu ahal izanen dira.

Proposamena eztabaidatu, egokitu eta onartu

Ordenantzan aparkatzeko gehieneko denbora-tartea 09:00etatik 20:00etara mugatu; eta Baztanen gaua pasatzeko debekua ematen da Lizarmeaka, Ordoki eta Belaten prestatutako tokietan salbu (betiere gehieneko edukiera errespetatuz). Era berean, hori guztia betetzeko zehapenak finkatu dituzte. Gobernuak taldeek egindako proposamena alder-

dien artean eztabaidatuta, herritarren ekarpenetarako tartea ireki zaie. Hurrengo astera arte bidal dezakete ekarpenak@baztan helbidean. Ekarpenguztiek hasierako onspena emateko agiria prestatuko da eta, horren ondotik, udalak hasierako onspena eman, aldizkari ofizialean argitaratu eta alegazioen epea irekiko dute. Bide guztia egin ondotik, egin beharreko aldaketak eginda, behin-betiko onartuko dute.

Turismo arazoei erantzuna


Autokarabanak arautzeko ordenantzari, bailarako ostaturistikoak aztertzeko udalak abiatu duen eginahala gehitu behar zaio, baita Erratzuko behin-behineko trafikorearen arauketa ere. Horien helburua turismoa Baztanen sortzen ari den arazoei erantzutea da.



UTZITAKOIA

Ziga kantuz girotu dute

Baztan Kantuz egitasmoak Zigan izan zuen geldialdia abuztuaren 16an. Kantuzaleak, plazatik abiatuta, herrian barna ibili ziren, karririk girotuz. Bizi dugun egoera tarteko, maskara jantzi eta segurtasun neurriak betez egin zuten buelta parte-hartzaileek.



UTZITAKOIA

Ana Mari Marin margolari elizondarra hil da

TTIPI-TTAPA

Ana Mari Marin margolari elizondarra abuztuaren 24an hil zen, 87 urte zituela, Iruñean. Baztango paisaietan oinarrituz egiten zituen pintura koloretsuengatik ezaguna zen eta hainbat erakusketa egin zituen.

Margolari ezaguna izateaz gain, Baztandarren Biltzarren sorreran parte hartu zuen, baita Elizondoko Museo Etnografikoan edota Elizondoko Koralean ere. Baztango zinegotzi eta elizondoko alkate ere izan zen.

Oliver Laxe zinemagilearengandik ikasiz

Meliton Estudioek eta Nafarroako Nazioarteko Zinemaldiak (NIFF) antolatutako *Oliver Laxekin Nafarroan filmatzen* film-tailerra egin zuten abuztuan Lekarozen. 25 lagunek parte hartu zuten eta estudioan ez ezik, Zugarramurdiko lezeetan, Xorroxongo ur-jauzian edo Gorramendin ibili ziren.

BRIKO
LIMPIEZA, SL

MOTA GUZTIETAKO
GARBIKETAK:
etxeak
landetxeak
lokalak
komertzioak
enpresak

...
konfidantzazko zerbitzua

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 · F. 948 580 648	Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108	Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 · F. 948 451 304
---	---	---

«Baztan uztea pena izan da baina orain Osasunan ikasi eta gozatu nahi dut»

IZARO URRUTIA ITURRALDE OSASUNAKO ATEZAINA

Heldu den denboraldia Osasuna futbol taldean eginen du Iزارo Urrutia elizondoarrak. «Ikasteko eta gozatzeko» baliatu nahi du aukera

N.BAZTERRIKA | ELIZONDO

Anaia zaharrenari begira sortu zitzaion futbolearen aritzeko grina Iزارo Urrutia Iturralde-ri (Elizondo, 2007). «Zazpi urte inguru» zituela eman zuen izena Baztan Futbol Taldean: «probatzeko gogoz joan nintzen, jokalaria edo atezain ez nuen argi, baina azkenean atezain aritzea erabaki nuen...». Ez da hartutako erabakiaz damutu, atek zaintzeak ate andana ireki baitzizkio.

Aisialdia baloiaren bueltan

Ongi oroitzen ditu Baztan Futbol Taldean egindako lehenbiziko entrenamenduak, baita urte hauetan eredu izan dituen entrenatzaileak ere: «Romanekin hasinintzen, udan Felipe izaten genuen eta ondotik Migel Angelekin aritu gara, azken denboraldia berarekin egin dugu». Astean bi aldiz Baztan Futbol Taldekoe-kin eta ortziraletan atezainekin egindako lanketek lagunartean izan dute segida: «aisialdian ere aunitzetan futbolearen aritzen naiz». Eta horri guztiari esker, emaitza onak lortu dituzte: «azken denboraldian arras ongi aritu gara, martxoan partidak eten zituztenean bigarren edo hirugarrenak gindoazen».

Talde lana

Futbola «talde lana» da Urrutiarendako eta, horregatik, atezain izateak ez du jokalaria izateak baino pisu handiagoa



Iزارo Urrutiak eta Berta Mungirok Osasunan eginen dute hurrengo denboraldia.

berarendako: «gola sartzerako momentuan presio pixka bat sumatzen dudan arren, dena ez dago nire esku».

Partidak jokatu ez ezik, ikusi ere egiten ditu elizondoar kirolariak. Izan ere, Urrutia-Iturralde familiar futbolzaleak dira: «bereziki Osasunak jokatzeko dituen partidak segitzen ditugu».

Ikustea eta aritzea ez da gauza bera: «jokatzea zailagoa da, eta aurkariak nola jokatzeko

duten ez dakidanean urduritzen sentitzen naizen arren, aritzea ikustea baino gehiago gustatzen zait, hobeki pasatzen dut».

Atezain onenaren saria

Partida batetik bertzerera ere sumatu du alderik: «herrian jokatzeko dugularik gehiago animatzen gaituzte eta hori eskertzekoa da». Partida batzuk animoengatik eta bertzeak eman dioten aukeragatik oroitzen ditu. Azken horien artean

«Baztan Futbol Taldeko neskek Nafarroako Selekzioarekin jokatu genuen lagunarteko partida» mugari izan da berarendako: «horren ondotik, maiatzean eta abenduan, Nafarroako Selekzioan jokatzeko deitzen hasi zitzaizkidanez, niretako berezia izan da...».

Deiak ez ezik, bere gaitasunaren aitortza gisa, sari bat ere eskuratu zuen iaz Urrutiak Tomas Caballero memorialean: «nire adintsuko bertze neska batzuekin parte hartu nuen eta bukatu zelarik atezain hoberenaren saria eman zidaten».

Baztandik Osasunara, zapore gazi-goz

Maiatzaren erdialdera Osasunaren aritzeko gonbidapena jaso zuen Urrutiak: «deituko zidatela errana zidaten arren, deitu arte nuen sinetsi».

Zapore gazi-gozoa eragin zion deiak. Izan ere, «Baztan berezia da niretako eta uzteak pena eragiten didan arren, Osasunaren aritzeko aukera izatea ezin izan dut pasatzen utzi. Esperientzia hau ikasteko eta gozatzeko baliatu nahi nuke».

Zaletasuna eta gaitasuna

Abuztu erdialdean hastekoak zituzten entrenamenduak eta ordutik, astean hiru egunez Iruñera joateko zen Urrutia. Hemendik aitzinera, ikasketekin bateratzekoak zituen entrenamenduak baina, momentuz behintzat, horrek ez zion kezkarik eragiten: «normalean entrenamenduak ilunabarretan izanzen direnez eskolako lanak aitzinetik egin ahal izanzen ditudala uste dut...».

Berta Mungiro eta biak izan dira Osasunak Baztandik deitu dituen azken jokalaria eta elkarren babesa izatea «lagungarri» dela uste du Urrutiak: «ezagunak ditudan herritik bi joatea beti da on».

Baztanek badu futbolerako zaletasuna, baztandarrek badute gaitasuna. Bikote gazte horrez gain, bertze bi jokalaria ere badira Osasunaren eta: Uxoa Bertiz eta Elur Meoki.

Ostatu turistikoak arautzeko 18.000 euroko aurrekontua

Herritarrei bizitegia izateko eskubidea bermatzeko eta ostatu turistikoaren sektoreak irauteko eskaintza arautu nahi dute

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak ostatu turistikoaren azterketa egiteko 18.000 euroko aurrekontua onartu du, ondotik, azterketa hori oinarri hartu eta arautzeko helburuz.

Ostatu turistikoaren

«**hazkundeari**» buruzko gogoeta Aurrekontu moldaketa egiteko EH Bilduk aurkeztutako idatzian, «azken urteetan ostatu turistikoaren hazkundera gertatzen ari dela eta hazkundera hori bailarak egin nahi duen eskaintzari buruzko gogoetarik gabe gertatzen ari dela» aipatu zuen.

Horrekin batera, «ostatu turistiko batzuk alokairuko bizitegien kontura egiten ari direla» ohartarazi zuten eta, horrek, «bailarako ohiko bizitegi eskaintzan ondorioak

dituela, etxebizitza izateko eskubidean zuzenean eraginez».

Bertzalde, ohatzeen «sobe-rako eskaintzak burbuila sor dezakeela» adierazi dute. Izan ere, euren ustez, «ohatzeen eskaintzak eta horri harre- mandutako azpiegituren eskaintza ez da eskariarekin bat heldu».

Bizitegi eskubidea bermatzea

Horregatik, «herritarrei bizitegia izateko eskubidea bermatzeko eta ostatu turistikoaren sektore ekonomikoak denboran iraun ahal izateko, ostatu turistikoaren eskaintza arautzea» beharrezkoa delakoan daude.

Horrela bada, lehen pausoa egoeraren azterketa egitea da, eta hain zuzen, aipatutako kontu saila horretarako sortu du udalak.



Nafarroako Gobernuak eta Baztango Udaleko ordezkariak Arizkun.

Arizkundik NA-2601 errepidera irteera zuzena egingen dute urte bukaerarako

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako Departamentuak, Toki Administrazio eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, hitzarmena sinatuko du Baztango Udalarekin, Arizkongo herritarrek NA-2601 errepidera zuzenean ateratzeko bidea eraikitzeko. Exekutiboak 44.000 euro bideratuko ditu obra finantzatzeko; lanak urte akabiarako akituko dituzte. Bernardo Ciriza, Lurralde Kohesiorako kontseilaria eta Jesus Maria Rodriguez, Toki Administrazio eta Despopulazioren zuzendari nagusia izan

ziren ingurua bisitatzen, Arizkun egingen den inbertsioaz aritzeko. Joseba Otondo, Baztango alkatea eta bertze zenbait udal ordezkari eta lanak egingen dituen Mariezkurrena eraikuntza enpresako ordezkariak ere bertan izan ziren.

Pertalax eta Erratzu lotzen dituen bidea NA-2601 errepidearekin lotzen duen bidea zolaberriko dute hormigoiarekin eta gisa honetara, Arizkongo herrigunetik igaro beharrik gabe izanen da NA-2601 errepidera joateko bide egokiago bat. Gaur egun, egoera kaskarrean baitago errepide hori.



UTZITAKOIA

Loraldia lehiaketan sarituak

Arras Baztan fundazioak etxeetako balkoi eta leihoak lorez apaintzeko lehiaketa antolatu zuen. Guztira 17 lagunek parte hartu dute eta Mari Karmen Auzki, Nati Irungarai, Eugeni Telletxea, Lidia Petrirena, Sagrario Kordoba, Maria Etxenike, Maria Teresa Ibarra eta Ramon Apezetxea saritu dituzte.

Arizakungo sarbidea moldatu eta uraren fakturaziorako sistema sortu dute

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak eta Elizondoko Lanbide Eskolak 2019/2020 ikasturtean zenbait proiektu garatu zituzten eta horietako bi aitzinera eramateko modua izan dute.

Batetik, Oinarrizko Lanbide Heziketako 2. mailako soldadurako ikasleek Arizakungo eskola zaharrerako sarbidea den zubiaren bi aldeetan baranda berriak egin zituzten eta udalak garraioarekin lagundu zien.

Bertzetik, Baztango urak proiektua martxan jarri eta



Ikaskuntza Zerbitzu Solidarioa eta metodologia aktiboak erabiliz, Baztango herriei ur kudeaketaren fakturazioa aurrera eramateko sistema sortu zuten. Azken proiektu hori Administrazioa eta Kudeaketa zikloko 2. mailako ikasleek garatu zuten.

Arkeologia zentroa inauguratu dute Amaiurren

Aranzadi Zientzia Elkarteak azken hamabortz urteetan berreskuratutako aztarnak ikusgai paratu dituzte

TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 8an inauguratu zuten Amaiurko arkeologia zentroa Etxeberrian. Bertan daude ikusgai gazteluko aztarna arkeologikorik ikusgarrienak. Aranzadi Zientzia Elkarteak berreskuratu ditu, azken hamabortz urteetan egindako indusketa kanpamentan.

Erdi Aroko aztarnetan, batez ere, eguneroko tresnekin zerikusia duten hondakinak daude, janariarekin zerikusia dutenak, burdinazko sukaldako tresnak, elikagaien hondarrak, eta gaztelua bera eraiki, konpondu eta mantentzeko materialak eta tresnak. Paneletan, gazteluari buruzko infografiak ikus daitezke, artxiboetatik berreskuratutako dokumentazioa, orain arte kronologikoki antolatuta.

Ikusgai dagoen piezarik handiena Amaiurko gazteluko atea da (ez jatorrizkoa, gazteluko ate blindatuaren kopia, Jokin Larunbek eta Arangurengo Lantegi Eskolak batera egina). Jaurtigaiaik edo babes-armamentua ere ez dira falta, eta agian indusketetan lortutako material arkeologikorik ikusgarriena, Amaiurko ezpata, XV. mendearen bigarren erdiko ezproi moduko bat erakusten duena.

Amaiurko Gaztelu Elkarteak bultzatu du proiektu hori, Amaiurko herriaren, Nafarroako Gobernuaren eta Baztango Udalaren laguntzaz.

Amaiurko gaiteroekin batera gaztelura joan ziren bisitariak eta gero arkeologia zentroa inauguratu zuten.

Etxeberrian kokatua dagoen 130 metro koadroko museoaren inaugurazioan izan ziren,



Gaztelu Taldeak 'Nafarroa Arragoa' abestu zuen inaugurazio egunean.

ren inaugurazioan izan ziren, bertzek bertze, Joxe Urrutia (Amaiurko alkatea), Joseba Otondo (Baztango alkatea), Jokin Otamendi (Aranzadi Zientzia Elkartearen presidentea), Ainhoa Viela (Gaztelu elkartearen lehendakaria), Elena Aranguren (Jose Maria Jimeno Jurioren alarguna) eta Pedro Mari Esarte historialaria. Gaztelu Taldeak 'Nafarroa Arragoa' abestu zuen. Joxe Urrutiak aipatu zuenez, «museoa ttikia da, herria bezala, baina garrantzitsua, aldi berean». Joseba Otondok bertan egin den auzolana aipatu zuen, «gaztelu inguruan indusketak eginez lehenik, arkeologia zentro hau lortuz, ondotik. Herriak eta herriarentzat sor-

tutako eraikina da». Mattane Rodriguez, Leire Arana eta Kepa Garridok Aureskua dantzatu zuten eta Pedro Mari Esartek eta Elena Aranburuk agertu zuten zentroaren plaka.

Bortz mendeko historia

Hemendik bi urtera, 2022an, bortz mende beteko dira Amaiurko gaztelua Gaztelako tropek hartu zutenetik. Amaiur herriak bisita-zentro bat erakitzekeo helburua zuen urte horretarako. Asmo handiko proiektu hori martxan dago, baina ezin izanen da gauzatu aurreikusitako datarako, finantzaketarik ez dagoelako. Helburu berarekin segitzen dute, eta finantzaketa bilatzen jarraitzen dute bitartean.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

MARMOLES SOULE

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

www.marmolessoule.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

ANZABAL
inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
ESTRUKTURALAK

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE



Baztanen ere presoan aldeko martxarekin bat egin dute.

Amaiurtik Arraiozerat 1.056 kilometro presoan alde

TTIPI-TTAPA

Sarekeuskal preso eta iheslarien egoerari irtenbidea emateko 3.127.327 kilometro egiteko Izan Bidea izeneko dinamila antolatu zuen. Egitasmo horren barne, Baztanen 1.056 kilometroko ibilbidea egin zuten abuztuaren 21etik 23ra, ortziraletik igandera, hainbat herritarrek.

Amaiurtik abiatu eta Erratzun eta Elizondon barna Arraiozerat joan ziren. Dinamika beraren barne, urriaren 3an milaka herritarrekin batera Euskal Herriko tontor ezagunenak, 650 tontoringuru, goitzeko deia egin dute, preso eta iheslarien etxeratzearen alde eta elkarbizitza eta bakearen alde.



UTZITAKOA

Bizikletaren erabilera sustatzeko zita

Bertze hilabete batez, Izterpeko Matxinada mugimenduaren baitan, mugikortasun eredu aldatu eta bizikletaren erabilera bultzatzeko bizikleta ibilaldia egin zuten abuztuaren 19an. Hurrengo hitzordua irailaren 25ean egingen dute, «klimaren aldeko ekintza-egun globalarekin bat eginez».

Garrantzitsuenak zuek zaretelako...

- %25 a Osasun aseguruetan
- %30 a Bizi aseguruetan

NELI eta MAITE bezeroak zaintzen



Santiago 72B, ELIZONDO · M. 669 32 63 33

ZUGARRAMURDI

Auto pilaketei buruz solas egiteko bilera irailaren 11n

MARIFA ETA KORO

Herritar batzuek deituta, abuztuaren 11n auto pilaketengatik eta herrian zehar dabilen zirkulazioagatik bilera bat egin zuten.

Udalak, azken urte hauetan, hainbat neurri hartu ditu baina ez dira nahikoak izan. Hori

dela eta, lan horretan lagundu nahi dietenei gonbidapena luzatu diete.

Ideiak eta proposamenak bildu ahal izateko bertze bilera bat antolatu dute heldu den irailaren 11rako, ortzira lerako. Akelarrenean bilduko dira.

Matxura konpondua eta ur depositua bete-betea dago berriz ere

MARIFA ETA KORO

Herri aunitzetan bezala, gurean ere etxera ailegatzen zaigun urarekin komeriak izaten dira udan. Abuztuaren hasieran bat-batean ur faltan gelditu ginen. Depositua daukan alarma-sistemak ez zuten funtzionatu, eta hustu zen. Bi

arrazoiengatik izan zen: alde batetik, belategi batean urisuri bat zegoelako; eta bertetik, iturriaren filtroa zikindu zelako ez zuen ur nahikorik pasatzen uzten. Segidan konpontzea lortu zen, eta egun eta erdiz depositua bete-betea zegoen berriz ere.



Abuztuaren 11n kontainerrak hustu gabe gelditu ziren.

Karabanen etortzeak kezka eragin du herritarrengan

MARIFA ETA KORO

Karabanak aparkatzeko afera urte pare batetik honat ikusten ari gara, baina hilabete hauetan aise gehiago etortzen ari dira, eta jendea kezkatzen hasia da.

Gero eta karabana gehiago

Orain arte, gehienak gaua pasatzera etortzen ziren eta goiz

aldera partitzen ziren. Azken aldian, ordea, hau aldatzen ari dela iduri du, eta zehazki, joan den abuztuaren 11n arazo larria bihurtu zen.

Egun horretan zabor-kontainerrak hustu gabe gelditu ziren, karabanek pasabidea hetsi ziotelako eta bilketa kamioia ezin sartu gelditu zelako.

Ttipi Txartela

arekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

764

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

- Donostiako aquariuma - 2 sarrera**
Josune Otxandorena Andiarena | ARANTZA
- Buatxabal - Kamiseta bat**
Maria Jose Saldias Altxu | IRURITA
- La Rhune - 2 sarrera**
Rafael Alcaraz Astigarraga | LEITZA
- WOW Park - 2 sarrera**
Josefina Matxiñena Iribarren | DONEZTEBE
- BKZ abentura - 2 sarrera**
Patxi Bertiz Erasun | BEINTZA-LABAIEN
- Astizko Lezeak - 2 sarrera**
Rafa Arretxea Maritorea | BERROETA
- Baga Biga - lote bat**
Kontxita Aracues Macicior | LESAKA
- Baga Biga - lote bat**
Miguel M^a Etxeberria Aldaregia | ATARRABIA

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

2 sarrera

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com

Kamiseta bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu

2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

Wow Park
wowpark.fr

2 sarrera

IRRISARRI LAND
www.irisarriland.com

2 sarrera

ZUGARRAMURDIKO LEZEA
www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera

LIBURUAK



1. lotea
- Ku-Ku! Nor zara zu?
 - Animalien Gaua
 - Olaialaia

2. lotea
- Olaialaia
 - Benetako munstroak
 - Lur Planeta

TTARTTALO
www.ttarttalo.eus

LAGUNTZAI LEAK

Lanku
www.lanku.eus

IrriSari LAND
www.irisarriland.eu

Zaindu maite duzun hori...

Zein da zuzena?

Nereari deitu diogu edo **Nerea deitu dugu?**

Nereari lagundu diote edo **Nerea lagundu dute?**



Biak zuzenak dira, 'deitu' eta 'lagundu' bietara erabil baitaitezke: NOR-NORK eta NOR-NORK-NORI.

Nerea deitu dugu / Nereari deitu diogu.

Amak deitu zuen / Amak deitu zion.

Bilera batera deituko zaitugu / Bilera batera deituko dizugu.

Nerea lagundu dute / Nereari lagundu diote.

Lanean lagundu zuen / Lanean lagundu zion.

Pozik lagunduko nuke etxeraino / Pozik lagunduko nioke etxeraino.

Handik ateratzen lagunduko zaitut / Handik ateratzen lagunduko dizut.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

info@ttipi.eus

744 48 43 61

Kalko ustelak

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

***ONGI ERAMATEN GARA** edo **ONGI MOLDATZEN GARA?**

'*Ongi eramaten gara' erdarakada nabarmena da eta ez da zuzena. Kasu honetan, 'ongi moldatzen gara' da zuzena. Gehiegitan erabiltzen da 'eraman' aditza:

- *Lankidea eta biok ongi eramaten gara > Lankidea eta biok ongi moldatzen/konpontzen gara.
- *Diru kontuak eramaten ditugu > Diru kontuez arduratzen gara.
- *Gobernuak daraman politika > Gobernuaren politika.
- *Arantzara daraman bidea > Arantzako bidea > Arantzara doan bidea.

Bitxikeriak Osatu atsotitza!



Frantziako estatutik usaian baino bisitari gutiago etorri dira. ONDIKOL

Udako ekitaldiek harrera ona izan dute

Aldiz, uda honetan usaian baino turista frantses gutiago sumatu da herrian

ARANTXA ETA IRAIA

Udaro antolatzen diren hainbat ekitaldi aurten ezin izan badira ere ospatu, udalak bi egun kultural antolatu ditu aurtengo udan. Lehendabizikoa, abuztuaren 8an izan zen. Goizean artisauen azoka ttipi bat izan zen herriko plazan. Arratsaldean, Estitxu Pinatxo beratarraren kontzertua izan zen eta segidan Gorka Aginagaldereen monologoa. Jende andana bildu zen herrian, beti ere segurtasun neurriak mantenduz.

Bigarren egun kulturala abuztuaren 15an izan zen. Goizean berriro ere artisauen azoka izan zen eta arratsaldean, haurrei zuzendutako bi emanaldi: Pontx pailazoa eta Javi eta Ankaren magia emanaldia. Ikusle guztiak aski kontent atera ziren emanalditik. Gero, urteroko tortilla txapelketa



Pontx pailazoa Urdazubin.

egin zen. 11 tortilla aurkeztu ziren eta hiru kategorietako irabazlea Manoli Azkarraga izan zen. Zorionak Manoli!

Hegoaldeko turista gehiago

Aurtengo uda inoiz baino mugituagoa sumatu da herrian. Uztaile hasieratik jende anitz hurbildu da gure xokoak ezagutzera eta erran daiteke hegoaldeko jende gehiago sumatu dela.

Bertzalde, Dantxarinako bentetan usaian baino jende gutiago sumatu dela diote bertako langileek. Frantziako estatuak ezarritako tabakoaren legea dela medio, edota koronabirusaren egoera dela eta, inoiz baino turista frantses gutiago nabaritu da herrian.



Koronabirusagatik Herri Urrats ez egitea deliberatu dute

36 urtez geroztik, lehen aldia da Seaskak ez egitea deliberatu duela

PIERRE BASTRES

Agorrilaren 20an erabaki goibela jakinarazi zuten Seaskako arduradunek: ez da Herri Urratsik izanen. Maiatzaren 10ean iragan behar zelarrik, irailaren 20erat gibelatu nahi zuten, ustez egoera hobekituko zela. Halere, nahiko dudazkoa baita oraindik ere, jendeen osasunaren segurtasuna lehentzi dute. Antolatzaileek zehaztu bezala, elkertasuna bertze gisan adierazten ahalko dute herritarrek. Izan ere, Herri Urrats diru iturri nagusietako bat izaten da Iparraldeko ikas-



Aurten ez da horrelako irudirik izanen.

tolentzat, eta sekulako hutsunea sortuko da erakundearen kontuetan. Ikasturte hastean, bertze bilkura bat antolatuko dute egoerari zer nolako ihar-dokipena eman jakiteko.



Zirikolatzen dantza taldeko dantzariak, epailean, martxoan egin nahi dute besta.

Zirikolatzen 40. urteburuaren ikuskizuna 2021ko epailerat gibelatu dute

P. BASTRES

Ekitaldien egutegia nahasi du Covidak. Baina Zirikolatzeok ez dute bertan behera utzi nahi izan 40. urteburuaren besta eta 2021ko epailaren 19an edo 20an iragan dadin nahi dute. Nahiz eta baimena izan, zuhurtziaz jokatu dute: eritasuna bizkor dago oraino eta baldin-

tzak ez dira nahi bezalakoak. Adibidez, 150 behatzaile baizik ez zitezkeen sar, eta maskara ezarri. Halaber, dantzariak ere maskarekin behar lukete eta bestarik eta ostaturik ez litzateke izanen. Egoerak oneratik egingen duen itxaropena ukanik, merezi duen besta egingen diote dantza taldeari.

Egun bakarrera mugatu dute Idazleen Biltzarra

Osasun eta segurtasun neurriak hartuta igande honetan ospatuko da 37. edizioa beteko duen hitzordua

TTIPI-TTAPA

Osasun eta segurtasun neurriak hartuta igande honetan, irailak 6, egingen da 37. biltzarra, osasun egoera dela eta egun bakarrean. Antolatzaileek aitzinatu dutenez, argitaletxe, idazle eta musikarien 96 mahai izanen dira 10:00etatik 18:00etara kiroldegian. Sartzea bi euro ordaindu beharko da.

Usaian bezala, hainbat aurkezpenekin osatu dute egitaraua. Bertzeak bertze, Euskaltzaindiak eta hainbat argitaletxe euren lanak aurkeztuko dituzte eta Euskarazko Wiki-

pediaren inguruan mintzaldia ere izanen da. Bi urterik behin banatzen dituzte Biltzarreko sariak, idazle edo sortzaile bat sarituz eta aurten Marie-Jose Basurko eta Koldo Ameztoi ohoratuko dituzte.

Horrez gain, gazte literatura saileko irakurketa musikatuak egingen dituzte Kiribil konpainiarekin, eta Arantxa Leizaolaen margolan eta marrazki erakusketa ere ikusgai izanen da. Axuri'arte taldekoen eta bertze hainbat eskulangileren lanak plazan paratuko dituzte ikusgai eta salgai.

Koronabirusagatik herriko bestak bertan behera utzi dituzte

TTIPI-TTAPA

Inguruko bertze herri aunitzetan egin duten bezala, Saran ere alde batera gelditu dira herriko bestak. Herriko kontseiluak iragan agorrilaren 20an aitzinatu zuen Covid-19a tar-teko, heldu den astean hasita bortz egunez ospatzekoak

ziren bestak ez egitea erabaki duela.

Jende ainitz biltzen duten ekitaldiak izaten dira bestetan, bereziki plaza inguruan, eta jende pilaketa horiek izan dira osasun krisi betean bestak ez ospatzeko erabakia hartzeko arrazoi.

Ganixon Bergara 'Txistu' zendu da uda honetan

Uztailaren 21ean zendu zen Ganixon Bergara Txistu, eta berekin, bere xirola doinua eta boz ederra. Duela zortzi urte bere xirola herriari eman zion. Berekin izandako oroitzapenak gogoan, doluminak senitartekoei.



Eskola denboran langile bat hartuko du herriko etxeak

Buruilaren 1etik agorrilaren 31 arte aritzeko langile bila dabil herriko kontseilua, batetik, jantokian, bazkariko denboran haurrei laguntzeko eta bertzetik, lokalen garbiketa egiteko. Xehetasun gehiagorako herriko etxera dei daiteste: (00 33) 559 54 20 28.

Maskarak bildu ez dituztenek herriko etxean dituzte

Euskal Hirigune Elkargoak oihalezko bina maskara banatuko dizkie Ipar Euskal Herriko herritar guztiei. Sarako kasuan, maiatzean eta uztailan aritu ziren banatzen baina oraindik guztiek ez omen dituzte jaso eta herriko etxera bila joateko deia egin dute.



GANEX

Ehiztarien bilkura nagusia

38 ehiztari bildu ziren uztailaren 26an Xokobian egindako bilkuran. Jean Michel Narbarte lehendakariak joan den urteko sasoi «basurdeetan salbu, sasoi ttikia» izan zela adierazi zuen eta abuztuko lanez ere aritu ziren. Ehizako kartak saltzean ere hasiak dira. Buruilaren 11n dute hitzordua: 18:00-20:00.



GANEX

Margolariak eta zizelkariak kontent

Larrungo koloreak eta Axuri arte taldeetako eta herriko margolariak eta zizelkariak erakusketa egin zuten agorrilaren 21ean plazako errebotean. Jende ugari ibili zen, nahiz eta arratsaldean fite kendu behar izan zuten erakusketa euria hasi zuelako. Hala ere, antolatzaileak kontent gelditu ziren.

Irailaren 19an hasiko da Xilaba bertsolari txapelketa

Lesakan bizi diren Josu eta Maddi Ane Txoperena Iribarren anai-arrebek parte hartuko dute

TTIPI-TTAPA

Bertsularien Lagunak elkarteak Xilaba 2020 Bertsolari Xapelketako kanporaketak non izanen diren eta bakoitzean zein bertsolari parte hartuko duen jakitera eman du. Berrikuntza gisa, txapelketa honek lehen aldikoz parte hartuko dutenek eta lehendik ezagunak zirenek eman dute izena.

Lehen aldikoz parte hartuko duten bederatzita bertsolari izanen dira: Bittor Thicoïpe, Elixabet Etxandi, Iker Altuna, Irati Alcantarilla Urdanpilleta,

Johaine Sarraillet, Josu Txoperena Iribarren, Oier Urreizti, Oneka Arteaga eta Pettan Prebende. Bertzetik, txapelketa aldi baterako utzia zuten eta berriz hastea erabaki duten zazpik eman dute izena: Bixente Hirigarai, Gillen Hiribarren, Maddi Ane Txoperena Iribarren, Maindi Murua Berra, Mizel Mateo, Patxi Iriart eta Xan Alkhat.

Kanporaketak

Irailaren 19an hasi eta urriaren 10era arte lau kanporaketa jokatuko dituzte.



Josu (erdian) eta Maddi Ane (eskuinean) Txoperena anai-arrebak.


Irailaren 19an Hiriburuko La Perle gelan egingen da lehenbiziko saioa eta Elixabet Etxandi, Egoitz Zelaia, Irati Alcantarilla Urdanpilleta, Ortzi Idoate, Bittor Thicoïpe eta Aitor Servier Etxexuri ariko dira.

Bigarren kanporaketa Urdiñarbeko Herriko Gelan izanen da eta Patxi Iriart, Gillen Hiribarren, Pettan Prebende, Oier Urreizti, Maddi Sarasua Laskari eta Maindi Murua Berra ariko dira bertsoan.

Urriaren 3an Ainhoako Herriko Gelan bertze sei bertsolari ariko dira: Oneka Arteaga, Maddi Ane Txoperena Iribarren, Iker Altuna, Battitt Crouspeyre, Xumai Murua Berra eta Bixente Hirigarai.

Urriaren 10ean, azkenik, Larzabaleko Herriko Gelan izanen da hitzordua eta Xan Alkhat, Mizel Mateo, Josu Txoperena Iribarren, Ramuntxo Christy eta Kerman Diazek parte hartuko dute.

EUSKALTZAINDIA SARAKO 37. IDAZLEEN BILTZARRA



Euskaltzaindiak, irailaren 6an, 11:00etan, honako argitalpen hauek aurkeztuko ditu:



Adrien Gachiteguy: Laborantza
Laborantzatik hobeki bizitzeko
Bilduma: Euskaltzainak 30
Prestatzailea: Henri Duhau



Eñaut Etxamendiren obra narratiboa (1964-2011): hurbilpen kritikoa
Bilduma: Iker 37. Egilea: Itziar Madina



Emil Larre (1926-2015): lekukotasun, kantu eta idazki
Paratzailea: Peio Jorajuria



Arraioz Sagardia txapeldun eta Irurita Miguelene txapeldunorde, agintari eta sari-emaileekin. JUAN MARI ONDIKOL

Arraiozek irabazi du laxoa kopa txapelketa

Sagardiak 9-3 irabazi zion Irurita Migueleneri abuztuaren 1ean Arraiozko plazan jokaturako finalean

TTIPI-TTAPA ARRAIOZ

2020ko laxoa kopako finala jokatu zuten abuztuaren 1ean, iazko txapeldun izan zen Irurita Miguelene eta etxean jokatzeko zuten Arraioz Sagardiaren artean jokatu zen. Partida borrokatua izan zen hasieran, baina azkenean arraioztarrak erraz nagusitu ziren, 3-9.

Iruritarren aldetik Xabi Barberena sakatzaile, Gorka Urtañaso numero, eta Egoitz Prim eta Iñaki Etxandik kuarto bezala jokatu zuten. Arraioztarren aldetik, Mikel Mindegiak sakatzaile, Xabi Mihurak numero, eta Jon Gamiok eta Miguel Maritorenak kuarto bezala jokatu zuten.

Partidua eta gero, sari bana-keta izan zen, partidaren beza-laxe, segurtasun neurri guztiak betez. Arraioztarrek beraien txapela eta garaikurrak jaso zituzten Xabi Maia, Baztango udal zinegotziaren eta Joxelu Retegi Arraiozko alkatearen eskutik eta iruritarrek, beraien sariak, Jose Mari Ayerdi Nafarroako Gobernuko ordezkariaren eta Joxe Artetxe, Pilotarien Batzarrako presidentearen eskutik. Eskertzekoa partida ikustera agertu zen jendea eta beraien jokabidea, arauak errespetatuz eta plazan giro ederra jarritz. Tartean izan ziren Iparraldetik eta Gipuzkoako Villabonatik etorritako ikusleak, baita Valentziako Joc de Pilotako ordezkariak ere.

LAXOA TXAPELKETA

TXAPELDUNAK	
1980	IRURITA
1981	DONEZTEBE
1982	DONEZTEBE
1983	OIZ
1984	OIZ
1985	DONEZTEBE
1986	DONEZTEBE
1987	DONEZTEBE
1988	OIZ
1989	DONEZTEBE
1990	OIZ
1991	IRURITA
1992	DONEZTEBE
1993	IRURITA
1994	DONEZTEBE
1995	DONEZTEBE
1996	DONEZTEBE
1997	DONEZTEBE
1998	DONEZTEBE
1999	ARRAIOZ
2000	DONEZTEBE
2001	ARRAIOZ
2002	IRURITA
2003	DONEZTEBE
2004	IRURITA
2005	DONEZTEBE
2006	DONEZTEBE
2007	IRURITA
2008	DONEZTEBE
2009	ARRAIOZ
2010	IRURITA
2011	IRURITA
2012	IRURITA
2013	DONEZTEBE
2014	DONEZTEBE
2015	IRURITA
2016	IRURITA
2017	IRURITA
2018	DONEZTEBE
2019	IRURITA
2020 ⁽¹⁾	ARRAIOZ

(1) Kopa sisteman jokaturia



FELIX LOIARTE

Hodei Lujanbio marka berria Mandoegin

Hodei Lujanbio korrikalari goizuetarrak marka berria jarri zuen abuztuaren 1ean Goizuetako plazatik Mandoegira igo eta plazara itzultzen (1.02.09). Aurreko marka Martin Etxeberriaren esku zegoen (1.09.00). Jende asko hurbildu zen Goizuetako plazara Hodei Lujanbio iristen ikustera.



UTZITAKO ARGAZKIA

e-Remonteko kideak Elgorriagan

Erremonteak ez du atsedetik izan udan eta jokoan daude buruz burukoa, baita Nafarroako binakako erremonte txapelketa ere. Halere, e-Remonte Beti Euskal Jai enpresa berriko pilotariek atsedenerako tartea ere izan zuten Elgorriagako bainuetxean abuztuaren 1ean.

Euskal Herriko aizkora txapelketak urritik aitzinera hasiko dira

TTIPI-TTAPA

Hasieran bertzelakoa jakinaz bazuere, azkenean Euskadiko Herri Kirol Federazioak Euskal Herriko aizkora txapelketak antolatzea erabaki du. Hirugarren mailako txapelketan, urrian hiru kanporaketa jokatu dituzte eta

finala abenduaren 27an izanen da. Izen-ematea irailaren 12a baino lehen egin beharko da. Bigarren mailan, urrian bi kanporaketa egingen dituzte eta finala azaroaren 15ean; maila nagusian, azaroaren lehen kanporaketa bakarrik jokatu dute eta azaroaren 29an finala.



Ezkerrean irabazlea eta eskuinean Ramontxo Arandia beratarrak. ITZALAKPHOTOGRAPHY

Bidasoko Bide Berdean egin den Ipar Martxako lehen maratoian 80 lehiakide

TTIPI-TTAPA

Ipar Martxak adin guztietako 300 lagun inguru bildu zituen abuztuko hirugarren asteburuan Donezteben, Sunbillan eta Elizondon, Corriendoporelmu enpresak eta Ttuku Ttuku klubak antolatuta zizuten kirol-proba eta hitzaldien artean. Bildutako dirua ANELA elkarteari emanen diote, Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Nafarroako Elkarteari.

Abuztuaren 15ean, bortz kilometroko ipar martxa ibilaldian 50 bat lagun atera ziren. Eta adituen txanda biharamunean izan zen. 42 kilometroko maratoian 12 ibiltarik eman zuten izena eta 21 kilometroko maratoi erdian 42k. Doneztebe eta Sunbilla artean osatu zuten ibilbidea.

42 kilometrokoetan, emakumezkoen kasuan, Elena Segzdaite Segzdaite nagusitu zen

(05.04.16) eta gizonzkoetan Ramon Alvarez Borrás (04.46.35). Ramontxo Arandia Goldarazena beratarrak bigarren sailkatu zen.

Eskualdeko parte-hartzaileak

- Maratoian, bigarren Ramontxo Arandia Goldarazena, Bera: 04.47.20.
- Maratoi erdian, erreleboka, Amaia Odriozola Apeztegia eta Katixa Oteiza Mendiberrri, Donamaria: 02.50.08.
- Maratoi erdian, Iñaki Unanua Goñi, Elizondo: 02.51.15.
- Maratoi erdian, erreleboka, Begoña Arizmendi Bereau eta Juan Mari Oskariz Cordoba, Elizondo: 02.57.42.
- Maratoi erdian, Ainara Unanua Arizmendi, Gartzain: 03:01:20.
- Maratoi erdian: Alejandro Ordoki Arrieta, Lesaka: 03.08:25.



Doneztebe taldeko pilotariak, ordezkariek eta Doneztebeko alkatea.

Doneztebek ezin izan du bere seigarren garaipena eskuratu herriartekoan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako herriarteko pilota txapelketan seigarren txapelik gabe itzuli behar izan zuen abuztuaren 22an Doneztebek. Iruñea izan zuten aurkari, elkarren aurkako zortzigarren finalean. Kimuetan, Doneztebeko Markel eta Julen Salaberriak 8-18 galdu zuten Iruñeko Laso

eta Olzaren aurka. Haurretan Doneztebeko Beñat Apeztegia eta Intza Garañok 18-3 irabazi zieten Sarasibar eta Santxezi. Gaztetxoetan Doneztebeko Telletxea eta Loiarrek 11-22 galdu zuten Laso eta Igoarekin eta helduetan, Barandiaran eta Gorritik (Doneztebe) 8-22 egin zuten Mata eta Iruritarekin.



Aizkolariek lanean Arantzan jokatuak kanporaketan. I. UGALDE

Eskualdeko lau aizkolari Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketako finalean

TTIPI-TTAPA

Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa jokatu zen abuztuaren 16an Arantzan eta hamar aizkolarien artean bortzek lortu zuten oraindik noiz eta non jokatu den zehazteke dagoen finalerako txartela: Julen Olano leitzarrek (07.40.40), Beintza-

Labaiengo Jesus Etxeberriak (07.55.69); Txomin Amundarainek (08.01.56); Asier Pellejero aresoarrak (08.33.32) eta Beintza-Labaiengo Jon Telletxeak (08.43.73). Finaletik kanpo gelditu ziren Mikel Indakotxea zubietarra eta Beintza-Labaiengo Miguel Angel Etxeberria eta Jacinto Etxekonanea.

«Kolpe gutxi izatearekin beste ezaugarri batzuk landu behar izan ditut»

ARITZ ZUBIRI GAMIO GOIZUETAKO ERREMONTISTA

Galarreta pilotalekuaren 50. urteurreneko erremon-te txapelketa irabazi du Aritz Zubiri Gamiok (Goizueta, 1987). Urrizarekin batera, profesioaletako bere txapelik garrantzitsuena jantzi du

AITOR AROTZENA | GOIZUETA

Hernaniko udaletxeko langilea, Galarretan pilotan... Goizuetan baino denbora gehiago ematen du Aritz Zubirik Hernanin: «Bai, egia esan bai, astelehenetik ostiralera behintzat bai, halere egunero bueltatzen naiz etxera eta asteburuak Goizuetan ematen ditut, noski».

Ttikitan esku pilotan aritutakoa bada ere, Zubirik aipatu digunez, «Hernanin ikasten hasi nintzen garaian, kuadrillako Urtzi Irazusta erremon-tean aritzen zen afizionatuetan eta orduan animatu ninduen probatzera. Ordurako esku pilota utzia nuen, eskuetatik eta ez nintzen ongi ibiltzen, nabarmendu ere ez genuen egiten eta utzi nuen. Infantil-kadete mailan pilota handixeagoak izaten dira eta izaten da aurrera edo atzera egiteko adina eta orduan utzia nuen».

Erremon-tea hartu bazuen hartu, ibilbide oparoa egin zuen afizionatuetan, Gravn, Gipuzkoakoa, eta Euskal Herriko txapelketak irabazi baitzituen. 2009ko abenduaren 19an debutatu zuen profesio-naletan eta hamaika urte beranduago lortu du bere txapelik handiena, Galarretaren 50. urteurreneko txapelketan: «Txapelketa berezia zen, bai urteurrenagatik, baita konfinamenduaren ondotik jokatu den lehena izan zelako eta orain arte lortu dudan txapelik inportanteena da, dudarik

gabe». Eskaintza ere garbi izan du, «emaztearentzat, bigarren umea espero dugu azarorako eta bera da nire kezka eta pena guztiak aguantatu behar izaten dituen, etxeko martxa eramaten duena».

Lehen txapelak 2015ean

Lehendik ere urte polita izan zuen goizuetarrak 2015ean, lehenik promesen txapelketa irabazi baitzuen 2015ean Otaegirekin, Ezkurra II.a eta Labakari irabazita, eta hiru hilabetera promozio txapelketa Ansa II. arekin, Segurola eta Larrañagari gailenduta. 2016an txapelketa nagusian jokatzeko aukera izan zuen, orduan ere

Urrizarekin eta finalerdian galdu zuen. 2018ko Sagardoa-ren Txapelketan finalista izan zen Utergarekin eta promozio txapelketan Eloy doneztebarrarekin, baina biak galdu zituen.

Koronabirusaren afera honengatik, pilota munduan erremon-tea izan zen gelditzen azkena eta hasten lehena ere izan da. Aritz Zubirik Hernaniko udaletxerako lanean segitu zuen konfinamendu garaian, baina erremon-tea alde batera utzi zuen. «Egunero lanera joaten nintzen Hernanira, baina gainerakoan, mundu guztia bezala, etxetik mugitu gabe».

'Tregarredes'-en oinordeko

Esku pilotarekin harreman berezia duen eta hainbat profesio-nal eman dituen herria da Goizueta. Erremon-tea ez da hain zabaldua, baina Zubiri ez da herriko lehen erre-montista profesio-nal. Garai batean Sutegixarreko Miel Salaberria *Tregarredes* aritu zen, 1950etik 1970era ehunka partida jokatu zuen Urumea eta Euskal Jai pilotalekuetan batez ere. Zubirik ez zuen *Tregarredes* kantxetan ikusteko aukerarik izan, «aditza bai eta fami-liako batzuk ezagutzen ditut, baina ez nuen ikusi, Galarretan hasi nintzenerako hila zen». Sareak igotzea ere ez dagoela bere ezaugarrien artean onartu digu, irri artean, goizuetarrak: «Kuadroan kolpe gutxienetako duena izanen naiz, ez diot abiadurarik ematen eta pilota ahalik eta gehien eustea da nire ezaugarri nagusia, *latoso* xamarra izatea. Kolpe gutxi izatearekin beste gauza batzuk landu behar izan ditut nahitanahiez, pilota arri-matzen saiatu eta *buena* asko egin, segi eta segi...».

Ia hamaika urte bete ditu erremon-tista profesio-nal moduan. Zubiri erremon-tista aldatu egin da denbora hone-



«ORAIN ARTEKO NIRE TXAPELIK INPORTANTEENA IZAN DA»

«'BUENA' ASKO EGITEN DUT, LATOSOA IZATEA DA NIRE EZAUGARRIA»

Goizuetako erremon-tista 50 urte bete dituen Galarretan: «Ordu asko eman ditut pilotaleku honetan». MAIALEN ANDRES

tan, «orduan ere kolperik ez nuen, baina orduan baino askoz *buena* gehiago egiten dut». Baita Aritz pertsona ere, «orain helduxeagoa, orduan ardurarik batere ez, egiten nuen guztia norberarentzako, etxera etorri eta dena egina eta orain, frontoietatik aparte beste ardura batzuk, familia... asko aldatzen da», dio.

Koteto eta Urriza aurrean, Lizaso eta Urrutia atzean

Hamaika urte hauetan ezagutu dituen erremontista onenak zein izan diren galdetuta, Goizuetako atzelariak aipatu digunez, «jokatzen hasi nintzeanean beharbada Koteto Ezkurraren urte onenak pasatuak ziren, baina oraindik ere ikusten zitzaien zer kategoria zuten, eta erretiratu bitarte hor egon da. Urriza ere, joko oso diferentea izanagatik, bere parean ibili da urte hauetan eta hau ere beti hor dago. Atzelarien artean, ni bezalatsu, kolpe handirik gabekoa zen Lizaso, baina hor goian egoteko baliabide ugari erabili zituen. Kolpeari dagokionez Migel Mari Urrutiak kolpe izugarria zeukan, indar handiarekin handia ematen zion pilotari. Bakoitza bere estiloan bikainak ziren. Elkarren kontra ikusi nituen eta batek ze kolpea ematen zion pilotari eta besteak dena bueltatzen zuen!».

Barrenetxea IV. arekin ere harreman estua du, elkarrekin debutatu baitzuten eta buruz burukoan bere botilero lanak egitea ere egokitu baitzaio. «afizionatuetan ere elkarrekin hasi ginen, elkarrekin debutatu genuen eta erremontearen munduan elkarrekin hazi garela esan daiteke. Urte pila elkarrekin daramatzagu profesionaletan eta frontoietatik kanpo ere lagun handiak gara».

Enpresa berria

Konfinamendu garaia beselako berririk ere ekarri dio erremontearen munduari, tarte horretan enpresa berria ere sortu baita. Zubiriri ez zaio



Aritz Zubiri Galarretaren 50. urteurrenoko txapela jantzi ondotik, Aner Zubiri Apezetxea semearekin. MAIALEN ANDRES

iruditzen horrek momentu honetan mesede handirik egiten dionik modalitateari, «baina batzuentzat aukera bat ere izan daiteke. Bakoitzak bere erabakiak hartzen ditu bere irizpideen arabera eta norbe-

«ENPRESA BERRIAK EZ DIO MESEDERIK EGITEN ORAIN ERREMONTEARI»

rak onena iruditu zaion aukera hartu du».

Erremontearen egoeraz kezkatuak daude aspaldian, bai pilotazaleak baita pilotariak beraiek ere. Zubirik dioen bezala, «egia da esku pilotarekin

«BAKOITZAK BERE ERABAKIAK HARTU DITU, ONENA IRUDITU ZAIONA»

konparatuta askoz okerrago dagoela erremontea, egoera txarragoan. Orain arte telebistan ez zela asko ikusten, pilota ez zela ongi ikusten eta bat eta beste... baina orain ikusi da telebistatik segitzeko joko erakargarria dela. Bakoitzari bat edo beste gustatuko zaio, baina erremontea ere ikusgarria da telebistan. Kaskoan kamera jartzeko ideia ere gauzatu da, beharbada garatu behar da, baina hori ere aurrerapen bat da».

AGENDA

IRAILAK 3 - 17

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

HITZALDIAK

LESAKA

Euskararen erabilera datuen aurkezpena

Harriondoa kultur etxean, irailaren 4an, 18:00etan.

Endara Bizirik elkarteari emandako babesa eskertzeko ekitaldia

Plaza zaharrean, irailaren 4an, 19:00etan.

ETXALAR

Uso postuen enkantea

Udaletxean, irailaren 5ean, 12:00etan hasita.

ZUGARRAMURDI

Trafikoak eragindako arazoak solas egiteko bilera

Akelarrean, irailaren 11n.

BERA

Euskararen erabilerrari buruzko gogoeta saio parte-hartzailea

Irailaren 18an, 17:00etan hasita.

IKASTAROAK

LESAKA

Genero-indarkeria: sentsibilizazioa eta prebentzioa

Harriondoa kultur etxean, Txokobiko aretoan, irailaren 2an, 18:00etan.

Matxismoa 2.0: genero-indarkeria sarean

Harriondoa kultur etxean, Txokobiko aretoan, irailaren 9an, 18:00etan.

Irakurketa-idazketa garatzeko arazoak haur euskaldun elebidun edo eleaniztunengan

Harriondoa kultur etxean, irailaren 18an eta 19an.



UTZITAKOA

SARA Idazleen Biltzarra

Liburu eta disko aurkezpenak, hitzaldiak, erakusketak... Kiroldedian, irailaren 6an, 10:00etatik goiti.

DONEZTEBE

Frantses ikastaroa

Irailaren. Informazio gehiago edo izena emateko: 948 45 03 09.

Ingeles ikastaroa

Irailatik abendura. Informazio gehiago edo izena emateko: 948 45 03 09.

Oinarrizko zerbitzu anitzak

Urritik abendura. Informazio gehiago edo izena emateko: 948 45 03 09.

BERA

Informatika

Irailaren 14tik 18ra, goizez, 25 ordu.

Menpekotasuna dutenak zaintzeko ikastaroa

Irailaren 7tik 11ra, goizez, 30 ordu.

ELIZONDO

Arreta soziosanitarioa

Elizondoko Lanbide Eskolan, irailatik otsailera, arratsaldean, 370 ordu.

Oinarrizko industria langilea

Elizondoko Lanbide Eskolan, irailatik otsailera, arratsaldean, 286 ordu.

ELIZONDO

Menpekotasuna dutenak zaintzeko ikastaroa

Irailaren 14tik 18ra, goizez, 30 ordu.

KONTZERTUAK

LESAKA

Txamukos mariatxien emanaldia

Andra Mari zahar etxean, irailaren 4an, 18:00etan hasita.

Lesakako abesbatza

Irailaren 11n, plazatik abiatuta, 19:00etan.

GOIZUETA

Puro Relajo taldearen kontzertua

Eskolako frontoian, irailaren 5ean, 19:30ean (edukiera sarrerekin mugatuta).

BERA

'Pamplona Jazz Big Band' taldea

Herriko etxeko plazan, irailaren 12an, 20:30ean.

BERTSOAK

BERTSOA

Xilaba txapelketa

Irailaren 19tik aitzinera (xehetasunak 47.or.).

IKUSKIZUNAK

BERA

Concavo-Convexo (Led Silhouette) dantza emanaldia

Kultur etxean, irailaren 5ean, 19:00etan hasita. Sarrera: sei euro.

LESAKA

'Bakean dagoena bakean utzi' bakarrizketa saioa

Plaza zaharrean, irailaren 4an, 20:00etatik goiti.

Lesakako erraldoi eta buruhandien konpartsa

Irailaren 12an, Harriondoatik hasita, 10:30ean.

AZOKAK**BERA****Bertako ekoizleen merkatua**

Beralandetan, irailaren 12an, 10:00etatik 13:30era.

KIROLA**LESAKA****Lesakako XVII. Rallysprinta**

Irailaren 5ean, 12:30ean hasita (errepidea 11:30ean itxiko dute).

ELIZONDO**Izterpeko matxinada**

Irailaren 25ean.

OSPAKIZUNAK**SARA****Idazleen Biltzarra**

Kiroldegian, irailaren 6an, 10:00etatik aitzinera.

LESAKA**Udako zikloaren itxiera**

Irailaren 19an.

ERAKUSKETAK**LEITZA****Amaia Iparragirrenen argazkiak eta olerki musikatuak**

Udaletxean, irailaren 5a arte.

TAILERRAK**DONEZTEBE****Adinekoen bizi kalitatea aztertzeke tailerra**

Irailetik urri hondarrera bitarte, astean behin (eguna zehazteke).

Nire aukera**«Automozioa ikasi nahi dudala erratean jendea harritu egiten da»**

NAIARA LUKANBIO OTXOTEKO LESAKAKO GAZTEA



Edonork nahiko lukeen lagun baten ezaugarriak ditu Naiara Lukanbio Otxotekok, «Lesakako gazte saltsero, ero eta naturalak». Gazte gehienek bezala, «kuadrillakoekin otordu bat egitea eta bestera ateratzea» du gustuko, eta hori «motorrarekin bueltan» bada, «aunitz hobea». Aspal-diko zaletasuna du, «etxean beti traste artean» ibili izan da eta «ttikitatik jakin-min handia» izan du.

Mugimendua non, Lukanbio han izaten da, batez ere, «autoak tartean direnean». «Hamabi-hamahiru urte» zituela hasi zen rallyak ikusten eta «hasiera-hasieratik aunitz gustatu» izan zaizkio: «zaletasun polita iruditu zait...».

Kanpotik ikusi, barrenetik bizi

Kanpotik ikustea eta barrenetik bizi bitizteak ez du sentsazio bera eragiten eta ongi ikusi du hori lesakar gazteak. Izan ere, «Unsionek proposamena bota zidanean, uztaillean» egin zuen auto barrennean debuta: «Malerrekako Rallysprintean betetzerik izanen ote nuen ez nekien ametsa egia bihurtu zen, kopilotu atera nintzen».

Hodei Unsionek gidatutako BMWan ibili zen motorzalea, argibideak ematen eta, aitortu duenez, «lehenbiziko aldia izateko hagitz ongi» moldatu ziren. Pilotuaren lana gorai-patu eta esker ona adierazi nahi izan dio: «Unsiion ederki ibili zen eta ez zen gutti izan niretzat fidatzea...».

«Dudarik izan gabe» onartu zuen gonbidapena eta bizitakoaren ondotik ez da damutu hartutako erabakiaz, «solasez azaldu ezin den sentsazioa» bizitu zuelako: «agudo eta gozaten joatea... ikaragarria izan zen».

Beldurrik ez, errespetua bai

Abiadurak beldurrik ez baina «errespetua» eragiten dionik ez du ukatu lesakar gazteak. Baina, aldi berean, «errespetu hori izatea ona dela uste dut, bertzela, autoan azkar joatea arriskutsua izan litekeelako». Aldi berean, ordea, «gorputzean adrenalina hori

«LAGUN ETA INGURUKOEN BABES OSOA IZAN DUT»

sentitzea polita» iruditzen zaio.

Geroz eta emakume gehiago

Gustuko duenari tarte egitea eta genero estereotipoak gainditzea garrantzitsua da Lukanbioaren ustez. Hortaz, irakurleak gustuko dutena egitera animatu nahi izan ditu: «beldurrak utzi eta gozatu!». Bide hori geroz eta errazagoa da, «zirkuituetan geroz eta emakume gehiago ikusten dira eta rallyetan, guttiago izanagatik, aldatzen ari da...».

Hurrengoa Lesakan

Pausoa emanda, ondoko hitzorduei begira hasia da: «hurrengo hitzordua uztailaren 25ean izan genuen, Irunen egin zen klasikoen igoeran, eta hurrengoa Lesakako Rallysprintean izanen da». Begiz joa du irailaren 5a: «herrian parte hartzea berezia izanen da». Urruti begiratu gabe, hasiera honetan, «gozatzea eta ibilbidea bukatzea» bertzerik ez du desio. Eta nork daki, akaso noizbait gidari ikusiko dugu: «momentuz ez dut horretan pentsatu baina, egia erran, ez dut aukera baztertu...».

Afizioa eta ikasketak

Rallyetan izaten diren motor arazoak ez dira oztopo izanen Lukanbioarentzat. Afizio gisa hasi duen ibilbidea lanbide bilakatu nahi baitu. Hastear den ikasturte honetan «automozioa ikasteko» asmoa du, eta «ondotik gehiago espezializatu nahi nuke».

Aurreiritziak aurreiritzi, bere bidea eraiki nahi luke, eta horretan babes osoa izan duela aitortu du: «zer ikasi nahi dudanean erraten dudanean harridura pixka bat eragiten duen arren, lagun eta ingurukoekin babes osoa izan dut». Maite duena eginez, motorrak konponduz eta autoak gidatuz, urruti ailegatzeko giltza guztiak eskura ditu...

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. Etxea salgai edo errentan emateko. 3.500m²ko partzelarekin. ☎616 24 35 30.



LESAKA. Etxe dotorea salgai, hobekuntza aunitzekin. Argibide gehiagorako eta ikusteko deitu. Eskaintzak aditzeko prest. ☎609 47 72 77.

LABAIEEN. Zaharbertitzeko dagoen baserria eta eraiki berria den etxea salgai, bizitzeko prest. 19.000 m²ko lur eremuarekin. Eguzkitsua eta bista ederrekin. ☎630 23 50 64.



BERA. Kanpora ematen duen 140 m²-ko pisua salgai. 4 logela, egongela, sukaldia eta bi bainugela. 16 m²ko trastelekua. Igogailua. Egoera onean. 189.000 euro. ☎948 63 05 52.

ERRENTAN EMATEKO



LESAKA. Erdigunean eraiki berria den apartamentua errentan emateko. Mobeletatua. Trasteleku handia. 470 euro hilabetean. ☎657 70 89 42 (Whatsapp).

BERA. Eztegara karrikan pisu konpartitu batean logela errentan emateko. ☎667 03 90 27 / 629 00 80 81 (Whatsapp).

BERA. Erdigunean pisua errentan emateko. Hiru logela, egongela, sukaldia eta komuna. Beheko solairuan trastelekua. ☎677 88 94 48.

IRUÑEA. Arrotxapean, irakasle edota langileentzako pisua errentan emateko. 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Mobeletatua, igogailu eta berogailuarekin. ☎666 38 80 63

BERA. Pisua errentan emateko: 2 logela, sukaldia-egongela, komuna,

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira
TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da
Ordainketak Rural Kubako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan
Bizum bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

trastelekua. 2 balkoi. Gas natural-berokuntza. ☎674 14 39 72. (17:00etatik aurrera).

ERRENTAN HARTZEKO

BORTZIRIAK. Eskaera handia dela eta, errentan hartzeko pisuak behar dira. Jabearentzat kosturik gabe. Aitzinetik maizterren inguruko azterketa eskatuko da. Errentamendu-kontratua. Alokairuaren kudeaketa osoa. ☎948 63 05 52.

KONPARTITZEKO

TOLOSA. 2020/21 ikasturterako bi neska hirugarren pisukide bila. ☎684 34 93 24 / 619 94 03 60 (Whatsapp).

EROSI

BORTZIRIAK. Borda bat erosi nahi dute, nahiago planta bakarrekoa eta 200 m² ingurukoa, ura eta elektrizitatea duena. ☎606 44 64 49.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN HARTZEKO

ELIZONDO. Elektrizitatea duen garajea errentan hartu nahi dute. ☎680 47 27 85.

SALGAI

BERA. San Esteban karrikan (17. zk), 36 m²ko garajea salgai. Bi ibilgailuentzat. ☎616 17 63 50 / 606 65 66 40.

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Zarandia karrikan, 130m²-ko lokal komertziala errentan emateko. ☎671 13 45 46.

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

ZUBIETA. 400m²ko partzela urbanizatua salgai. Zonalde onenean, erreka ondoan, eguzkitsua, erakargarria

eta bibrazio onak. 50.000 euro. Erraztasunak. ☎698 51 15 25.

LANA

ESKARIAK

Esperientziadun gizonetza lan bila. Edozein lanetan. ☎641 26 57 64.

Esperientziadun gizonetza lan bila. Edozein lanetan. ☎643 43 09 37.

ESKAINTZAK


BORTZIRIAK. Aholkularitza bulego batean langile bat behar dute. Lan arloan aditua. Bidali CVA: *laneskein-tza31@gmail.com*.

ZUGARRAMURDI. Kattalin jatetxean zerbitzaria behar dute. Esperientzia izatea eta frantsesa jakitea beharrezkoa. ☎948 59 91 46 / 948 59 91 46.

Urarekin lan egiten duen enpresa batek **langile-muntatzaile** bat behar du. PVC, PP eta PEarekin lan egin izana eta elektrizitate-elektronikan eta metal nahiz plastiko soldaduran ezagutzak baloratuko dira. Enpresan gelditu eta promozionatzeko aukerak. Bidali CV-a: *lanaukera01@gmail.com*.

ANIMALIAK

OPARITZEKO



Lau hilabeteko **bi katu** opari. ☎677 09 95 99.



Labrador txakur arra opari, pedigriduna. Oso argia eta zintzoa. 2012an jaioa. Albaitariaren kartilla eta txerto guztiak. Bisitatzerik bagenu, estimatuko genuke. ☎666 81 88 77.

SALGAI



BERA. 2 setter txakurkume salgai. Emeak eta bi hilabetekoak. Atta eta

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 3,96
- 1.koa 3,84
- 2.koa 3,69

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,07
- 1.koa 3,93
- 2.koa 3,79

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiakiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,26/3,36
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 7,55/8,15
- 8-10 kilokoak: 6,20/6,50

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 35 €

Zerri gizona 1,300 €

Zerramak 0,420€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua abuztuaren 14tik 21era bitarteko prezioak)

ama ehiztari onak. ☎630 05 82 59 / 619 37 10 89.

DENETARIK

GALDU-AURKITUAK

Audifono grisa galdu da uztailaren 21ean Donezteben. ☎ 948 45 09 25 / 626 56 60 04.

SALEROSKETAK



90 cm-ko **bi ohatze** salgai. Bakoi-tza 300 eurotan. ☎673 54 87 67.

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT

RENAULT KADJAR ZEN TCE 140 CV
Matri. berria - 20.500 € - Nab. - Radar kam. - Led argiak

RENAULT MEGANE ZEN TCE 140 CV
Matri. berria - 17.700 € - Nab. - Radar kam.

www.talleressantesteban.com

DONEZTEBE - T. 948 450 282 - info@talleressantesteban.com

Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

Kotxe berriak **SUZUKI**

4x4

www.mendaurmotor.es

URTEBETETZEAK



Amaiurko **Xana Mujika Elizalde** abuztuaren 16an 5 urte bete ditu. Muxu haundi bat Gorenen partetik! Etxeko pizpiretak ederki ospatu zuen!



Donezteboko **Oier Lopezek** irailaren 4an 7 urte beteko ditu. Zorionak eta besarkada haundi bat familia guztiaren partetik, bereziki Irai anaieren partetik.



Goizuetako **Yera Salaberria Zabalak** bere lehenengo jaunartzea egin du. Zorionak familia guztiaren partetik eta eskerrik asko bertan gurekin egon zineten guztiei.



Adur Agesta Otxandorenak abuztuaren 18an 3 urte bete ditu! Zorionak eta aunitz urtez! Muxu *haundiek* familia guztiaren partetik!



Suhar Sorli Lizardi aranztarrak bere lehendabiziko urtea beteko du irailaren 5ean. Zorionak familiaren partetik! Muxu potolo-potoloak gure matetxo!




Sara Gomez Ribeirok abuztuaren 16an urtea bete du. Zorionak bere familiaren eta bereziki Nahiaren partetik. Muxuak.




Leitzako **June Urkiola Mariezkurrenak** 8 urte bete ditu abuztuaren 24an. Zorionak eta karamelozko muxu asko Lide, Izargi eta Haizederren partetik!



Elizondoko **Unax Legarrea Arnalek** 2 urte bete ditu abuztuaren 22an. Aunitz urtez familiaren eta bereziki Eider, aita eta amatxoren partetik! Muxux *pollite!*



Libe Tapia Mutuberria lesakarrak 11 urte bete ditu abuztuaren 29an. Aunitz urtez familia guztiaren partetik!



Iturengo **Unax Petrirenak** abuztuaren 16an urte bat bete du. Zorionak Berako atabxi eta Sunbillako familiaren partetik, bereziki Enaitz eta Izareren partetik. Muxu potolo bat!



Leire Mitxelena eta Naia Goia lesakarrek irailaren 1ean eta 15ean urteak beteko dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik.



Hegoi eta Ainerek 3 eta 10 urte beteko dituzte irailaren 5ean eta 10ean. Aunitz urtez familia guztiaren partetik eta muxu potolo bana!! Bazkari goxoa prestatu!!!

ATERA TTIPI TXARTELA eta erabili

pegatina hau ikusten duzun denda eta zerbitzuetan

Aprobetxatu aukera!

HERIOTZAK

- **Jean Bergara**, Sarakoa, uztailaren 21ean, 94 urte zituela.
- **Daniele Marguerite Celine Cabrit**, Sarakoa, uztailaren 23an, 66 urte zituela.
- **Manuel Egurze Goikoa**, Etxalarkoa, uztailaren 23an, 91 urte zituela.
- **Juana Igoa Mitxelena**, uztailaren 26an, 80 urte zituela.
- **Juan Burgete Irazoki**, Berakoa, uztailaren 27an, 90 urte zituela.
- **Marie Therese Etxeberri**, Sarakoa, uztailaren 27an, 88 urte zituela.
- **Jose Obregozo Gamio**, Iruretakoa, uztailaren 28an, 76 urte zituela.
- **Juana Huizi Gogorza**, Ezkurrakoa, uztailaren 29an, 81 urte zituela.
- **Joxe Mari Maiz Bergara**, Arantzakoa, uztailaren 29an, 71 urte zituela.
- **Manuel Aznar Reina**, Elizondokoa, uztailaren 30ean, 91 urte zituela.
- **Felipe Jesus Sagardia Oiz**, Sunbillakoa, uztailaren 30ean, 71 urte zituela.
- **Julian Eskudero Dominguez**, Elizondokoa, abuztuaren 1ean.
- **Jose Etxandi Elorga**, Elizondokoa, abuztuaren 2an hil zen.
- **M. Rosario Jorajuria Zubiri**, Gartzaingoa, abuztuaren 4an, 70 urte zituela.
- **Mª Jesus Jaurena Iturbide**, Arizkungoa, abuztuaren 6an, 85 urte zituela.
- **Miguel Jose Baleztena Loiarde**, Iturengoa, abuztuaren 8an, 84 urte zituela.
- **Juan Fermin Villabona Leitza**, Leitzakoa, abuztuaren 8an, 70 urte zituela.
- **Marie Barrenetxe/Chasselay**, Sarakoa, abuztuaren 8an, 93 urte zituela.
- **Manuela Ursuegi Otondo**, Sarakoa, abuztuaren 11n, 85 urte zituela.
- **Josephine Begiristain Gabarrus**, Sarakoa, abuztuaren 13an, 79 urte zituela.
- **Tomas Florencio Salaberria**, Sarakoa, abuztuaren 14an, 93 urte zituela.
- **Jose Joakin Irazoki Larrañeta**, Berakoa, abuztuaren 11n, 87 urte zituela.
- **Vicente Korteza Aleman**, Zigakoa, abuztuaren 13an, 92 urte zituela.
- **Jose Mari Goienetxe Maia**, Etxalarkoa, abuztuaren 13an, 51 urte zituela.
- **Teodoro Aranbel Ansolabehere**, Elizondokoa, abuztuaren 16an, 89 urte zituela.
- **Esperanza Iguzkiagirre Zoziaia**, Igantzikoa, abuztuaren 16an, 90 urte zituela.
- **Caridad Larregla Garraus**, Doneztebekoa, abuztuaren 21ean, 85 urte zituela.
- **Julia Arozarena Etxegarai**, Iruretakoa, abuztuaren 22an, 98 urte zituela.
- **Joxe Otxoteko Almandoz**, Lesakakoa, abuztuaren 22an, 91 urte zituela.
- **Jesusi Lazkano Zabaleta**, Leitzakoa, abuztuaren 23an, 87 urte zituela.
- **Ana Mari Marin Gutierrez**, Elizondokoa, abuztuaren 24an, 87 urte zituela.
- **Juliana Arzuaga Saldias**, Beintza-Labaiengoa, abuztuaren 24an, 93 urte zituela.


OROIGARRIA



Jose Luis ELIZALDE GOROSTERRAZU

Adiorik ez...
ZURE FAMILIA

OROIGARRIA



Maria Carmen ECHEVERRIA ITZEA **Maite ARBURUA JIMENEZ**

Amatxi, hilabete pare bat joan zinenetik, nahiz eta bukaera gogorra izan ez pentsa ahaztuko zaitugunik.

Eta zu Maite, ia lau urte pasa dira jadanik Orabidea auzoa utzi zenuenetik zure falta sumatzen da hemendik eta ez pentsa ahaztuko dugunik.

Amatxi eta Maite zuetaz pentsatu gabe ez dugu pasa egunik.

Beti gogoan eta bihotzean izanen zaituztegu.

ZUEN FAMILIA

Maria Carmenen aldeko azken agurra irailaren 6an izanen da, 11:00etan Lekarozko elizan.

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Amezti, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70

SORTZEAK

- **Iraitz Arrieta Urtxegi**, Igantzikoa, uztailaren 3an.
- **Malen Criado Rojo**, Lesakakoa, uztailaren 19an.
- **Enea Mutuberria Urreaga**, Doneztebekoa, uztailaren 21ean.
- **Ander Saldias Bereau**, Urrozkoa, uztailaren 22an.
- **Haizea Larzabal**, Sarakoa, uztailaren 4an.
- **Intza Urbistondo**, Sarakoa, uztailaren 11n.
- **Mara Mitxelena Loinaz**, Igantzikoa, uztailaren 23an.
- **Julen Muruzabal Martinez**, Lesakakoa, uztailaren 31n.
- **Eki Iglesias Landa**, Etxalarkoa, abuztuaren 2an.
- **Ekhi Alzuri Goñi**, Sunbillakoa, abuztuaren 11n.
- **Mara Cilla Fuster**, Arantzakoa, abuztuaren 12an.
- **Daire Ruiz Ramirez**, Lesakakoa, abuztuaren 14an.
- **Kaiet Iparragirre Martin**, Zugarramurdikoa, abuztuaren 23an.

EZKONTZAK

- **Gregory Elizalde** eta **Maika Elodie Maider Bordagarai**, uztailaren 11n Saran.
- **Adrien Martial Juanikotena** eta **Maider Lahitette**, Sarakoak uztailaren 18an Saran.
- **Ainara Carrillo Enparan** eta **Jaime Etxaniz Lizaso**, Hondarribikoak abuztuaren 1ean Igantzin.
- **Serge Sauveur Bats** eta **Roxane Raymonde Paries**, abuztuaren 8an Saran.

SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 63 54 58 telefonora deitu edo info@ttipi.eus helbidera idatzi beharko du. Nahiago duenak Whatsappez ere idatz dezake: 744 48 43 61.

 **BEILATOKIAK**
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,
Bertizaranan eta Malerrekan
Hurbiltasuna eta begirunea
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGUI, A TU LADO
T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

 **BAZTAN BIDASOA**
Ehorzeta Zerbitzuak
BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com
Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere
24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com
Betiko taldea zu laguntzeka

KONTATU KONTUAK

**Bordaxuriko Mikel Manzano eta Arantza Altunari esker onez.**

Uztailaren 25ean Arantzaren egin zuten egun-pasaren harira, Azkoititik Arantzara joan zen argazkiko kuadrillak, lerro hauen bitartez, eskerrak eman nahi izan dizkie Arantzako Bordaxuriko Mikel Manzano eta Arantza Altunari. Kontatu dutenez, «Azkoititik kuadrilla ederra joan ginen Arantzara, batzuk aurreko egunean eta beste batzuk larunbatean». Larunbat goizean batzuk Mendaurrera joan omen ziren eta bertze batzuek herrian «Arantza ezagutzeko» aprobetxatu omen zuten. Baina «eguerdian denok bat egin» eta handik aurrera «oso giro ederra» izan omen zuten. «Arantza eta Mikel, zuen Azkoitiko kuadrillakoen partetik, eskerrik asko eta jarraitu horrela!».



Ez-bestetan kulturari eta kirolari keinu. Herriko bestarik gabeko uda izan da aurtengoa baina segurtasun neurriak hartuta kultur eta kirol ekitaldiei tokia egin nahi izan diete eskualdeko hainbat herritan. Beran eta Lesakan, erraterako, ez dute aspertzeko tarterik izan: kontzertuak, haurrentzako ekitaldiak, dantza emanaldiak, bertso saioak, antzerkiak, film emanaldiak, pilota partidak... Gozamenerako tarte ederra izan dute. Irailean borobilduko dituzte uztailen hasitako hitzorduak.

MARIPURTZIL

PELLOZIRI



PLAZAN BAZAN

SUDOKUA

Bete itzazu lauki zuriak BIZIPOZA ! hitza osatzen duten hizkiak erabizliz (B, I, Z, I, P, O, Z, A, !). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

ERNE!

Ohartuko zinen I eta Z hizkiak bi aldiz daudela, kasu horietan koloreari ere erreparatu beharko diozue!


A		I			Z	Z		P
			Z			I	Z	
Z			B		I		A	O
	!			A		P	O	B
I				B			Z	!
O			P		!	Z		A
P				I	Z			Z
		I		Z	P	A	I	
	Z	Z	A	!		O	P	I





LABIRINTOA

Lagunduko al diogu Pelloziriri bere kanpina aurkitzen?



ZIRRIBORROA

Zein marrazki osatuko zenuke zirriborro honetatik abiatuta?



AEKn, IRAKASLE BATEK BIK BESTE BALIO DU.

Irakasten daki eta ikas dezazun nahi du.

UN/A PROFESOR/A DE AEK VALE POR DOS.

Sabe enseñar y quiere que aprendas.



Janire Urrestarazu Aizpuru, AEK-ko irakaslea.



EUSKARA-IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA

Baztango AEK Suinki euskaltegia

Maila guztiak – Ordutegi guztiak · Todos los niveles y horarios

Talde presentzialak – Autoikaskuntza

Grupos presenciales – Autoaprendizaje

EGA prestatzeko ikastaroa

Baztan Berri 7 · 948 45 24 71 · baztan@aek.eus

DIRULAGUNTZAK / BECAS

Udaleko dirulaguntzak jasotzeko aukera

Posibilidad de optar a ayudas del ayuntamiento